



Jakingarriak

FAMILIA ETA ESKOLA



Argitaratzailea:	Mondragon Unibertsitatea Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Laguntzailea:	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Erredakzioa:	Mondragon Unibertsitatea Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Dorleta auzoa z/g 20540 Eskoriatza Tfnoa: 943-714157 Faxa: 943-714032 Helbide elektronikoa: liburutegia@huhezi.edu eta hazitegi@huhezi.edu
Zuzendaritza:	Nerea Alzola
Erredakzio Kontseilua:	Nerea Alzola, Miren Gabantxo, Julia Barnes, Iñigo Ramírez de Okariz, Pili Sagasta eta Elena López de Arana
Erredakzio idazkaria:	Elena López de Arana
Itultzailea:	Edorta Agirre
Euskara zuzentzailea:	Asier Irizar
Diseinua:	A. Vargas
Inprimategia:	Antza inprimategia
L.G.:	SS-981/92
ISSN:	1697-6215

	BERRI BIBLIOGRAFIKOAK
4	Liburu berrien albisteak
8	Esan dute

GAI MONOGRAFIKOA

Familia eta eskola

12	Sarrera. Familia eta eskola
14	Martínez-Pampliega, A. eta Galindez Nafarrate, E. Familia - Eskola erlazioa: nondik hasiko?
18	Flecha, Ainhoa. Familiak ikaskuntza-komunitateetan
22	García Bacete, Francisco-Juan. Elkarrizketak gurasoekin. Aurrez aurreko komunikazio kooperatiboa errazteko tresna
30	Bartau Rojas, Isabel eta Etxeberria Murgiondo, Juan. Gurasoak taldeka prestatzea:familiakideen ardura partekatua hobetzeko bizipen bat
40	de la Guardia Romero, Rosa M^a. Familiak tutoretza bidez parte hartzea: bigarren ezkontzako prestakuntzarako esperientzia.
46	Barandiaran, A.; Larrea, I.; Lopez de Arana, E.; Cristóbal, R.; Lejarraga, A. eta Duñabeitia, G. Familia - Eskola interkomunikazioa
54	Ollokiegi, M.; Maudit, J.R.; Urdanpilleta, E. eta Agirre, A. Gurasoen eta haur eskolaren arteko pareta puskatuz
62	Saez, A.; Burgoa, B.; Ausin, R. eta Mentxaka, S. "Legarda" Herri Eskolako Familia Elkarte: Ahaleginak elkartzen
68	Granadako "Luna" Udal Haur Eskolako profesionalen lantaldea. 0-6 urteko heziketa, partekatu beharreko lana
74	Zabala, Josune. Hiru belaunaldi egitasmo batean
78	IKUSI ETA ENTZUN DUGU. Reggio Emiliako haur eskolak.
80	BALIABIDEAK. EZKURTZO: Marrazkitik - Gorputzera.

Liburu berrie



Barambones, J. eta
Zabalondo, B. (2006).
Ikus-entzunezko itzulpena. Bilbo: UEU.

Euskal Herrian, ikus-entzunezko itzulpengintza Euskal Telebistaren sorrerari lotutako lanbidea izan da eta hala da oraindik ere, ekoizpenari erreparatzera behintzat; hogeita bost bat ur-


teko eskarmentua besterik ez daukagu, beraz. Hogeita bost urte ez dira ezer hizkuntza baten bizitzan. Baina jardunbideari begiratzen hasteko beste badira.

Euskal itzulpengintzaren barruan, ikus-entzunezko itzulpengintza izango da gutxien iker-tuetakoa. Irakurleak bibliografia urria aurkituko du euskaraz gai honen inguruan, eta alde horretatik, lehen oinarriak ezartzeko ahalegina egingo du UEUK argitaratu berri duen liburu honek; izan ere, liburu hau UEUK unibertsitateko ikasleentzat ikasmateriala sortzeko plangintzaren barruan baitago.

Ikus-entzunezko itzulpenaren nondik norakoan agertokia erakusten du, zertan den berezia jarduera hau azaltzen da, eta lanbidean hasteko lehen urratsetan gidatzen du irakurlea (azpidatzietan eta bikoizketarako gidoigintzan). Baina ikus-entzunezko itzulpenaren ezaugarri orokorren gaineko argibideak ez ezik, euskarazko ekoizpenari eta eginbideari lotutako erreferentziak eta adibideak ematen dira. Ofizioa barrutik ezagutzen dutenen ikuspegia antzematen da, eta alderdi akademikoaren aldean praktikotasuna eta lanbideari ekiteko bideei gehiago begiratu zaie.

Bea Zabalondo
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

en albisteak



Ramonet, I. (Koor.) (2006). *El Atlas*. Valencia: Le Monde diplomatique, edición española.

Ignacio Ramonet ez duzu ezezaguna izango; ezta berak zuzentzen duen *Le Monde diplomatique* aldizkaria ere.

Le Monde diplomatique aspaldiko bidelaguna da mundua beste ikuspegi batekin ikusi, aztertu edota hausnartu saiatzen ari direnentzat. Euskarri

ezberdinetan eskaintzen duen ekoizpen handiari esker, nahiz eta frantsesa izan erabiltzen duen hizkuntza nagusia, irakaskuntzan aritzen garenontzat ere erabilgarriak diren ikus moldeak, gaiak eta materialak paregabeko erreferenteak izan daitezke bai irakasleentzat, jakina, baina baita ikasleentzat ere.

Le Monde diplomatique-k ere hilabetekari bat kaleratzen du espainolez, eta bertan irakurri ahal izango dira une horretan puntan-puntan, han eta hemen, pil-pilean dauden gai politikoak, sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta ekologikoak ere.

Eta izaera honekin bat eginda, bada, kaleratu da aurkeztu eta komentatu nahi den *EL ATLAS*, 2006 izeneko aldizkari, liburu edota atlasa; izan ere, ez baita erraza sailkatzea material hau, aldi berean dena baita. Ez da ohiko atlas kartografiakoa; hau da, mapa tematikoen bilduma bat. Bost atal tematikoen arabera banatuta, eta bakoitzean artikuluan eran interesgune desberdinak jorratuz, gaur eguneko mapa kartografiako eta taulen bitartez, komentario laburrak eskaintzen zaizkigu bertan.

Arriskuan dagoen Planeta; Geopolítica berri bat; Mundualizazioa: irabazleak eta galtzaileak; Luze irauntzen duten konfliktoak eta Asiaren paregabeko hazkuntza dira aipatutako atal tematikoak. Eta gainera, artikuluan bakoitzean, gai horretaz sakontzeko, webgune interesgarriak ere eskaintzen dira.

Banan-banan, atalez atal, gaur egungo (2006) gizartearen azterketa eta hausnarketa egiteko pa-


regabeko erreminta bat dugu material hau. Informazioaren monopolioetatik at, non informazioak gero eta arinago eta azkarrago aztertzen baitira, gai izan gaitezke astiro eta aldi berean sakon gaurko gaiak aztertzeko.

Beraz, *Atlas* hau (baina baita *Le Monde diplomatique*-k eskaintzen duen beste edozein euskarrik ere) gure eskoletan kontsultatu eta erabili beharreko materialak dira. Alegia, gaiak beste informazio iturri batzuk erabiltzen irakatsi eta ikastea ere posible dela.

Ezin dira inoiz gertaerak baloratu aurrez ez baldin baditugu ikuspegi desberdinetatik beroriek aztertzen eta ezagutzen. Orduan bakarrik izan dezakegu legitimitatea egoerak baloratzeko.

Ignacio Ramonetek esaten digun bezala, "behar beste denbora erabiltzea komeni da egoerak ondo aztertzeko eta hausnartzeko. Beraz, ez dugu onartzen beste helburu batzuk dituzten komunikabide erraldioen eran dantzan ibiltzea".

Iñigo Ramírez de Okariz
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Xamar (2006). *Euskara jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza*. Pamiela: Iruñea.

Ez da historia soilik. Gu gara.

Nondik hasi pentsatzen ari naizela, eta gauden tokian gaudelako, alegia, hezkuntzaz eta hezkuntzarako aritzen garen gune euskaldun pribilegiatu batean, egoki izan daiteke 200. orrialdetik hasia, hain zuzen ere Julien Vinson-ek 1882an idatzi zituen hitz hauetatik: "*Bestela interes praktikorik eskaintzen ez duen euskal hizkuntza desagertzeko bidean da, bistan denez, garrantzi zientifikorik handiena izan arren. (...) Espainian, bere erabilpena erabat debekaturik dago eskoletan; euskaraz mintzatzen harrapatzen duen umeari eraztun bat ipintzen dio irakasleak; honek, gisa berean, ikaskideren bati pasatuko dio, euskarismo delituan harrapatzen badu, esamoldea zilegi bekit; eta, larunbatean, eraztuna duen haurra gogorki zigortua da.*"

Bertan kontatua ezagun egiten zaigu, euskara jendeon historiaren pasadizo ezagun eta beltza da, eta ilun irudikatzen du euskararen etorkizuna. Eta euskararen gainean izandako hainbat topikoren adibide ere bada: Euskara zaharra da, bitxia da, balio zientifiko handia du -museo baterako, itzelal-, baina ez du balio eskolarako edo zientzia egiteko; ezjakin eta arloteen hizkuntza da; unibertsitatean euskaraz?, mesedez!!; luze iraun du isolatuta bizi izan delako, hemendik ez baita inor pasatu... eta beste hainbat horrelako.

Xamarren liburua horietako topiko asko haustera dator. Eta horretarako, hizkuntza, jendea eta historia bidelagun hartu ditu eta tartekatzen joan da, kronologikoki, horien ezaugarriak, testigantzak, adibideak... Hizkuntzaren historia... historiaren hizkuntza... euskararen jendea... jendearen euskara... euskara jendearen historia... ala historiaren euskara jendea... begiratzen diogula begiratzen diogun aldetik, zenbat gertaera, zenbat ikuspegi, zenbat datu, zenbat iradokizun... zenbat ezagutza eta zenbat sentimendu! Izan ere, hain garrantzitsuak dira bertan Xamarrek eskaintzen dizkigun datuak zein transmititzen dizkigun emozioak.

Aspaldi ikasi nuen munduan egoteko modu originala dela euskalduna izatea. Izan ere, ez al da bitxia mundua ulertzeko eta interpretatzeko ditugun betaurrekoen kolorea? Ni, aitortzen dut, beti liluratu izan naute kolore horren ñabardurek, txikitatik jaso dut ñabardura horiekiko harrotasuna, emozioa. Eta denborekin, emozio hori motibazio, eta motibazio hori

ezagutza, eta ezagutza hori erabilera bihurtzen joan da, hiztun osoaren orekaren bila. Eta liburuan barna ere hori aurkitu dut, alegia, euskararen eta euskara jendearen motibazioa, ezagutza eta erabilera historian zehar gauzatuta. Hori baino ez eta hori guztia!!

Noiz, nondik eta nola etorri da euskara jendea hona? Eta areago: nola da posible, gertatutako eta jasandako guztiak gertatuta eta jasanda, oraindik ere hemen egotea? Xamarrek argi utzi du ez dela isolamenduaren historia izan. Bai, ordea, bizi-nahia- ren historia, bizi-indarraren historia, edo mirari baten historia, akaso.

Hori guztia eta gehiago aurki daiteke liburu honetan, modu atsegin, erakargarri eta didaktikoan kontatua, eskolan erabiltzeko edo gau-mahaian izateko, kontsultarako edo irakurgai, norberak ikus!

Karmele Pérez
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Urkiza, A. (2006). *Zortzi unibertso, zortzi idazle*. Bartzelona: Alberdania.

Gabonetako oporretan Ana Urkiza idazlearen azken liburua irakurri dut, Zortzi unibertso,

zortzi idazle. Irakurraldi atsegina izan da niretzat, zortzi idazleek eskaini didate-eta gauza interesgarri askoak. Zortziak emakumeak dira, baina ez dute antz handirik batak bestearekin. Zortzi emakume argi eta zintzo aurkitu ditut liburu horretan, bakoitza bere zirkunstantzia-rekin.

Kontua da nik oso liburu gutxi irakurri diedala idazle hauei. Bakarrik Arantxa Urretabizkaia nuen irakurrita ia bere osoan. Zergatik Panpox, gainera, izan zen mugarri bat niretzat irakurri nuenean. Miren Agur Meaberi hiru bat liburu irakurri dizkiot, horietan harrigarriena eta ederrena Azalaren kodea. Itxaro Bordari liburu bat, Hiruko, niretzat ezusteko bat, baina %100 Basque ezin izan nuen irakurri hamabosgarren orrialde- tik aurrera. Mariasun Landari ere liburu bakarra irakurri diot, Krokodiloa ohe azpian, eta besterik ez. Lourdes Oñederrarena bide bazterrean utzi nuen, ezin amaiturik, eta beste horrenbeste gertatu zitzaidan Septentriorekin, Aurelia Arkotxaren liburuarekin. Laura Mintegiri eta Yolanda Arrietari ez diet ezer irakurri.

Horietako zenbaiti gehiago irakurri diet prentsa idatzian liburuetan baino, adibidez, Aurelia Arkotxa, Itxaro Borda edo Lourdes Oñederrari. Liburuei dagokienez, berriz, ez nuke jakingo esaten zergatik irakurri diedan hain gutxi, akaso oso irakurle anarko naizelako, baina ez naiz hasiko flajelatzen horregatik, nire irakurketak direnak dira eta kitto.

Beharbada erabat ezezaguna nuelako, Yolanda Arrietak eman dit ezustekorik handiena liburu honetan, bere bizitzak, pentsamenduk eta jarrerak atentzioa eman didate-eta. Bakarra da, gainera, Internet eta teknologia berriak aipatzen liburuan, adibidez jabego intelektuala- ren inguruan, baina hori beste baterako utziko dugu.

Laburbilduz, gustura irakurri dut Ana Urkiza- ren liburu hau, orain lau urte Hasier Etxeberriak idatzitako Bost idazle hura bezain gustura.

Joxe Aranzabal
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Esan dute



Como nos recuerda Paul Ricoeur, es preciso resistirse a la seducción de expectativas puramente utópicas; no pueden sino desesperar la acción [...] Las expectativas deben ser determinadas, por tanto finitas y relativamente modestas, si han de suscitar un compromiso responsable.

Bindé, J. (2005).
Adónde van los valores. Coloquios del siglo XXI.
Bartzelona: UNESCO; 419. orri.



Aquel que quiere tener lo correcto sin lo equivocado, orden sin caos, no entiende los principios del Cielo y de la Tierra. No sabe cómo están hechas las cosas.

Chuang Tzu



El patrimonio es importante en un mundo como el de

hoy, con tanta mentira y manipulación.

(2006) Entrevista a Carlos Millán.
Cuadernos de Pedagogía 361;
49. orri.



Uno de los logros de la bioética moderna ha sido universalizar el debate ético. [...] Hoy la gran confrontación es el problema de la vida y el futuro de ésta en todas sus manifestaciones. [...]

Los grandes problemas de la humanidad son en el fondo cuestiones bioéticas globales: ética de la conservación del planeta, ética del consumo, ética de las migraciones, desigualdades económicas entre Norte y Sur, problemas generacionales de envejecimiento, problemas de natalidad, problemas nacidos de la medicina preventiva como consecuencia del conocimiento del

genoma humano, etc. Todos éstos son problemas cuya solución está más allá de los códigos éticos y deontológicos tradicionales.

Alarcos Martínez, F. J.
(2006-2007).
La bioética global: un paradigma para el reencuentro.
Discurso inaugural Facultad Teología de Granada.



¿Reducir el número de alumnos por aula es lo que produce mejores resultados cuando se compara con otras intervenciones?

Delval, J. (2006).
¿Se debe bajar la ratio?
Cuadernos de Pedagogía 361;
63. orri.



Si la heterogeneidad es lo natural y la

uniformidad es creación humana, la observación de las prácticas educativas nos da a entender que su poder para homogeneizar y su tendencia a hacerlo es la anormalidad convertida en normalidad.

Gimeno Sacristán, J. (2006).
Y descubrimos la diversidad.
Cuadernos de Pedagogía 361;
67. orri.

“ La felicidad incluye la capacidad de atravesar momentos de confusión, tristeza y sufrimiento para conquistar objetivos deseados de proyección y trascendencia.

Braslavsky, C. (2006).
Diez factores para una educación de calidad.
Cuadernos de Pedagogía 361;
95. orri.

“ LOE legearen gai desberdinen gainean hainbat komentario eta 2006ko maiatzean onartutako legearen testua.

(2006). Monografikoa: LOE.
Un análisis en profundidad.
Aula 155, 2006ko urria.

“ Nora bota dugu poza?
Serio dabil jendea.

“ Zein gaitzek ote du harjo bizi-indarraren lorea?

(Gandiaga, B.)
Ezkiaga P. (2006). Poesia eta otoi-tza. *Hemen* 11; 76. orri.

“ Hezkuntza profesionalak oinarri kultural eta psikopedagogiko ona eduki behar dute. Oinarri kulturala edukitzeak gaur egungo zientziaren garapeneta eguneratuta egotea esan nahi du.

Zergatik ezin dute lan egin gela batean bi irakaslek? Eta ez bakoitza bere espazioan, gelan, munduan? Gaur egungo munduarekin zerikusiri kez daukan tradizio bat daukagu arrastaka.

Torres, J. Elkarrizketa (2006).
Hikhasi 112; 16-23. orri.

“ Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa. Herri gisa behar dugun hezkuntza eztabaidatzeko eta adosteko abiapuntua.

Hikhasi 112, 2006ko azaroa.

“ Ikaslea, bere ingurunearekin, sekulako etorkizun

deposito bat da. Eta etorkizun hori proiektuz, esperantzaz eta libertatez betetako sortada. Egokienak aukeratzen eta beste batzuk sortzen lagundu behar dio hezitzaileak (Roger Garaudy).

Aranalde, L. (2006). Haur txintxoaren eredu maite al du pedagogiak? *Hikhasi* 112; 34. orri.

“ Si no me conozco a mí mismo, no puedo saber quiénes son mis alumnos, los veo a través de un cristal oscuro, en la sombra de mi vida no revisada; y, cuando no puedo verlos con claridad, no puedo enseñarles bien. Cuando no me conozco a mí mismo no puedo conocer mi materia, no en los niveles más profundos del significado asumido y personal.

Day, Ch. (2006).
Pasión por enseñar. La identidad personal y profesional del docente y sus valores.
Madrid: Narcea. (68. orri).

“ Sachs señala que hacen falta profesionales que resistan la tentación de aceptar la “aburrida rutina” y la “homogeneidad de práctica”. Estos profesionales no permiten que unos contextos física y emocionalmente exigentes

apaguen la pasión y la esperanza esenciales para una buena enseñanza.

Day, Ch. (2006).

Pasión por enseñar.

La identidad personal y profesional del docente y sus valores.

Madrid: Narcea. (70. orri).



Planteamendu feministak baliagarri zaizkigu

geure buruari hainbat gai birplanteatzeko; horietako batzuetan aurrera egin behar da eta, beste batzuk, ordea, berriak dira edo era berriak hartzen dituzte informazioaren gizartean.

(2006). *Feminismo Dialogikoari*

buruzko Jardunaldiaren konklusioak.

Bilbo: Adarra Pedagogi Erakundea.



El desarrollo democrático de una sociedad del

conocimiento requiere políticas públicas internacionales que garanticen la participación del número más amplio posible de lenguas y culturas, así como condiciones discursivas y contextuales que favorezcan la reproducción y profundización de distintas tradiciones de conocimiento. En muchos foros internacionales este principio es ordinariamente practicado a través de

traducciones simultáneas. Pero en un mundo en que la globalización ya no es sólo cuestión de funcionarios internacionales, empresarios, intelectuales y artistas, deben crearse leyes y dispositivos institucionales que propicien equidad y diversidad también para migrantes, turistas, perseguidos políticos... y aun para los científicos a los que se les exige hablar y discutir en inglés, aunque piensen e investiguen en otras lenguas.

García Canclini, N. (2004).

Diferentes, desiguales y desconectados.

Mapas de la interculturalidad.

Barcelona: Gedisa. (187. orri.).



Zelofanezko liburu edulkoratuegi asko dago errealitatea ezkututzen dutenak.

Patxi Zubizarreta.

Berria. 2006ko urriaren 19an.



Fantasiazko protagonistak dituen

abenturazko liburu ederra da Patxi Zubizarretarena (*Pantaleon badoa*. Iruñea: Pamiela, 2005; Haur eta Gazte literaturako Euskadiko saria jaso berria duena), ilusioaren

pizgarri, laguntasuna, ikusmina eta bestelako balioak bereganatzen dituen. Gainera, esamolde eta ahots ugariz osatutako lana izanik, pertsonaia bakoitzari ahots eta erregistro propioa ematen zaio. Jokin Mitxelena ilustratzaileak egin duen lana ere goraiatzekoa da, marrazkien bitartez ulertzen baita ipuina.

Asun Agiriano.

Berria. 2006ko urriaren 19an.



En estos momentos buscamos con

rapidez cualquier tipo de respuesta, todo es rápido, todo es zapear, todo es clic. Pero ¿qué es lo importante en la vida? El tiempo, el camino. Y la narración es precisamente eso, tiempo y camino. Yo creo que la vida es interesante cuando se puede contar no solo contar cuentos, sino narrar cuando estamos en torno a una mesa, aunque sean cosas relativamente simples. . . [...] Un gran científico francés de fines del siglo XIX dijo en la Academia de Ciencias a sus colegas: "si ustedes quieren matemáticos, cuénteles a los niños

cuentos, porque lo importante es la imaginación.”

Geneviève Patte (2006).
Educación y Biblioteca 155;
57-60. orri.



La biblioteca es también lugar de voces, de las miles de voces que están presentes en los libros. Pero para eso se necesita, por supuesto, que alguien pueda animar el libro; se necesita una mediación.

Hoy en las bibliotecas francesas muchos profesionales piensan, imaginan, nuevas formas de la oralidad en la biblioteca.

Petii, M. (2006).
Educación y Biblioteca 155;
53-56. orri.



Necesitamos estudiar los libros que atraen a los niños con vistas a saber por qué lo hacen. Pero también debemos preguntarnos a nosotros mismos por qué algunos libros que les atraen a ellos no nos atraen a nosotros. ¿Es que quizá exigimos demasiado a los libros de LIJ? Algunos de los libros premiados en los últimos

tiempos no son en absoluto cómodos para los lectores niños. Quizá en nuestro deseo de subir el nivel artístico de los libros hemos perdido algo esencial para el niño.

González, L. D. (2006)
Maria Nikolajeva,
una apasionada de la LIJ.
CLIJ 199; 28-39. orri.



Un libro tiene que tener un buen principio y un final todavía mejor. Debe empezar con algo interesante que esté pasando y terminar con un bombazo.

Puerta, G. y Anson, M. (2006).
Detrás del trazo.
Entrevista Tony Ross.
CLIJ 199; 7-18. orri.



Amildegia bat zegoen haur poesiaren eta benetako poesiaren artean. Ikuspegi horrekin hasi nintzen maisu lanetan, harik eta esku artera liburu bitxi bat jausi zitzaidan arte: Maria Rosa Colaco portugaldar maistraren *Poesia y vida*, antologia gazteleratua. Jo eta ma geratu nintzen; poema xume haietan benetako zirrarak zeuden, bizitzaren emozio benetakoak, eta

haurrek asmatuak ziren, batzuk oso haur txikiak (gero irakasleak papereratuak).

Juan Kruz Igerabide.
Haur poesia eta bizitza.
Diario Vasco.
2006ko abenduaren 6an.
Durangoko azokako
eranskina, 11. orri.



El libro de Ursula Wölfel supuso un importante inciso en la entonces decadente literatura infantil y juvenil que se ofrecía, en general, en España y, a la vez, fue la presentación de lo que nosotros entendíamos por la literatura infantil.

Puerta, G. (2006).
Entrevista a Lorenzo
Rodríguez Lóquez.
Educación y Biblioteca 155;
89-92. orri.



Itakarako bidean bideak berak helmugak baino garrantzi handiagoa hartzen du. Eta gauza bera gertatzen da literaturan, irakurtze hutsa gozamenaren bilakatzen baita.

Miren Azcarate,
Kultura Sailburuak.
2006ko azaroaren 28an.
*Euskadiko Literatura sariak
banatzeko ekitaldian*.

Pello Añorga eta Nerea Alzola

Familia eta eskola



Ibarrako H.E. Gipuzkoa (2006).



Eskolaren eta familiaren arteko harremanez mintzatzea eta gaiari ale monografiko bat eskaintzea nahiko kontu labaina da.

Gure ustez, gai hau aztertzen denean, sarritan ahazten zaizkigu kultura paradigma berriak. Gure mundua eta gure gizartea asko eta azkar aldatzen ari dira, eta ez baditugu kontuan hartzen hainbat faktore, gure diskurtsoa desfasatua eta hutsa izan daiteke.

Ematen ari den aldaketa oso konplexua da, eta, beraz, familiaren eta eskolaren arteko harremanaren azterketa ez da batere sinplea.

Nola baztertu gaiaren lanketan, besteak beste, elementu hauek?

- Egoera ekonomikoaren hainbat ezaugarri: kontsumoa, mugikortasuna, lan postuen ahultasuna, lan-ordutegiak, etorkizunaren aurrean ziurtasun falta, desberdintasun ekonomikoak, etab.
- Aldaketa sozialen eta kulturalen hainbat indikadore: familia-ereduak izan duen aldaketa sakona, harremanen gorabeherak, aisialdiaren kontzepzioa berriak, hezkuntzarekiko eskaera zabalak, indibidualismoaren mugak eta arazoak, bizi-zentzuaren orientazioaren aldaketak, etab.
- Hezkuntzaren eta eskolaren aldaketak: hezkuntzaren eginkizunaren perspektiba berriak, hezkuntza iraunkorraren ikuspegia, herritarta-

sunerako hezkuntzaren premia, irakasleen perfila, etab.

- Teknologia berrien indarra eta eragina gure bizitzan: komunikazio bide zabalak, munduaren ikuspegi ezezagunak, ikasteko esploratu gabeko bideak, etab.
- ...

Gizarte mugikor honetan, haurra familia batean jaio eta hezten da, eta eskolara derrigorrez joan behar da. Familia berri eta anitzetan eta hezkuntzaren premia “berrietara” deitutako eskolan hezten dira gure umeak. Baina ez da nahikoa kontuan izatea soilik eremu bi hauek: ikuspegi ekologikoa behar dugu, eta, nahiz eta eskolaren eta familiaren arteko lotura eta harreman sendoak behar, sare sozialak sortu, elikatu eta garatu behar ditugu, haurrak izan dezan humus aberatsa pertsona aberatsa eta herritarra izateko.

Hau esanda, saiatu gara, monografiko honetan, ikuspegi zabal hau izaten, eta, horretarako, hainbat ekipo, hiritar eta espezialistei parte hartzera gonbidatu ditugu. Neurri batean produktu anitza lortu dugu, eta kasu batzuetan sare zabalaren ideia eta beharra azpimarratu dugu. Baina kontziente gara, errealtatearen eta gizakiaren ahots sakonak entzun ondoren, haurren hezkuntzan haratago joan behar garela eta ausartak izan.

Jakingarriak aldizkariaren ale honetan, laguntza eta hausnarketa eskaini diguten lagun denei gure esker beroenak eta irakurleei, irakurketa aberatsa, kritikoa, funtzionala eta atsegina izan dakizuela!.

Nerea Alzola

Familia - eskola e nondik hasiko?

Ana Martínez-Pampliega: Deusto Unibertsitatea (FICEko irakaslea)

Edurne Galindez Nafarrate: Mondragon Unibertsitatea (HUHEZIKo irakaslea)



"Ikastetxearekin inplikatu egiten naiz ni, deitzen nauten bilera guztietara joaten naiz eta."

"Gaztetxoek arazorik ez badute, badirudi gurasook existitu ere ez garela egiten; gauzak okertzen hasiz gero, ordea, aurreneko errudunak geu gara."

"Nola hartuko ote dut parte gurasoentzako hitzaldietan? Nork zainduko dizkit umeak bien bitartean?"

"Irakasleek ez dute guk esku-hartzea gura; haien lanaren parte bat guk egin dezagun baizik ez dute nahi."

"Eskola-porrotaren azpian beti dago seme-alabekin inplikatu ez den gurasoa."

"Gurasoek parte hartzeko interesik balute, inplikatzeko modua bilatuko lukete, seguru."

"Umeek ikastetxean lanak amaitzen ez badituzte edo horiek egitean eragozpenak topatzen badituzte, aurrera egin eta gurasoekin indartu behar dituzte ikasketak, ikaskideen erritmoan ibili nahi badute."

erlazioa:

Esakune hauek amaigabe luza litezke. Gurasoek eta irakasleek elkarri lepora liezazkiokete bai ikasleen eskola-porrotaren erantzukizunak eta bai ikaskide zein irakasleekiko harremanetan izan litzaketen eragozpenen ardurak ere. Elkarrekin hertsikiago ez jardutearen errua egotz diezaioke batak besteari, baina... jarduteko era horrek ez garamatza urrutiegira.

Har ditzagun beste kasu batzuk, abiagune gisa:

1. Guraso eta irakasleek interes berak dituzte: seme-alaba edo ikasleentzat ahalik eta hobereana erdietsi nahi dute, ongizateari eta ikaskei dagokienez.
2. Ikerlanek frogatua dutenez, gurasoen eta irakasleen elkarlanaren emaitza umeen eta gaztetxoan lanean lortzen da: etekinean, motibazioan, segurantzian, jokatzean, arazoak gainditzean...

Ondorioa begi-bistakoa da: elkarlan horretara eramango gaituen bidea taxutu behar dugu. Horrek ez du esan nahi, jakina, bide hori lau eta zabala izango denik.

- Era askotako familiak daude, biziki gorabehera eta arazo desberdin dituztenak. Ikastetxeetan gurasoen rolari dagozkion jarrera eta itxaropenak ere arras diferenteak izan daitezke. Guraso batzuek ikastetxeak parte har-

tzeko deiaren zain daude; beste zenbait, hamaika deialdi jasota ere, bazterretik joango dira.

- Eskuarki irakaslea saiatzen da bere heziketa-irizpideak gurasoei ezartzen: eta jarduteko eran legitimitatea ukatzen die; baina, aldi berean, seme-alaben hezkuntzan arduraren exijitzen die, eta ezgaiak direla frogatzen saiatzen da.



Iñigo Bustamante Egiluz (2006).



<http://www.psd1.org/psd2/pictures/57952.jpg>

- Hezkuntza-sistemaren ga-beziak gurasoek estal ditzaten nahi izatea ere ez da kasu bakana. Egunero seme-alaben eskola-gaien ikasketan tarte bat eman dezaten exijitzen zaie, ikasle jakin horrentzat eskola-erritmoa bizibizia (biziegia, agian) delako edo hezkuntza indibidualizatuago batean jarduteko baliabide konpentsagarriak ez dagoelako. Noski, tarte hori (ordu mordoxka) maiz ez dago hartzerik edo nekez atera liteke, lanaldi luze baten ostean. Horrela beste tentsio-elementu bat agertzen da eszezan, familia giroko harremanak galarazten dituena.

Nola sustatu familiaren eta eskolaren arteko elkarlan hori? Hona oinarrizko ideia bat: eskolak gurasoei hainbat jardueratan parte har dezaten erraztu behar die, baina gurasoek erabaki behar du-

te nola, noiz eta zein maiztasune-kin. Inplikatzeko garrantzi handiago du egiten den lanak baino. Jarduera horren bitartez, edozein dela ere, seme-alabak egiten ari direnaren, hezkuntzaren, aldeko interesa erakusten dute gurasoek. Ikastetxean parte hartzeari esker, gurasoak hezkuntza-alorreko arazoak hobeki ezagutuko ditu, eta eskolaren eta irakasleen aurreko jarrera onuratsuagoa agertuko du; aldi berean, irakasleen lana balioztatzen duela ere frogatzen du horrek. Hori guztia, dudarik gabe, umearen jardueraren eta garapen integralaren mesedetan izango da: horixe da, azken finean, gurasoei eta irakasleei gehien interesatzen zaiena.

Nola susta daiteke eskolaren eta gurasoen arteko kontaktua, ordea? Nolako jardueretan inplika daitezke gurasoak, traba egiteko sententziarik izateko? Lan hori lau eremutan egin daiteke, gutxienez:

1. Gurasoek ikastetxearen funtzionamendua, seme-alaben garapena (emaitza on eta txarrak), heziketa-curriculuma, diziplina-prozedura zenbait... ezagutzea.
2. Seme-alaben heziketa dela-eta, senitartekoei ikastetxetik laguntza jasotzea, etxeko gorabeherak antolatzeko eta ikaslea fase eta maila bakoitzean sustengatzeko. Aldi berean, gurasoek ikastetxeari laguntza eman liezaioke, seme-alabak hobe uler ditzaten.
3. Etxean egiten diren ikasketa-jardueretan -etxeko lanak eta eskolako curriculumarekin zerikusia duten bestelakoetan- familiek inplikatzea.
4. Senitartekoei eskolako eta eskolaz kanpoko zereginean laguntza eman eta sustengatzea.

Heziketa zentroa den aldetik, azaldu dugun guztia zenbaitetan ulergarri gertatzen da; arazoa, berriz, bestelakoa da: nola hasi, nondik hasi, nola familiak mugiarazi...

Elkarlanean oinarrituriko zeinahi proiekturen lehen fasea komunikazioa sustatzea da, dudarik gabe. Familiaren eta ikastetxearen arteko konfiantza-giroa sortu gabe nekez gorpuztuko da hemen azaldu-tako ekimenik.

Askotxoren ustez, ikasturtearen hasieran bilera bat egin eta familiekin kontakturen bat (inoiz edo behin, arazorik sortzekotan bakarrik) izanez gero, komunikazioaren kontu hori konponduta dago. Errealitatea, ostera, askoz ere konplexuagoa da. Egin ditzagun galdera batzuk:

1. Guraso berriak orientatzeko prozesurik egiten al da?
2. Curriculumaz, ebaluazioez, exijitzen diren mailez... informazio zehatz eta argirik ematen al da?

3. Familiaren eta eskolaren arteko komunikazioa errazteko norabide biko kanalik eratzen al da?
4. Seme-alaben helmugez, interesez, alderdi positiboez eta talentuez informaziorik eskatzen al zaie familiei?
5. Ikaslearen portaera onaz eta umearen lorpenez gurasoei ezer jakinarazten zaie, edo jakinarazpen horiek zigorrak eta jokatibide okerrak jazotzen direnean soilik ematen zaizkie?
6. Urtero-urtero ikerketarik egiten al da, ikasleen premiez, eskola-egitarauen aurreko erreakzioez eta eskolan inplikatzearekin agertzen duten asetasunaz informazio eta kezkek senitartekoek ere parteka ditzaten?
7. Jarduera informalik antolatzen al da, horietan gurasoek, eskolako pertsonalak eta komunitateko kideek elkarrekin komunikatu ahal izateko?

Ikastetxean parte hartzeari esker, gurasoak hezkuntza-alorreko arazoak hobeki ezagutuko ditu, eta eskolaren eta irakasleen aurreko jarrera onuratsuagoa agertuko du

Bada lanik oraino. Dena den, al-daketa-prozesua estructures argi eta antolatuz jantzi nahi bada, errealitatea aztertzei hasi behar dugu, gabeziak eta hobetzeko alderdiak ikus ditzagun, azterketa kualitatiboa egin eta jardueren lehenetsunak ezartzea bideratuko diguten gurasoen batordeak (adituen taldeak) antolatuz.

Ekimenak, hamaika ekimen dira; ikastetxe bakoitzari, ordea, premia-koenak egokitu behar zaizkie (taldeko bilera gehiago, erantzun-gailu automatikoak, iradokizun-ontziak, ikasturte amaierako jaiak, jarduera-erakustaldiak, posta elektronikoa...).

Prozesu horretan gauza bat izan behar dugu garbi: Gimeno-k dioenez (1999), denok txalupa berean goazela, helburua guztiok elkarrekin salbatzea da.

Erreferentzia bibliografikoak:

- Gimeno, A. (1999). *La familia: el desafío de la diversidad*. Barcelona: Ariel.



Familiak ikaskuntza

Ainhoa Flecha

Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea



Informazioaren gizarte honetan ikasketa ez da ikasgelan gertatzen denaren arabera aldatzen, ikasleek esku hartzen duten eremuen artean gertatzen diren interakzioen arabera baizik: familia, ikastetxea, auzategia, aisialdiko jarduerak, etab. Familia eta eskola dira gure haurrentzako eremu garrantzitsuenetako bi, eta, horrenbestez, premiazkoa da ikasketa eta eskola-arrakasta sustatzeko xedez, eragileek elkarlan hertsian aritzea.

Ikasketa-Komunitateak¹ proiektuak helburu du eskola-porrota gainditzea, eta, liskarrak konpontzea lanabes gisa baliatuz, ikastetxeak eraldatzea. Informazioaren gizarteari eman dakiokkeen berdintasunezko hezkuntza-erantzun gisa planteatzen da, haur guztiei hezkuntzarik hobereana jasotzeko eskubidea zor zaiela, hori erdiesteko gai direla, eta, aurretiaz, kultura eta hezkuntza marjinala jasotzera kondenaturik inor ez dagoela aintzat izanik.

Ikaskuntza Komunitateak, haurren hezkuntzan familien, eta, oro har, komunitate osoaren parte hartzean oinarritzen da, ikastetxeetan ikasketa eta elkar bizitza sustatzeko. Jarraian, familiaren parte hartzea garrantzitsua den area batzuk aipatuko ditugu.

Kultur aniztasuna eskolan

Aspaldi honetan gure gizarteak, eta, ondorioz, gure eskolak kultur-aniztunago (multikulturalago) eta etnianoiztunago (multietnikoago) bilakatzen ari dira egunez egun. Aniztasunaren areagotze hori, askotan, kaltegarri ikusten dute eskola-eragileek; beste alde batetik, kultura-talde batzuek beren kultura eskola-erakundeak arbuia egiten duela sentitzen dute, kultura askok ez baitute behar bezainbesteko ordezkari bertan. Maisu-maistrak, zuzendari-taldeak eta eskolako pertsonal osoa, orokorki, kultura nagusiko kideak dira eta maiz ez dute ezagutzen ikasleen kultura. Homogeneotasun kulturalak bado eraginik beste hainbat alortan ere: edukietan, materialetan, etab.

Ikaskuntza Komunitateen ekimenezko bat eskolan langile boluntarioak sartzeari da. Kolaborazioa zabala da: ordu jakin batean liburutegiaren tutoretza egitea, ikasgela hura apaintzea, gaztetxoei matematika eskolan laguntza ematea, etab. Eskolan komunitateko kideak, senideak edo bestelako pertsonak sartzeari kultura arteko elkarbizitzarentzat mesedegarria da eta, gainera, este-reotipoak hausten laguntzen du. Hortxe ikus dezakegu, adibidez, ama arabiar musulmana, bere *hijab* eta guzti, ingeleseko eskolan laguntzaile lanetan. Era horretan, gaztetxoek emakume arabiar musulmanez zuten klixia ("prestakuntza apal-apaleko andreak dira") hautsi eta hezkuntza prozesuan aurrera egiteko laguntzaile ikusten dituzte. Aniztasuna ugaltzea, horrela, aberastasun

(1) www.comunidadesdeaprendizaje.net

- komunitateetan



Los Lagos Unibertsitatea. Txile (2007).

gisa ikusten da, liskar iturritzat jo ordez.

Gu ez bezalako pertsonen parte hartzeak eskola dinamika aberastu egiten du, gure gizartean diren kultura desberdinen ordezkariago eta pluralago bihurtzen du. Ume eta gaztetxoek estereotipoak hausten, bestelako kulturak ezagutzen eta gu ez bezalako pertsonetik elkarbizitzan ohi-tzen laguntzen du.

Senideen prestakuntza

Senideen prestakuntza, hitz gutxitan, gaztetxoaren senitartekoentzat eskolan bertan prestakuntzazko jarduerak antolatzea da. Kasuan kasuko errealitatearen arabera, etorkinentzat alfabetatze edo espainierako ikastaroak, tertulia literarioak, gidatzeko baimena ateratzeko eskolak, antzerkia, kanta eta beste gai askotako eskolak antolatu izan dira dagoeneko.

Senideak prestatze horri esker, besteak beste, familia eta eskolaren arteko urruntasuna hautsi egiten da; ondorioz, elkarrenganako konfiantza areagotzen da eta hezkuntza-maila apaleko pertsonak eta hezkuntza-erakundearen artean betidanik izan diren hesiak urratzen dira. Gurasoak natural sartzen dira ikastetxean eta haurrak ohitu egiten dira familiarak hezkuntza-komunitateko kide gisa ikusten.

Pertsona guztien parte hartzeari esker bakarrik prebenitu al izango ditugu liskarrak eta bermatu ahal izango dugu eskola barneko elkarbizitza

Senideen prestakuntzak, bestetik, etxeko dinamika bera ere aldarazten du: bertan ikusiko dugu ama-alabak mahai berean, elkarrekin etxeko lanak egiten edo aitak semeari ulertzen ez duen esakunea azaltzen.

Elkarbizitzako Eredu Komunitarioa: IGE haietatik ISE hauetara

Eskola barruko gatazkek gero eta bizikiago kezkatzen gaituzte. Zeinahi ikasle edo irakasleri erasotze horrek eskola-biolentzia konpontzeko formula berrien bila has gaitezen premia gorria erakusten digu.

Tradizioz, liskarrak diziplina-ereduaren eta "adituen eredu" delakoaren bitartez saiatu izan dira konpontzen. Lehenaren oinarrian agintaritzak daukan pertsona datza eta bigarrenaren euskarrian, pertsona adituak.

Nolanahi ere, hainbat ikerlanek frogatu dutenez (ARIE, DAPHNE) gure inguruko errealitateei erantzuna emateko unean eredu horiek ez dira aski. Askotan, informazioa aginte zein pertsona adituenganaino iritsi denerako ara-

zoa larriegia da eta konponbidea, berriz, nekeza. Maiz egoeraren berri duten lehenak ez dira gurasoak, beste inor baizik. Gure ikerketa bati esker ezagutu genuen kasu jakin batean, adibidez, hamaika urteko neskatxoak halako batean eskolara joan nahi izateari utzi zion. Arazoa: lehentxeago bere gelako mutiko batzuei felazioa egin behar izan zien. Gelako neskek horren berri jakitean bizkarra eman zioten eta, orduan, neskatxoak ahizpa zaharrari azaldu zion egoera. Ez maistrak, ez aitak (eskola bereko hezitzaile zela) ez zekiten hitzik ere egoeraz.

Kasuak erakusten duenez, eskuarki egoeraren berri dutenak profesionalak edo gurasoak ez direnez, ezinbestekoa da hurrekin elkarreaginean diharduten pertsona guztien partaidetza. Horregatik, Ikasleen Gurasoen Elkarteak (IGE) eskas gertatzen direnez, horietako askoren ordez Ikasleen



Amaia Arrieta eta Ander Arrieta (2006).



Senideen Elkarteak (ISE) sortzen ari dira.

Eskolako biolentzia ez da maisu-maistren kontua: problematika horretan denok gara arduradun eta, horrenbestez, konponbidean bai profesionalok (bitartekariak, maistrek, zuzendari taldeek, aisialdiko hezitzaileek, etab.) bai senitartekoek eta komunitateko beste hainbat pertsonak ere haru behar dugu esku.

Eredu komunitarioaren oinarrian komunitateko eragile guztien arteko elkarriketa datza: bai arauak

adosteko, baita horien aplikazioa kudeatzeko eta, liskarrik agertzean, jarduteko. Pertsona guztien parte hartzeari esker bakarrik prebenitu al izango ditugu liskarrak eta bermatu ahal izango dugu eskola barneko elkarbizitza.

Erreferentzia bibliografikoak:

- Beck, U. (1998). *La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad*. Bartzelona: Paidós.
- CREA (2005). *Educació en valors per la prevenció de la violència de gènere als instituts d'educació secundària. Ajuts a la Recerca*. Agència de Gestió d'Ajuts Universitaris i de Recerca. Departament

d'Universitats, Investigació i Societat de la Informació (AGAUR). (2004-2005).

- Duque, E. eta García, C. (2003). *Comunidades de aprendizaje: la inclusión de todos los niños y niñas. Aula de Innovación Educativa 121*; 53-55 orri.
- Elboj, C; Puigdemívol, I; Soler, M. eta Valls, R. (2002). *Comunidades de aprendizaje. Transformar la educación*. Bartzelona: Graó.
- Flecha, A. eta García C. (2004). *Entrevista a James Comer: El Programa de Desarrollo Escolar. Cuadernos de Pedagogía, 341*; 86-89 orri.
- Habermas, J. (1987). *Teoría de la acción comunicativa*. Madril: Taurus.
- Touraine, A. (1997). *¿Podemos vivir juntos? Iguales y diferentes*. Madril: PPC.

Elkarrizketak guraso

Aurrez aurreko komunikazio koo

Francisco-Juan García Bacete¹

Universitat Jaume I. Castelló



Ikastetxearen eta familiaren arteko harremana jarduera-mota askotan gorputz daiteke, hasi instituzionaleenetatik -eskola-kontseiluetan parte hartzea, adibidez- informaletaraino -ikastetxean sartu eta bertatik irteteen informazioa jorratu eta trukatzeko, esaterako-. Guraso eta irakasleek eskolaz kanpoko jardueren antolakuntzan ere jardun dezakete elkarlanean, jantokiko, elkarbizitzako eta antzeko batzordeetan esku hartuz, gurasoen eskoletako jarduerak hedatuz, etab.

Hona beste hainbat jarduera: ikastetxeari buruz gurasoek jakin behar dutenaz informazio-dokumentuak egitea, hezkuntza-administrazioaren aurrean errebindikazio-ahaleginak egitea, hala nola eraikin duina izateko eskubidea erreklamatzeko. Elkarrekin egiteko modukoak izanik, honelako eta bestelako jardueretan sentitartekoak irakasleentzako partaidetza gradua, maiztasuna, prozesua adierazten diren jarrera eta gaitasunak, are iristekoak diren helmugak alda daitezke.

Hala eta guztiz, gurasoak eta irakasleak elkartzeko imajinatzen ditugunean burura etortzen zaigun irudia betikoa da: irakasle batek edo irakasle-talde batek talde edo kla-

se bateko guraso guztiekin antolatutako bilerak, edo, gehienez ere, irakaslearen eta ume baten gurasoen arteko elkarrizketa.

Motiboak era askotakoak dira, denak baliozkoak eta, baliteke, denak elkarren kausa eta ondorio: ohitura bera; bestetan parte hartzea eragozten duen orduetarako ezin uztartzea; gurasoek eta irakasleek uste izatea (edo pentsatzea besteek horrela uste dutela) seme-alabengatik gurasoek sentitzen duten interesa handiagoa dela, eta, zenbaitetan, interes hori bakarrik mugatzen dela zuzeneko onuragarri bakarria semea edo alaba den egokieretara; edo pentsatzea indarreko legerian agertzen diren agindu bakarrik direla.

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektoreen parte hartzea arestiko espainiar legeriaren (legeria ugaria, benetan: LODE, LOE, LOGSE, LOCE... nagusi horiez gainera, maila apalagoko zenbait ere) atarikoetan kalitate-printzipio gisara agertzen da, baina, egiazki, artikulatua nabarmentzen den bakarra gurasoen eskubidea da: informazioa jaso dezaten, aholkua eska dakien (beren hitza entzuna izan dadin) eta eskola kontseiluetan ordezkatuak izan daitezkeen eskubidea, hain zuzen.

Ikastetxean familiekiko harremanen egunerokotasuna erkidegokotasun mailan arautu behar den Tutoretza-Ekintza Planean (TEP) agertzen da (izan ere, hori ez litzateke hu-

(1) Autorearen helbidea: Departamento de Psicología Evolutiva, Educativa, Social y Metodología. Facultad de Ciencias Humanas y Sociales. Avda Vicente Sos Baynat s/n. Universitat Jaume I. 12071-Castelló. e-mail: fgarcia@psi.uji.es

ekin

operatiboa errazteko tresna

tsaren hurrena, tutoreen prestakuntzaz edo gurasoak eta irakasleen arteko benetako komunikazioa eta elkarlana sustatzen dituzten ikastegiaren antolamendu-baldintzez, adibidez, zerbait aipatuko balitz).

Valentziako erkidegoko Haur Eskola eta Lehen Hezkuntzako Arautegi Organiko eta Funtzionalean, behintzat (ez dugu uste gainerako autonomi erkidegoetakoak bestelakoak direnik), ikasle-talde bakoitzak tutore bat izango duela adierazten da; tutore horien eginkizunetako batzuk dira, jarduera didaktikoekin ez ezik, ikasleen ikaste-irakaste prozesuekin ere loturiko guztiaz gurasoei informazioa ematea, eta irakasleen eta gurasoen arteko hezkuntza alorreko elkarlana sustatzea.

Hezkuntza Kontseilariak urtero ematen dituen ikastetxeen antolakuntza eta funtzionamendurako aginduetan (1997-1998 ikasturterako eman zirenak urterik urte etengabe luzatu izan dira egundaino, aldaketa gutxi tartekaturik) zerbait zehaztu da: seme-alabek eginiko aurrerabidearen berri ida-

tziz jakinaraziko die tutoreak gurasoei eta bere taldeko ikasleen gurasoekin bilera egingo du hiruhilekoan behin, gutxienez, interes orokorreko kontuak jorrazteko. Era berean, gurasoen gonbiteari edo eskaerari erantzunez ere, aita-amekin elkartuko da. Astean tutoretzako jarduerari ordubete emango dio tutoreak ikastetxean, ikasleekin eta beren senitartekoekin.

Paragrafo horretan diogunak adierazi nahi omen du hiru hilean

behin aurkeztu beharreko informazio idatzizkoak (kalifikazio-buletinak, alegia) ahozkoak (taldeko gurasoekiko bilerak) eta gurasoekiko elkarrizketak (irakaslearen inbitazioz edo gurasoen ekimenez) tutoretzako jardueran tutore guztiek eman behar duten asteko ordubetean ("26. ordua" deritzona, hots, gurasoen artapen edo bisita unea) direla gurasoen eta irakasleen arteko harremanen euskarria lantzeko hiru tresna bakarrik.





Gure ikuspegitik, hiru estrategia horiek egundoko garrantzi eta ahalmena dute, dudarik gabe, baina guraso eta irakasleei laguntza eta prestakuntza handiagoa eman beharko litzaieke, bilera horietan elkarrengandik onura handiagoak atera ahal izateko.

Terrón, Alonso eta Díez-ek (2003) uste duten bezala, ikastetxean sartutakoan, arazo behinena da ezarri diren komunikaziorako kanal ofizialak eraginkorrak ez izatea, gurasoak ate irakasleen arteko konfiantzarik eza, balizko komunikazio mesedegarri eta eraginkorra galarazten duena.

Aurrerantzean, guraso(ar)en eta irakaslearen arteko elkarrizketez arituko gara, bigarrenaren egin-tza-alorretik begiratuta, batik bat. Hasieran, elkarrizketatzat zer hartzen dugun zehatz-mehatz azalduko dugu; ondoren, zeinahi elkarrizketatan aintzat hartu behar ditugun elementuak jorratuko ditugu. Amaiera emateko, guraso eta irakasleek elkarrizketatik etekin handiagoak atera ditzaten irakasteko, berariazko jarduera bat aurkeztuko dugu.

Elkarrizketak: zertarako, zergatik, nola

Aipatu legez, tutorearen eginkizunetako bi dira, batetik, familiekin tarteka kontaktuak egitea, eta, bestetik, horrelakoak egin daitezten eskatzeko ekimena har dezaten, gurasoak animatzea. Elkarrizketa, izan, aurrez aurre komunikatzeko lanabesa da.

Gurasoen eta irakasleen arteko elkarrizketa izan ohi da irakasleek gurasoekin seme-alaben aurrerapenez mintzatzeko dituzten aukera ofizialeko bat, baina bilera horietatik irakasle asko eta, nola ez, guraso ugari ere gogogabeturik irtezen dira. Trillo-k (1999) dioenez, gurasoek eta irakasleek elkarrekin komunikatzeko duten lanabes hobereena elkarrizketa da.

Tutoretzari buruzko eskuliburu askotan, egin beharko genukeena eta itzuri beharko genukeenari buruzko orientazio eta aholkuak irakurriko ditugu. Román & Pastor (1984) eta Asensi & Lázaro (1987) autoreek esan dutenez, elkarrizke-

ta egitean bereiziki kontuan hartu beharko genituzke hurrengo hamar alderdiok: arretaz prestatzea, egiazko interesa agertzea, ideiak garbi azaltzea, gurasoen jarrera errespetatzea, gurasoen intimitatea errespetatzea, adikor agertzea, zintzotasuna erakustea, jarrera lasaia, den-dena ez dakigula aitortzea, sekretu profesionala ordetzea.

Eta, autore horien aburuz, badira hamabi jarrera edo jokaera, saihestu beharko lirakeenak, hots: elkarrizketak datu zehatzik gabe prestatzea, ikasleen gaineko iritzi aldaezinak finkatzea, martxa akademikoari buruzko informazioa baizik ez agertzea, egoera negatiboen errudunak bilatu nahi izatea, ikasleekin bat egin eta gurasoak arbuizatzea (edo alderantziz), presaka edo deseroso egoetaren plantak egitea, elkarrizketa bakar batean emaitza gehiegi ateratzen saiatzea, beste ikasleez mintzatzea edo delako seme edo alaba hori besteekin konparatzea, gurasoekin gainerako irakasleez hitz egitea, elkarrizketaren ondo-



ren informazio konfidentziala errepikatzea.

Aholku horiek praktikan har dezaketen balio eskerga gorabehera, gure ustez, oinarrizko kontua da geure buruari hainbat galdera egitea: elkarriketak zertarako egiten ditugun (xede edo helmugak), zergatik deitzen ditugun edo, eskatzen zaigunean, zergatik onartzen dugun bertara azaltzea (motiboak) eta elkarriketa-prozesu osoa gidatzen duten ardatz-arauak zein diren (funtzionatzeko printzipioak).

Elkarriketak hainbat xede edo helburu iristekoak izan daitezke (informazio, diagnosi, terapia, orientazio eta beste hamaikatakak) baina, oro har, elkarriketa ororen XEDEA ikaslearen aurrerabideari buruzko informazioa partekatzea, eta, bidezkoa denean, ikasle horrek aurrera hobeki egin dezan gurasoek eta irakasleak elkarrekin planak egitea dela onartuko genuke denok.

Helburuak, elkarriketa eragin duten motiboen arabera izango dira (ikaslearen jokamolde desgokiak, aurrerapen akademiko azkarra, ebaluazioko emaitzak, familiak parte hartzeko bideak aztertzea, etab). Balizko helburuen zerrendak -elkarriketan jorratzen diren edo jorra daitezkeen gaiak, alegia-, hein batean, elkarriketen mugak eta jarduera-alorrak definitzen ditu. Era berean, guraso eta irakasleen arteko elkarriketa ororen ipar-orratzak hiru printzipio dira, gure iritziz:

- 1) Gurasoekiko komunikazioa ez galarazten, ez eragozten, baizik eta errazten saiatzea. Guraso eta irakasleekiko komunikazio horren jarraipena bermatzen ahalegindu be-

har da elkarriketa bitartean (komunikazio printzipioa).

- 2) Gurasoek eta irakasleek onar dezaten badituztela kontu, interes edo arazo komunak; umeari -kaltetarako edo mesedetarako- gertatzen zaion guztiak batzuk eta besteok arduratzen eta kezkatzen gaituela (komunitasun printzipioa) onartuta bakarrik, ezagutuko dugu geure burua eta "elkar" delako kategoriari zabalduko diogu atea: elkar sinestea, elkarrenganako errespetua, elkar sustengatzea, elkarri hitza ematea... (mutualitate printzipioa)

- 3) Gauza batzuk onartzea, hala nola komunikazioa edota akordioak ez izatea guraso eta irakasleek beti-beti erantzukizun partekatua dutela; harremanetan batzuek eta besteek berdinkide ikusten dutela bere burua, informazioa partekatzen dutela, komunikazioa norabide-bikoa dela, alderdiek beraien artean elkarrekikotasunez jokatzeko espero dela (elkarrekikotasun printzipioa).

Diogunaz haratago, orainaldia gaintu eta "gurasoekiko etorkizuneko komunikazioa bermatu" egin beharra dago, edo, bestelako hitzetan esatearren, elkarriketen ondoriozko efektuez osotasuneko ikuspenaz begiratu behar da.

Era horretan, elkarriketa antolara zi duen helburu behinenaren balizko efektuez gainera, bilera horiek nola gidatzen diren, halako eraginak izango dituzte giroan ez ezik, eskolaren eta familiaren arteko lotura-graduan ere.

Elkarriketa ororen XEDEA ikaslearen aurrerabideari buruzko informazioa partekatzea, eta, bidezkoa denean, ikasle horrek aurrera hobeki egin dezan gurasoek eta irakasleak elkarrekin planak egitea dela onartuko genuke denok

Elkarriketek bestelako "sistema soziala" eratzen laguntzen dute; gure honetan, helduek joera defentsibo eta argumentatiboa hein batean alboratuz, elkarlanaren alderago ager daitezten.

Jakina, plana premien kontsentsua oin hartuta gorpuzten denez eta den-denek atontzen lagundu dutenez, partaideen "auto-lotura" ere sendoagoa da. Esku-hartzaile bakoitzak argiago ikusten du planean berak hartu izana ezinbestekoa dela denen lana arrakastatsu gertatuko bada. Honelako printzipioak behin eta berriro praktikan ipintzeak, azkenean, estilo profesionala definitzen du.

Horrenbestez, gure aburuz ikaslearen gurasoen eta irakaslearen arteko elkarriketak, ikaslea laguntzea xede harturik, hezitzaile biren edo gehiagoren arteko bidera izan behar du, aurretiaz prestatua, egituratua, adiskidantza.

Aintzat hartu beharreko elkarrizketako elementuak

Agertu dugun horren arabera, bistan da, elkarrizketak era egokian gara daitezen, hainbat kontu hartu behar direla gogoan. Gogoan izan dezagun, nolanahi ere, ondoren aipatuko ditugun elementu guzti-guztiak elkarrizketaren helburua, printzipioak eta xedea betetzen laguntzekoak direla eta beroriek direla, gainera, aukerarik hoberena taxutuko dutenak, erabaki bakoitza hartu aurretik derrigorrezko galderok egiten baditugu: helburua erdiesten lagungarri al da?, printzipioen arabera al da?, adierazitako helburuari erantzunik ematen al dio?

- *Nork egiten duen deialdia edo eskaera:* tutoreak, beste irakasle batek tutoreari esan ondoren, gurasoek.
- *Deialdia:* behar bezain aurretiaz deitzea. Deialdia ahoz edo idatziz egin daiteke. Ahal dela, bete nahi den xede nagusia jakinarazi behar da (helburua), kontua elkarlanean jardutea dela (helmuga, printzipioak) adierazten duten mezu esplizitu eta ulergarriak igorri.
- *Gurasoak bertaratuko direla bermatzeko alternatibak:* gurasoek deialdia jaso dutela eta bertara daitezkeela bermatzea komeni izaten da. Ordugeiak beraiekin aukeratu.

Bitartekoak: seme-alabaren bitartez, idatzizko komunikazioa helaraziko da, jaso izanaren jakinarazpen eta guzti; bueltakoan, gurasoek bertaratuko direla edo ez joateko nolako eragozpenak dituzten adierazi beharko dute. Beste bitarteko batzuk: telefonozko deia, eskutitz egiaztatua, atezaina helbidera joatea. Zenbaitetan, aurreko jakinarazpenaren oroitzapenezko komunikazioa egitea.

- *Bertaratuko direnak:* tutorea, denetan. Deialdia beste irakasle batek egin duenean, tutoreak bertan izan beharko luke edo, gutxienez, elkarrizketako eduki eta adieraren berri jakin beharko luke. Ez da komeni bi irakasle baino gehiago bertan izatea: baliteke gurasoek bere burua defentsa gabe ikustea, mesfidati agertzea, konfidentzialtasun- eta intimitate-bermerik gabe, alegia. Zenbaitetan beste profesional batek (psikologoak, hezitzaile sozialak, etab.) parte hartzea ere interesgarria izan daiteke.

Gurasoak: gorabeheren arabera, umearen bi gurasoek joan beharko luketen edo joatea komeniko litzatekeen aukeratu beharko da.

Ikaslea: komeni al da gazte-txoa bertan izatea? Badirudi ikasturtearen hasierako elkarrizketan agertzea komeni dela. Beste hainbat kasutan, berriz, adina eta gaia aintzat hartzekoak dira. Nolanahi ere, pixkanaka sartzen joango dela pentsatu behar da; bertan baldin bada, berriz, umea so-lasaldian integratu beharko



Ander Arrieta (2006).

dute, bertan jorratzen diren kontuetan esku har dezan, bai aztertze fasean, baita konponbideak bilatzean eta konpromisoak hartzean ere.

- **Aurretiazko prestakuntza:** el-karrizketan parte hartuko duten guztiek horretarako pres-tatu behar dute, nahitaez. Norabide horretan doa artikulua-aren amaieran proposa-tzen dugun jarduera.

Irakasleak: espazio-, den-bora- eta material-alorreko baldintzak zaintzea. Hiruga-rrengok bilera etengo ez du-tela bermatzea. Denek elkar-lan-estilo berean jardun de-zaten oinarriak ipintzea; esti-lo hori adieraziko da deialdia egitean edo aurretiazko bile-ra zein elkarrizketetan. Hela-razi nahi den informazioa bi-latu eta eskura edukitzea, egoera antzeztea, sor daitez-keen bestelako egoerei aurre hartzea eta gerta daitezkeen arazoei konponbideak bila-tzea (ikaslearekin edo gabe).

Ikasleak: bere hezkuntzari buruzko bileretan kolabora dezakeen moduez eztabai-dan jarduteak, rolak antzez-teak edo ariketak idazteak, ikasle horrek bileran izango duen rola zehaztu eta, gaine-ra, gurasoen eta irakasleen jarrerak ulertzeko gaitasuna areagotuko dio. Bere egin-tzen eta beren aurrerapenei buruzko txostenen arteko lo-tura ikusten laguntzeko, hain-bat gauza egin dezaten eska diezaiekegu: adibidez, kalifi-kazio-buletinak egin eta egiazkoekin konpara ditza-ten, ondo egiten dituzten biz-pahiru gauza izenda ditzaten



Jokin Kerivel (2006)

eta eragozpenez egiten di-tuzten beste bizpahiru.

Gurasoak: bi gurasoek au-rretiaz bilera egin dezakete elkarrekin; bertan, irakaslea-ri adierazi nahi diotena eta berarengandik zer espero duten jasoko dituen rol-an-tzezen bat egin ahal izango dute. Astebete lehenago gal-dategi labur bat bete dezake-te, era berean, buruan da-bilzkien kontuak edo kezka- irakasleak jakin ditzan.

- **Noiz:** gurasoekin ikasturte hasieran biltzea komeni iza-ten da, nolabaiteko zailtasun edo aldaketarik "susmatzen" denean, aurreko elkarrizke-tetan azaldutako arazoetan aurrerapenak nozitzean, hi-tzarturiko planarekin aurrera jarraitzeko gurasoek zailta-sunik agertzen dutenean, ebaluazio-epe bakoitzaren ostean, batik bat.
- **Edukia:** bai tutorearentzat, bai gurasoentzat baliagarri izan daitezen ahalegindu be-harra dago. Elkarrizketa sor-tarazi duen helburuan zen-


tratzea. Ikaslearen ahulezie-tara mugatzeak kontrako hel-buruak gerturatzen ditu. Bile-raren edukiak, era berean, ez du zertan mugatu alor aka-demikora bakarrik.

Elkarrizketaren hasiera. Ho-na balizko formatuetako bat: tutoreak gurasoei informazio orokorra eman die edo, beste-la, galdera irekia egin die ("No-la ikusten duzue umea?", adi-bidez), hasierako kontaktua errazteko. Maila horretan bost minutu gehienez jardun daite-ke, elkarrizketak, zeinahi dela ere, jorratu beharreko aztergai zehatz-zehatzak baititu.

Tutoreak: bileran jorratu be-harreko gaien gidioa aurkez-tuko du eta besterik sartu nahi duten galdegingo die gurasoei.

- **Garapena.**

Dinamika orokorra: Ongi doanaz eta erdipurdi edo gaizki doanaz daukaten per-tzepzioa adieraziko dute par-te hartzaileek. Kontsentsuan oin harturik, jokamolde zuze-



Gurasoekiko elkarrizketei buruzko galderak

- Zer jakinarazi gura diozu guraso horri?
- Zure iritziz, guraso horrek zer jakinaraziko dizu?
- Zerk galarazten dio guraso horri elkarrizketara etortzea edo elkarrizketa hori biok espero zenuten bezain probetxuzkoa ez izatea?

netan aurrera segitzeko eta aldez edo moldez okerrak diren jokoeretan jarrera hobetzeko umeari lagunduko dion plangintza eratuko da.

Jarrerak: ez etetea mintzaidarearen ekimena. Ez jardutea hizketan pertsona bera denbora guztian. Mintzakiak zeresanik badaukala atzematen bada, aditze-jarrera neutralari heltzea, gurasoen arteko desadostasun edo liskarren aurrean. Umeari irudirik hoberena

transmititzea, errealitatea bihurtu gabe. Laguntza eskatu eta kolaborazioa eskaintzea.

- **Erregistroa:** jazotakoa erregistratzea funtsezkoa izango da, hitzartutakoaren jarraipena egiteko hurrengo bilere-tan. Hurrengo alderdiak, gutxienez, erregistratzea komeni da: deialdia (nork eskatua, noiz, zenbat deialdi), noiz egin den, bertaratu direnak, jorratutako aztergaiak eta adostutakoak.

Jarduera: gurasoekiko elkarrizketei ahalik eta emaitza handiena ateratzea

"Komunikazio kooperatiboa familian eta eskolan" (Forest & García-Bacete, 2006; Vandeslice & García-Bacete, 2006) egitarauan landutako Irakasleen Mintegiko bigarren saioko jarduera honen iraupena 50 minutu ingurukoa da. Antzeko beste bat egiten da gurasoekiko Tailerrean dihardugunean.

Azal ezazu hurrengo hau:

Gurasoen eta irakasleen arteko elkarrizketa izan ohi da irakasleek gurasoekin seme-alaben aurrerapenez mintzatzeko dituzten aukera ofiziale-tako bat, baina bilera horietatik irakasle asko (eta, nola ez, guraso ugari ere) gogogabeturik irteten dira. Are eta gehiago, guraso asko joan ere ez dira bilera horietara joaten! Oraingo gure xedea izango da gurasoak elkarrizketetara joan daitezen animatzea eta, era berean, elkarrizketetan gurasoekin zuek duzuen tartetxo mugatu horri ahalik eta zuku gehien erazteko modua bilatuko dugu. Ikastetxe askotan konturatu dira guraso eta irakasleen arteko elkarrizketetara guraso guztiak joateko aukera izan dezaten, ordutegi zabalak, haurtzaindegi eta garraio zerbitzuak eskaini behar zaizkiela. Zure iritziz, zerk galarazten du guraso batzuen etorrera edota parte hartzea eta zein izan liteke irtenbidea?

Jaso erantzunak idatzirik edo apunta itzazu zerorrek gardenkian. Ematen diren ideiek gurasoek eta ikastetxeko zuzendaritza-taldekoek elkarlanean

egin beharreko lana edo arauen aldaketa agintzen badute, iradoki iezaiezu baterako saioan aurkez dezaten.

Elkarrizketan ari zarela, nola ateratzen diozu zukurik gehien zeure tartetxo mugatu horri? Aukera ezazu zure ikasleetako bat, zeure artean. Elkar zaitez orain zuregandik gertu dagoen beste irakasle batekin, mesez, eta erantzun itzazue biok ondorengo hiru galderak, aukeratu duzuen ikaslearen (eta bere familiaren) kasuari zehazki aplikatuz.

Ipin ezazu proiektorean "Gurasoekiko elkarrizketei buruzko galderak" gardenkia eta irakur ezazu itaunak ozenki. Eska iezaiozu zeure laguntzaileari kopiak bana ditzan.

Bost minutu dituzue galdera hauek ihardesteko, bikoteka.

Bost minutuko tartea amaiturik, itaun ezazu norbaitek lagunarekin iruzkindu duena azaldu nahi duen. Ondoren, eska ezazu beste norbait irten dadin. Bizpahiru bikotek beren ideiak azaldu ostean, esan ezazu:

Orain, egin ezazue kontu guraso batekin elkarrizketan zaudetela; zuetako batek gurasoaren rola beteko du, besteak irakaslearena. Saia zaitezte besteari jakinarazi nahi dizkiozuen kontuen zerrenda aurrean edukitzean. Beharrezkoa den guztietan, bidali mezuak "lehen pertsonan" eta baliatuz "aditue aktiboko" teknikak. Hamar minutu dituzue, orain hasita.

Hamar minutukoa agortutakoan, ekin eztabaidari; gaia: jarduera

horri esker zer aurkitu duten eta, etorkizunean, guraso eta irakaslearen arteko elkarrizketak nola planifikatu nahiko lituzketen.

"Familiaren eta ikastetxearen arteko komunikazio kooperatiboa" egitarauan proposatzen diren jardueretako batzuk, elkarrizketarekin zuzeneko lotura dutenak, hauek dira: 1) Gurasoen tailerra: "Nola eskaini guraso batek bere burua, parte hartzeko unean" (5. saioa) eta "Salaketa, kritika eta liskarrei nola aurre egin" (7. saioa). Irakasleen Mintegian: "Boluntario aurkeztu diren gurasoekin jarduteko gida" (3. saioa) eta "Salaketa, kritika eta liskarrei nola aurre egin" (3. saioa).

"Familiaren eta ikastetxearen arteko komunikazio kooperatiboa" egitarauan gurasoentzako Tailerra berderatzi saioak osatzen dute eta irakasleentzako, berriz, hiru saioak. Bai tailerrean, baita mintegian ere, antzeko aztergaiak jorratzen dira, eta, nola batzuetan hala besteetan aholkatzen denez, irakasleek (edota gurasoek) ere lantzea komeni da. Ikastetxe beretako guraso eta irakasleak ohi dira. Amaitzean, guraso, irakasle eta zuzendaritza-taldeetako kideek berariazko lantzaioak burutzen dituzte.

Bestetik, badakigu elkarrizketak ez direla beti adiskidantzazko giroan egiten. Kasu horiei dagokien ez bada dokumentaziorik (Viña, 1999), baina, zenbaitetan, erraztaile bat bertan izatea komeni da. Hauxe da, arazoan konponketan oinarriturik, familiaren eta ikastetxearen arteko elkarrizketak egiteko proposamena (Weiss & Edwards, 1992).

Mota berezi bateko elkarrizketetan psikopedagogoak esku hartzen

du; Kataluniako (2000) Aholkularitza Psikopedagogikoko Taldeek aztertutako familia-eskola harremanez jardun zuen lantaldeak, izan ere, aholkularitzari begirako eraldaketa-lanabes definitu zituen horrelako elkarrizketak.

Ikus-entzunezko formatuak arras baliagarri gertatzen dira behatzeko, jokamoldeak aztertzeko eta komunikazio-trebeziak hobetzeko. Terrón, Alfonso eta Díez (2003) autotreek egin duten bideoan irakaslea eta amaren arteko elkarrizketan ederki ikusten da hiru komunikazio-estiloren hurrenkera: oldarkorra, inhibitua eta asertiboa.

Erreferentzia bibliografikoak:

- Román, J. M. eta Pastor, E. (1984). *La tutoría. Pautas de acción e instrumentos útiles para el profesor-tutor*. Bartzelona: Ceac.
- Lázaro, A. eta Asensi, J. (1987). *Manual de orientación escolar y tutoría*. Madril: Narcea.
- Forest, C. eta García-Bacete, F.J. (2006). *Comunicación cooperativa entre la familia y la escuela*. Valentzia: Nau Llibres.
- Terrón, E.; Alfonso, C eta Díez, E. (2003). Construir la comunicación entre la familia y la escuela como una relación de confianza. Hemen, Alfonso eta beste batzuk (2003), *La participación de los padres y madres en la escuela* (115-125 orri). Bartzelona: Graó.
- Trillo, A. (1999). Para que funcione una entrevista con padres. *Padres y maestros* 241, 34-37 orri.
- Vanderlisse, V.J. & García-Bacete, F.J. (2006). *Comunicación para la potenciación. Un manual de técnicas de enseñanza potenciadoras para facilitadores*. Valentzia: Nau Llibres.
- Viña, S.G. (1999). Guía mínima para entrevistas erizadas. *Padres y maestros*, 241, 39-40 orri.
- Weiss, H.M. & Edwards, M.E. (1992): The family-school collaboration project: Systemic interventions for school improvement, in S. L. Christenson & J. C. Conoley (Eds.), *Home-School Collaboration. Enhancing children's academic and social competence* (215-243 orri.). Washington, DC: NASP.

Gurasoak taldeka prestakuntza partekatua hobetzeko

Isabel Bartau Rojas eta Juan Etxeberria Murgiondo¹

Euskal Herriko Unibertsitateko F.I.C.E. Fakultatea. M.I.D.E. Departamentua



Gurasoak taldeka prestakuntza

Familia-bizitzaz ikastea lortzen da bertako kideek familia horren jardura eta elkarreraginak aztertu eta bertan parte hartzean. Gizakiei familiaren zeregin eta ardurak irakastea ez da atzo goizeko kontua; alde-rantziz, eskarmentu hori belaunez belau transmititzeko bitartekoak gizarte denek sortu eta garatu dituzte.

Nolanahi ere, gizarte soiletan familiak berak irakaskuntza horretan era informalean baziharduen ere, jarduteko modu hori baliteke gizarte konplexu eta aldakorrenetan egokia edo nahikoa ez izatea erronka berriei (aurrerapen teknologikoei, gizarte-baldintzen aldaketek, famili egituraren aldaketek, familiako kideen rolen aldaketek,



etab.) aurre egiteko; orduantxe sortzen da familia sendotzeko premia kanpo-istantzien egintzen bidez eta, jakina, horrela sortuko dira hainbat eratako *famili giroko bizitzara begirako hezkuntza ereduak (family life education)* (Arcus & Thomas, 1993).

Mugimendu hori zuzitzen duten motibo behinenen garrantzia aldatuz etorri da aspaldi honetan eta, testuinguruan testuingurukoa izaki, hirutara muga ditzakegu: **1)** Familiei beren garaiko arazoan aurrean kokatzeko laguntza ematea, **2)** gurasoek *gauzak ongi egiten* ikasten badute familia eta gizarte alortako kontu asko aurreikusi ahal

izatea, eta **3)** arazoei aurrea hartu eta aurre egiteaz gainera, beren famili giroko bizitza, beren garapen pertsonala hobetzeko aukeraz ere gozatu nahi dute.

Familiako bizitzarako hezkuntza, hortaz, prebentziozkoa, konponbidezkoa edo hobekuntzazkoa izan daiteke. Hamar urteotan osasun, hezkuntza eta politika sozialean prebentzioaz eginiko azterlanak, izan ere, egintza familiagandik eta familiagana eragitera zuzendu dira (Albee & Gullota, 1997; Bloom, 1996). Gurasoen prestakuntza hainbat eremutan (hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan, osasun zentroetan, epaitegietan, etab.) geroz eta

(1) isabel.bartau@ehu.es, eta plpemuj@sc.ehu.es

estatzea: familiakideen hobetzeko bizipen bat

maizago eskatzen, eskaintzen edota preskribatzen da egungo arazo sozialei aurrea hartu eta aurre egingo bazaie.

Famili bizitzarako hezkuntzaren esku-hartzeko arearik behienetako bat, haurrei, gazteei eta helduei zuzentzen zaien *gurasotasunerako hezkuntza* da, familian dituzten edo izango dituzten rola behar bezala bete ditzaten.

Gurasoen heziketa (parent education) terminoak, halakotzat dihardutenei dagokiela, hezkuntza-egintza formal bat adierazten du; horren helburua, jakina, pertsona horien ezagutza, gaitasunak eta eskumenak zabaltzea da, guraso diren aldetik, eta, horrekin batera, haurren garapen pertsonal eta soziala sustatzeko sistema da (Lamb & Lamb, 1978, Cataldo, 1991; Boutin & Durning, 1997; Vila, 1998; Bartau, Maganto & Etxeberria 2001; Maganto & Bartau, 2004b).

Hastapenean, gurasoen heziketa mugatzen zen haurraren garapenari buruzko nozio batzuk eta haurrak hazteko teknika eraginkorrak

irakastera baina, gizakia eta familiaren aldaketa errazteko eraile zen aldetik, taldeak ahalmen handia zuela egiaztatzen zen pixkanaka.

National Parenting Education Network (NPEN) izenekoak *gurasoak taldeka prestatzea* (GTH) honela definitu zuen: "taldeka garatzen den prozesu honek, gurasoen eta seme-alaben garapenaz eta berorien arteko harremanaz ulertzen duguna, horien aurrean ditugun jarrerara, ezagutza eta trebeziak zabaltzea inplikatzeko du." (Campbell & Palm, 2004:18).

Gurasoak taldeka hezte horrek bere baitan era askotako helburu eta interesak biltzen ditu, hala nola guraso izateko trebezia orokorrak garatzea, seme-alaben garapeneko area jakin batean artekari-hezitzaile gisa aritzeko berariazko teknikak ikastea, estreinakoz guraso izatean beraien artean bizipenak edo sostengua partekatzea, diziplinaz jarrerara tradizionalak aldatzea, etab.

Europako Gurasoen Elkarteak (2000) programa horien helburuak honela laburbildu ditu:

1. Haurren ikasketa-bizipena hobetzea eta bizitzan dituzten aukerak optimizatzea.
2. Eskola-porrota murriztea.
3. Guraso guztientzako aukera-berdintasuna sustatzea, hezkuntza jarraituagoa emanaz.
4. Kolektibo horretan etengabe ikasteko kultura garatzea.
5. Beren seme-alaben hezkuntzan agertzen duten inplikazioa hobetzea.
6. Hezitzaile diren aldetik, beren rola garrantzia aintzat hartzea.
7. Gurasoak eta seme-alaben arteko harremanen hobekuntza sustatzea.
8. Familia, ikastetxea eta komunitatearen arteko harremanetan, hezte eta inplikatzeko prozesuetan gurasoen partaidetza aktiboa sustatzea.



Elkarte horrek dioenez, *gurasoak taldeka hezteko* egitarauen helburu orokorra ez da ezagutza teorikoak edo informazio edukiak transmititze hutsa, ezta familiaren eta beronen harreman-sarearen errealitatek urrun dauden jokabide-ereduak proposatze hutsa ere. Alderantziz, eguneroko bizitzak bereizgarri duen eskarmentutik irakaspenak ateratzeko, nozitzen ditugun arazo- ez eta egiten ditugun hautapenez gogoeta egiteko aukera bat da hau.

COFAMI egitaraua

Gurasoak prestatzea helburu duen *Corresponsabilidad Familiar (CO-FAMI)*. *Fomentar la cooperación y la responsabilidad de los hijos* [hots, "Familiako kideen ardura; seme-alaben elkarlana eta erantzukizuna sustatzea"] (Maganto & Bartau, 2004a) izeneko egitaraua egun Europar Komunitatean sustatzen ari diren gizarte-sentsibilizazioaren egitarau zabalago batzuen baitako atal bat da eta horren helburu nagusia, Elkartea osatzen duten herrialde-

tako emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna erdiestea eta lan- eta familia-bizitza elkarrekin harmoniaz uztar daitezen lortzea da.

Familia bizitzako jarduerak gurasoen eta seme-alaben artean adosteko eta banatzeko ereduak indarrean jarri eta indartzen laguntzea eta, era berean, familiaren baitako harremanak eta kolaborazioa hobe daitezen sostengatzea da COFAMI horren jomugetako bat.

Gurasoak hezteko egitaraua izanik, aita-amen hezkuntza alorreko trebeziak garatzea du jomuga, seme-alabek familian elkarlanean jardun eta familian dituzten ardurak garatzen, hurrengo belaunaldikoek gizaseme eta emakumeen arteko berdintasuneko elkarbizitza-eredua finka dezaten oinarriak ezarriz.

Egitarau hau, Espainiako Gizarte Arazoetarako Ministerioko Emakumearen Institutuak finantzaturik, familiako kideek etxeko zereginetan dituzten ardura partekatuen gaineko aurretiazko ikerkuntza baten ondorioetan oinarritu zen, arazo horien izaera, eragin-iturriak eta ondorioak -esku- men-area zenbaitetan seme-alaben garapenarekiko loturak, zehazkiago- aztertze xedez (Maganto, Bartau & Etxeberria, 1999, 2003a, 2003b; Bartau, Maganto & Etxeberria, 2002).

Egitarau horren ezaugarri orokorrak 1. Taulan laburbildu dira (Maganto & Bartau 2004) baina beste hainbat azterlanetan ere zehazturik aurkitu-ko ditu irakurleak (Maganto, Bartau & Etxeberria, 2004).

1. Taula: COFAMI egitarauaren ezaugarri orokorrak

COFAMI EGITARAUAREN METODOLOGIA, HELBURU ETA EDUKIAK (Maganto & Bartau, 2004)

Egitarauaren helburuak

1. Egun, gure gizartean, familietan egiten den lan eta bizitzaren inguruan, banatze, elkar laguntze eta adoste prozesuak aztertzea eta lana etxean bertan eta etxetik kanpo uztartzearen ondoriozko eragozpenak gainditzeko estrategiak garatzea.
2. Seme-alabek famili bizitzan eta lanean lagun dezaten sustatzeko bideak ikastea.
3. Aita-amen komunikazio-trebeziak eta jarrerak hobetzea, elkarrenganako errespetu, elkarlan eta ardura partekatuen giroko elkarbizitza susta dezaten.
4. Agintaritzak eta familiako kide guztien erantzukizun partekatuen garapenaren oinarri diren balio demokratikoak sustatzea.
5. Familiak kideen erantzukizun partekatua erdiestea erabaki duenetik eguneroko bizitzan agertzen diren kezka eta arazozko egoerei era eraikitzailean aurre egiten ikastea.
6. Gurasoen eskumena eta auto-konfiantza garatzen laguntzea, famili bizitzan eta kide guztiek elkarlanean eta nork bere ardurak hartuta jardun dezan lortzeko.

Egitarauak eragin nahi dituen aldaketak

1. **Mota:** Heziketa-taldearekin informazioa eta ezagutza partekatzea.
2. **Mota:** Gurasoen sinesmen, jarrera edota balioak jorratzea.

3. Mota: Seme-alabak hezteko, hezkuntza-alorreko estrategia eta prozedurez jabetzea.

4. Mota: Eguneroko famili bizitzako egoeretan erabakiak hartu eta arazoak konpontzea.

Egitarauaren edukiak

1. Familiako lana: ikusezina ikusgarri bihurtuz.
2. Familiako kideek, nork bere erantzukizunaz arduratzea: jorratu beharreko ibilbidea.
3. Seme-alaben parte hartzea familiako bizitza eta lanean.
4. Komunikazioa familian: oztopo eta eragozpenak.
5. Komunikazioa: elkarlana irabazteko bitartekoa.
6. Kolaboratzen ez dutenean ere, komunikazioan segitzen dugu.
7. Agintaritzza eta diziplina kideen erantzukizun partekatuen garapenean.
8. Gure familiako arazoak konponduz.

Lan metodoa

Talde-dinamikan gauzatzeko diseinatu da; hobe da talde bakoitzean, gehienez ere, 25 pertsonak parte hartzea, kideei beraien artean gogoeta egin eta parte hartzea bermatzeko gutxieneko baldintzak izan ditzaitez. Monitore espezializatu batek antolatu, koordinatu eta bizkortu behar du prozesua. Partaidetzazko egitarau praktikoa honek esku hartzaileei beraien eguneroko eskarmentu eta kezkek agertzeko ez ezik, familian jarduteko estrategia berriak martxan jartzeko ere aukera ematen die. Egitaraua zortzi lan-moduluk osatua dago eta, hemen aurkezten dugun esperientzian, bi orduko asteko hamar lansaiotan garatu dira. Lan-modulu bakoitzean sarrerako irakurketa bat eta ondoren lau ariketa praktikoko egiten dira: a) ulermenezkoak, b) hausnartzekoak, c) egintzazkoak eta d) etxerakoak. Egitarauaren materialak dira argibide-liburua eta CD bat. Programaren egitura eta antolamendua malguak dira, guraso-talde bakoitzaren ezaugarriari eta premiei egokitzeko modukoak.

Senideen erantzukizun partekatua hobetzeko esperientzia bat

COFAMI egitaraua EAE-ko hainbat ikastetxe eta udalerritako zortzi guraso talderekin egin zen. Bertan 178 pertsonak parte hartu zuten, horietatik 143 emakume eta 35 gizaseme, denera 339 seme-alabaren guraso zirenak (148 alaba eta 191 seme, zehazki). Gurasoen batez besteko adina 41 urte zelararik, gazteenak 23 urtekoak ziren eta zaharrenak 56 urtekoak. Aita-ama horietako gehienek maila akademiko edo profesional ertain-altua

zuten eta lan-jardunaldi osoan ziharduten. 9 eta 23 pertsona artean zituzten taldeek eta hauetako bakoitzaren ardura gidari espezializatu batek zeukan.

Esku-hartze prozesuaren faseak honela sintetiza daitezke (Bartau & Etxeberria, 2005):

1. Hezkuntza alorreko profesionalak COFAMI egitarauaren talde-jardueretan gidari espezializatu izateko prestatzea.
2. Erakunde kolaboratzaileen inplikazioa bilatu eta erdiestea, hots:

Elkarte horrek dioenez, gurasoak taldeka hezteko egitarauen helburu orokorra ez da ezagutza teorikoak edo informazio edukiak transmititze hutsa, ezta familiaren eta beronen harreman-sarearen errealitatetik urrun dauden jokabide-ereduak proposatze hutsa ere. Gogoeta egiteko aukera bat da hau.

bi ikastetxe pribatu, bi publiko, bi udal eta etorkinen elkarte bat.

3. Erakunde kolaboratzailean jende aurrean COFAMI egitaraua aurkeztea.
4. Inplikaturiko erakundearen laguntzarekin, parte hartuko zuten gurasoak erakartzea.
5. Hastapeneko saioa: taldea, gidaria eta lan-metodoa ebaluatu eta aurkeztea.
6. COFAMI egitarauaren zortzi saioak astean eta taldeka garatzea.
7. Azken saioa: ebaluazioa, ondorioak finkatzea eta taldea despeditzea.
8. Erakundeetan egitaraua koordinatu duen pertsonaren jardueraren baloratu eta despeditzea.

Ebaluazio prozesua, COFAMI egitaraua martxan abiatu eta garatzen

hasi aurretik, bitartean eta ondotik ere egin zen, zortzi taldeetan. Ondoren, hastapeneko ebaluazioaren emaitzak, emaitzen balorazioarenak eta COFAMI egitarauko gurasoek, parte hartu ondoren, eginiko azken balorazioa laburbilduko ditugu.

Hastapeneko ebaluazioa. Parte hartu aurretik, famili bizitza eta zereginetan seme-alabek (N = 237) agertzen duten kolaborazio eta erantzukizunen batez besteko maila 4,9 puntukoa da, 10etik. Aurretiazko lanetan (Maganto, Bartau & Etxeberría, 2003a), gizakiaren sexuaren arabera atzemaniko alde esanguratsuak berretsi egin dira: semeak baino alabak dezente arduratsuagoak dira eta maizago laguntzen dute famili bizitza eta zereginetan.

Sexuaren araberako alde horiek bi area jakinetan are eta nabarmenagoak dira oraino: **a) etxearen antolamendu eta mantenua**, hots, etxeko zeregin konplexuetan laguntzea (sukaldean aritzea, arropa litzatea, etab.) eta "besteren" lanak egitea (besteari erori zaiona jasotzea, besteren ohea egitea, etab.) eta **b) men-**

pektasunik duten senideen artea eta zaintza, hau da, familiako ki-deak zaindu eta telefonoz deitzea.

Emaitzen ebaluazioa. COFAMI egitarauaren parte hartzeak hainbat mailatan eragin bizia izan du, jarraian ikusiko dugun bezala:


a) Parte hartu duten gurasoengan izaniko eragina: programan parte hartuz geroztik, seme-alabekin dituzten harremani dago-kienz, hezkuntza-praktikak hobetu direla egiaztatu da. Zehazkiago, egitarauaren parte hartu aurretik baino seme-alabekin gaitzespen, gehiegizko babes zein kontrol eta zigor zein hertsadurazko praktiketan gutxiago aritzen direla atzeman dute gurasoek. Aiten kolektiboak, egitarauaren parte hartu ondoren, seme-alabei sostengu handiagoa ematen dietela atzematen du.

Egitarauaren parte hartu duten guraso gehienek (%81 - %97), berori amaitzean, COFAMI egitarauak bete nahi dituen helburuak eta aldaketak egitea erdietsi dutela atzeman dute.

Konparazioz, gehien lortu dituzten helburu-motak hauek dira: bigarren. helburua (*seme-alabak motibatzen ikastea*) eta hirugarren helburua (*komunikazioa hobetzea*).

Ikusten denez, adibide gisa **2. Taulan**, egitarauaren parte hartu ondoren guraso gehienek *aldaketa positiboren bat* edo *aldaketa handi bat* atzeman du familiarekiko komunikazioan, hala nola komunikazioari buruzko informazioa eskuragarriagoa izatea, elkarrenganako errespetua aintzat hartzea, seme-alabak zehaztasunez behatzen ikasi izana, komunikazioaren oztopoak suntsitzea, komunikazioa errazten duten estrategiak ikastea (aktiboki entzutea, aukerak bilatzea, "ni mezuak", zatikako adostasunak, elkarlana sustatzeko bitartekoak, etab.) eta beste hainbat aldaketa seme-alabekiko komunikazioan (aditzea, pentsatzen irakastea, etab.).

2. Taula 3. Helburua: Errespetu, elkarlan eta erantzukizun partekatuzko giroan elkar bizitza errazten duten komunikazio-gaitasunak eta jarrerak hobetzea (n/p/m=80).




Era berean, COFAMI egitarauak aurreikusitako bost aldaketa-motetan hobekuntzak atzeman dituzten arren, konparazioz, hautemaniko hobekuntza-mailarik hoberenak, hurrenez hurren, hauek dira: 1. motako aldaketa (*komunikazio eta mobiltasiaz informazioa eta ezagutza partekatzea*), 4. motakoa (*familiaren baitako komunikazioa hobetuko duten aldaketak eragiteko erabakiak*

hartzea) eta 5. motakoa (*guraso diren aldetik, beraien buruarekiko konfiantza eta gaitasuna garatzea*).

Egitaraua amaitzean parte hartzaile gehienek hobekuntzak atzeman dituzte seme-alabengan; ikusten dutena, zehazkiago, hau da: famili bizitza eta zereginetan laguntzeko jarrera mesedegarriagoa agertzen dutela (%88), lehenago egiten ez

zituzten lanetan laguntzen hasi direla (%81,1) eta beren zereginetan arduratsuago agertzen direla (%78,1) (ik. 3. Taula).

3. Taula. COFAMI egitarauan parte hartu ondoren, seme-alabetan gurasoek atzeman dituzten hobekuntza nagusiak: elkarlanaren aurreko jarrera, famili bizitza eta zereginetan laguntzea eta arduratzea).



b) Familiaren baitako eragina.

Egitarauan parte hartu ondoren, antolamendu, adierazkortasun, kohesio eta famili autonomia dezentente handiagoak hauteman dira, batetik; bestetik, berriz, egitarauan parte hartu aurretik baino liskar gutxiago.

c) Eragina seme-alabengan.

Aita-amen hezkuntza-praktikak hobeki ikusten dituzte; zehazkiago, egitarauan parte hartu ondoren sostengu-gradu dezentente hobe eta gaitzespen gutxiago atzematen dituzte gurasoekiko harremanetan.

Era berean, familiako bizitza eta zereginetan, gurasoek informaturik, seme-alabek elkarlanean eta erantzukizunean jarduteko agerturiko jarreretan alde nabariak egiaztatuta dira eta, izan ere, egitarauan parte hartu ondoren, nabarmenki areagotzen dira. Aldaketa hori are eta biziagoa da 4 - 10 urte bitarteko seme-alabengan bestetan baino. Semeen kolektiboan hautemaniko aldaketa alaben kolektiboan atzemanikoa baino handiagoa bada ere, aldeak ez dira nabarmenak.

d) Ikastetxe, udalerrri eta gizarte-an izaniko eragina. Erakunde

laguntzaileen koordinatzaileek parte hartzea biziki positiboki baloratu zutelarik, batetik partaideen asetze gradua eta, bestetik, familia eta ikastetxearen arteko harremanak hobetzeko eraginkortasuna azpimarratu zituzten; taldeak udalen laguntzaz osatu ziren kasuetan, berriz, familia eta komunitatearen arteko harremanen hobekuntza goretzi zen.

COFAMI egitarauko gurasoen baliotapena. Gehien-gehienek, egitarauan izan duten partaidetza biziki onuragarri eta baliagarritzat jo dute; partaideen %96,5ek beste

gurasoei egitarauan esku hartzea aholkatuko liekete eta, %96,3k diotenez, gurasoen taldekako heziketarako beste programa batean ere apuntatuko lirarteke.

Jarraian, parte hartzean interesa omen duten beste gurasoei programaren berri eman diezaieten eskatu zaienean, partaideek eginiko iruzkinetako batzuk jasoko ditugu:

(124).- Familiako bizitzaren errutinaz, bertako kideen arteko harremanez gogoeta eginarazten dizu eta, denetan mesedegarriena, komunikazio, elkarlan eta harreman giro egokian aritzeko jaso ditugun tresnak dira.

(216). - Egitarau honetan zeu partaide zara eta, zure eskarmentuarekin eta gainerakoekin eta gidariaren laguntzarekin, familian hobekuntzak egiteko formula irakasten dizute.

(507).- Oso egitarau egokia da guraso guztientzat, egokitu zai-gun gizarte honetan alderdi negatiboetan hezi gaituztelako; programak, aldiz, errealitatea positiboago ikustarazten eta besteak errespetatzen irakasten dizu.

(611).- Geure jardueraz gogoeta egiten laguntzen gaitu eta, gainera, famili giroa hobetzeko ideiak proposatzen dizkizu.

(702).- Ikastaro hau oso-oso praktikoa da, eguneroko famili giroko arazo arin zein larri guztiak kudeatzen laguntzen zaituelako. Seme-alabekin komunikatzen ez ezik, etxeko zereginak denen artean banatzea eta famili giroko bizitzaz gozatzea zein garrantzitsua den beraiei irakasten ere ikasten duzu.

COFAMI egitaraua, gurasoen artekaritzaren bitartez, seme-alabak etxeko zereginetan eta famili bizitzan inplikatzeko lanabes baliagarria da eta, gainera, bertan parte hartu duten gurasoek biziki ongi baloratu dute. Ezaugarri arraz ezberdinak (sexua, adina, hezkuntza maila, lan egoera eta hautemaniko famili giroa) dituzten guraso-taldeen egokiro funtzionatu du testuinguru instituzional desberdinetan. Ebaluazio prozesuari esker, egitarauaren alderdi batzuk hobetu ahal izan dira (Barrau & Etxeberria, prentsana).

Gurasoak taldeka prestatzeko esperientzia hori eta Espainian zein nazioartean gauzaturiko antzeko beste batzuek, horietako zenbait arestian eginiko kongresu eta mintegietan aurkeztuak (hala nola: Palmas de Gran Canaria-n 2005 urtean izaniko Nazioarteko

Famili Hezkuntzaren X. Kongresuan, Murtzian 2003 urtean izaniko Gurasoen Heziketari buruzko Eskola Kontseiluaren IV Topaketa Institutuzionalean, familia, ikastetxe eta gizarte zerbitzu komunitarioen arteko elkarlanari buruz Oviedon 2005 urtean egin den Famili Hezkuntzaren Ikerkuntzarako Europar Sarearen Nazioarteko V. Konferentzian) erabateko hiru datu agertu dituzte:

1. Gurasoak taldeka prestatzeko egitarauak famili giroko bizitza eta gurasoek betetzen duten hezkuntza-artekaritza hobetzen laguntzen dutela egiazta-tu dute.
2. Familia, ikastetxea eta komunitatearen arteko harremanak hobetzea helburu duten programa zabalagoetan integrazten edo horrelakoekin koordinatzen direnean, bereziki, haur eta gazteen garapen pertsonal eta soziala sustatzen dute.
3. Gurasoak taldeka prestatzeko egitarauak, familia, ikastetxea eta komunitatearen arteko harremanen markoan funtsezko lanabesak dira gure garaiotako hezkuntza eta gizarte alorretako arazo askori aurre egiteko (bortxakeria, drogamenpekotasuna, etab).

Lan hauetako ondorioetan hezkuntza eta gizarte alorretako erakundeei dei egiten zaie, beren politika akademiko eta publikoetan *famili ikuspegitik ere* (Bogensneider, 2002) jardun dezaten.

(Oharra: ikerlan hau Euskal Herriko Unibertsitateak (1/UPV 00218.230-H-14852/2002) eta Emakunde erakundeak finantzatu dute.)

Gurasoak taldeka prestatzeko egitarauak, familia, ikastetxea eta komunitatearen arteko harremanen markoan funtsezko lanabesak dira gure garaiotako hezkuntza eta gizarte alorretako arazo askori aurre egiteko

Etorkizunera begirako proposamen batzuk

Gurasoak taldeka prestatzea kalitate-dun hezkuntzaren ezinbesteko osagaitzat jotzen duten kolektibo eta erakundeak geroz eta gehiago dira. Lan honi amaiera emateko, hortaz, hobetzeko hainbat proposamen egingo ditugu, etorkizuneko egitarau hauek beren helburua beteko badute:

- Gurasoak taldean prestatzea normalizatzeko plana garatzea, erakunde-bideak hobetu eta hezkuntza alorreko premia hauek estaltzeko finantzabideak ugaltzeko. Gurasoak taldean prestatzeko egitarauak normalizatzeko sentsibilizazio neurriak hartzea, programa horiek praktika mesedegarri, osasuntsu eta egunerokotzat aurkeztuz, gurasoen eta seme-alaben ongizatea hobetzeko. Proposamenaren oinarrian, gurasoak taldean prestatzeko eskakizunetara erantzuna emango dieten bide instituzionalak era e-structuraturatu, profesionalizatu eta jarraitu finkatzea datza. Zehatz-mehatz:

1 Gurasoak taldean prestatzeko egitarauak eskaintzen edota koordinatzen dituzten erakundeetako (ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarte eta federazioak, udal edo gobernu kanpoko erakundeetako ongizate departamentuak, etab.) gai eta giza baliabideak hobetzea.

2 Gurasoak taldean prestatzeko egitarauak era egituratu eta jarraitu eskaintzeko Helduen Hez-



Alexander, Peru eta Iraia Barandiaran (2006).

kuntza Iraunkorraren Zentroetako baliabideak ipini eta baliatzea, tokiko tokiko Udalarekin koordinatuz.

3 Alor honetan espezializaturiko profesionalak ematen dituzten programa egituratuak eskaintzeko bide instituzional berriak garatzea (Euskal Herriko Unibertsitatean, adibidez).

- Informazio eta sentsibilizazio programetara, orokorki, eta gurasoak taldean prestatzeko egitarauetara, zehazki, gurasoak erakartzeko prozedura berriak sortu eta indarrean daudenak hobetzea. Zehazkiago:

1 Gurasoak egitarauetan parte har dezaten moduko baldintzak ipintzea, toki eta ordu egokiak eskainiz, garraioa antolatuz, menpekotasunik duten pertsonetara artapen-zerbitzua eskainiz, etab.

2 Zuzeneko erakarpen-prozedurak (ahiz ahokoak) eraginkorragoak omen direnez, gurasoen erakarpen profesionalen inplikazioa sustatzea (inbitazio pertsonala egitea, "guraso ez badator, hoakio heu beragana"; gurasoak bertaratzeko anima daitezten ikasleak inplikatzea; gurasoenganako konfiantza sustatzea, etab.).

3 Profesionalek (irakasle, orientatzaile, gizarte laguntzaile, sendagile, etab.) gurasoak taldean prestatzeko egitarauetara joatea hezkuntzari eta prebentzioari bete-betean dagokien estrategiatzat jotzea, "guraso guztientzat gomendagarri" eta hainbat herrialdetan erabat normalizaturiko praktika baita.

4 Gurasoekin hitzarturiko asistentzia eta parte hartzeko konpromisoen ga-

rapena sustatzea. Seme-alaben zailtasun edo premia dagoenean, adibidez, elkarlanean jarduteko hitzarmen eta itunen diseinuaren berri ematen dute bizipen zenbaitek: horrelakoetan, bidezko jotzen diren gurasoak taldean prestatzeko egitarauetan parte hartzeko konpromisoaz ohartarazit.

- Gurasoak taldean prestatzeko egitarauak familia - ikastetxe -

komunitatearen arteko harremanen markoan kokatzea. Elkarrekin lanean jardungo duten eta (haurren garapenaren eta hezkuntzaren balizko testuinguru diren heinean) hezkuntza-alarreko erakundeen arteko koordinazioa eta osagarritasuna aintzat hartuko duten espezialisten taldeak sortzea. Hezkuntza egintza komunitario zabalagoetan integraturik, haur edota gaztetxoei zuzenduriko beste hainbat hezkuntza-egitarau batzuekin (helburu eta eduki orokorrak izan-

Arturo Prat Unibertsitatea. Txile (2007).



go dituztenak) koordinatzea, ikastetxea, familia eta komunitatearen arteko zubiak eraikitzeko baliagarri izango badira.

- Gurasoak taldean prestatzeko jardueran, genero honi buruzko azterketak partaideek eta taldeko gidariek egitea. Guraso izatea ikaspen soziokulturala da eta gurasoen taldekako prestakuntzak gure gizartean gurasoek eraiki dituzten ereduaren arteko aldeak kontuan hartzekoak dira.
- Gurasoak taldean prestatzeko egitarauen gaineko ikerkuntza sustatzea, programen diseinua, metodologia, ebaluazio-prozedurak eta teknologia berriek ekarpenak hobetzeko bati bat. Guraso direnak prestatzeko eta, orokorki, guraso izateko programa berriak, baliabideak eta materialak diseinatu eta ebaluatzea. Egitarau horien ebaluazio prozedura eta metodologia berriak garatzea, bertako praktika ikuskatzeko, hausnartzeko eta etengabe hobetzeko moduetako bat den neurrian.
- Gurasoen familia, gizarte eta kulturen aniztasuna aintzat hartzea, gurasoak taldean prestatzeko egitarauak, sortu ahala, premia eta aldaketa sozial berrietara egoki daitezen saiatuz.
- Gurasoak taldean prestatzeko egitarauak bizkortzen dituzten hezitzaile edo gidarien espezializazioa sustatzea eta familia - ikastetxe - komunitatearen arteko harremanetan inplikaturiko beste hainbat profesional prestatzea.

Familia, ikastetxea eta komunitatearen arteko harremanen markoan, gurasoak taldean prestatzeko hobetzeak, hezkuntzaren kalitatea eta haur eta gaztearen garapen pertsonala eta soziala hobetzean ere "denok batera" gaudeneko sinismenak, jarrerak eta praktikak sortzen lagunduko du.

Erreferentzia bibliografikoak:

- Arcus, M. E. eta Thomas, J. (1993): The nature and practice of Family Life Education. In M. E. Arcus, J.D. Schvaneveldt y J.J. Moss (Ed.), *Handbook of Family Life Education. The practice of Family Life Education*. Vol 2 (1-32). Newbury Park: Sage.
- Albee, G.W. eta Gullotta, T.P. (Eds.) (1997): Primary prevention's evolution. In G.W. Albee and T.P. Gullotta, *Primary prevention works* (3-22). Thousand Oaks : Sage.
- ASOCIACIÓN DE PADRES EUROPEA (2000): Informe final del programa piloto de formación para padres de la Asociación de Padres Europea (<http://www.epa.be/e/themes/training/projpil.html>)
- Bartau, I. eta Etxeberria, J. (2005): El programa Corresponsabilidad Familiar (COFAMI): Organización e intervención en el País Vasco. *Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio Educativo (REICE)*, Vol.3 No.1 (http://www.ice.deusto.es/rinace/reice/vol3n1_e/BartauyEtxeberria.pdf).
- Bartau, I. eta Etxeberria, J. (en prensa): *Actas y comunicaciones del X Congreso Internacional de Educación Familiar*. Las Palmas de Gran Canaria.
- Bartau, I. eta Etxeberria, J. (en prensa): Evaluación de un programa de formación parental para fomentar la colaboración y responsabilidad de los hijos en las tareas y la vida familiar. *Revista Bordon*.
- Bartau, I.; Maganto, J.M. eta Etxeberria, J. (2001): La gurasoen heziketa: Una experiencia educativa. *Revista Iberoamericana de Educación*, nº 25, Sección experiencias, pgs. 1-7 (<http://www.oei.es/revista.htm>) (ISSN:1022-6508-X).
- Bartau, I.; Maganto, J.M. eta Etxeberria, J. (2002): La implicación en el trabajo familiar: fuentes de influencia e implicaciones educativas. *Revista de Educación*, 329 (349-372).
- Bloom, M. (1996): *Primary Prevention Practices*. Thousand Oaks: Sage.
- Bogenschneider, K. (2002): *Family policy matters. How Policymaking affects families and what professionals can do*. Lawrence Erlbaum Associates: Mahwah.
- Boutin G. eta Durning, P. (1997): *Intervenciones socioeducativas en el medio familiar*. Madrid: Nancea.
- Campbel, D. eta Palm, G.F. (2004): *Group Parent Education: Promoting parent learning and support*. Sage: Thousand Oaks.
- Cataldo, C. (1991): *Aprendiendo a ser padres: conceptos y contenidos para el diseño de programas de gurasoen heziketa*. Madrid: Visor.
- Lamb, J. eta Lamb, A. (1978): *Parent education and elementary counseling*. New York: Human Science Press.
- Maganto, J.M. eta Bartau, I. (2004a): *Corresponsabilidad Familiar (COFAMI): Fomentar la cooperación y la responsabilidad de los hijos*. Ed: Pirámide.
- Maganto, J.M. eta Bartau, I. (2004b): Gurasoen prestakuntza, familia, eskola eta komunitatearen arteko harremanen esparruan ("La educación parental en el marco de las relaciones entre la familia, la escuela y la comunidad"). *Tantak*, 31 (69-90). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldiskaria.
- Maganto, J.M.; Bartau, I. eta Etxeberria, J. (1999): *La corresponsabilidad de padres madres e hijos en las tareas domésticas: un programa de coeducación en la comunidad*. Informe realizado para el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Instituto de la Mujer. Madrid.
- Maganto, J.M.; Bartau, I. eta Etxeberria, J. (2003a): La participación de los hijos en el trabajo familiar. *Revista de Investigación Educativa* Vol. 21, (1), 249-269.
- Maganto, J.M.; Bartau, I. eta Etxeberria, J. (2003b): La participación en el trabajo familiar: un reto educativo y social. *Revista Electrónica de Investigación y Evaluación Educativa (RELIEVE)*, Vol. 9, Nº 2 (<http://www.uv.es/RELIEVE/v9n2/indicev9n2.htm>).
- Maganto, J.M.; Bartau, I. eta Etxeberria, J. (2004): El programa Corresponsabilidad Familiar (COFAMI): fomentar la cooperación y responsabilidad de los hijos. *Infancia y Aprendizaje*, 27 (4), 417-423).
- Vila, I. (1998): Intervención psicopedagógica en el contexto familiar. En M. J. Rodrigo y J. Palacios (Coords.), *Familia y desarrollo humano* (501-519). Madrid: Alianza Editorial.

Familiak tutoretza bidez hezkuntzako prestakuntza

Rosa M^a de la Guardia Romero

La Laguna - Tenerifeko Unibertsitateko Psikologia Ebolutibo eta Hezkuntza Departamentua



Laburpena

Artikulu honen helburua, Bigarren Hezkuntzan, tutoretzei esker guraso eta irakasleekin bizi izaniko esperientzia jakin bat ezagutaraztea da.

Bizipen hau, izan ere, hezkuntza-komunitateak familiekiko partaidetza eta kontaktu bidezko erduetan garatzea jomuga duen proiektu baten parte da, jardunbide horrek hezkuntza-egintzan eragin onuragarria izan dezan. Zehazkiago adierazteko, familia eta eskolaren arteko harremana gorpuzten lagunduko duen espazioa hezkuntza-zentroa izatea da esku-hartzeko proiektu honen asmoa; baita, era berean, prestakuntza prozesua bera guztiek gogoeta egiteko eta norberaren bizipen eta

ideiak elkarri trukatzeko gune izan dadin, horri esker ikasleak bizileku dituen testuinguru bi horien artean elkarguneak eraikitzeko.

Proiektuan Tenerife (Espainia) lurraldeko ipar-mendebaldeko Bigarren Hezkuntzako bost ikastetxetako guraso eta irakasle-tutoreek hartu zuten parte.

Prestakuntza plana bi ikasturtetan barrena gauzatu zen, gurasoek eta irakasleek aurretiaz adosturik, bi ardatz nagusien inguruan: balioetan heztea eta ikaste-estrategiak. Horrekin batera, "parte hartzera begirako tailerra" ere antolatu zen.

Sarrera

Seme-alaben hezkuntzan gurasoei zor zaien esku hartzeko eskubidea xedatu zuen Espainiako Hezkuntzaren gaineko Lege Orokorraz geroztik (1970) aurrerapausoak egin dira eta, aita-amek eskolan bete ditzaketen funtzioak oraino arras zehazturik ez daudela aitortu behar bada ere, hainbat esparrutan -gurasoekiko tutoretzak, adibi-

dez- parte hartzea doi-doi antolatu eta zehaztua dago.

Espainian indarrean dagoen legeriaren arabera (1998ko abuztuaren 13ko Agindua), 4. Sekzioan xedatua dagoenez, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan irakasle tutoreek, familiekin bilerak egin ahal izateko, 12 saio gutxienez dituzte izendatuak; arratsaldeko bostetik aurrera egingo diren saio horietako lau, behintzat, kolektiboak izango dira. Ikastetxe askotan Legeak agindutako bilera horietatik ahalik eta gutxien egiten dituzte, eta, gainera, errutina hutsezkoak ohi dira, gurasoen eta irakasleen arteko elkarlan eta trukatzeko espazioa zabaltzeko premiagatik baino areago obligazioa betetzeko batik bat egiten baitira.

García López-ekin (1997) bat gatzotz: gurasoak ikastetxean parte har dezan bitartekari tutorea izan daiteke (eta izan behar du), tutoretza familiaren eta eskolaren arteko harremana errazteko espazio bihur baitaiteke, informazioa bi norabideetan bideratuz eta helaraziz.

parte hartzea: bigarren zarako esperientzia

Bai orientazio-departamentuak, bai tutoretzak familiekin garatu behar duten harremani dagokien alderdi hori azpimarratu zuen Espainiako Hezkuntza Ministerioak (1990), horien funtzioetako bat *hezkuntza-komunitatea osatzen duten kideen -ikasle, irakasle eta gurasoak- eta, nola ez, hezkuntza-komunitatearen eta ingurune sozialaren arteko harreman eta elkarrreraginez jarduten laguntzea dela, bitartekari- eta, beharrezkoa bada, kideen artean gerta daitezkeen arazo edo liskarretan negoziatzailerola betez.*

Familiekiko tutoretza (dela tutorearekin, dela hezkuntza-lantaldearekin, dela gidariarekin) bitarte eraginkorra izan daiteke seme-alaben hezkuntzan familiaren inplikazioa bideratzeko, horrek eskain ditzakeen hezkuntza-aukeraz ahalik eta gehien baliatuz (Pérez, 1993). Era berean, ikaslearen heziketaren garapen integrala errealitate bihur dadin ere, ikaslearen hezkuntza-garapenaren arduradun behinen (senideak eta irakasleak) guztien jarduera bertsikatzen baitu. Tutoretza-jardue-



raren planak familia eta irakasle-en arteko elkarlana eta komunikazioa areagotzeko edukiak, espazioak eta denborak hartu behar ditu (Kanarietako Eskola-Kontseilua, 1998).

Tutoreak, tutoretza-jardueraren markoan, familiekiko harremana gizabanako edo talde mailan planteatzeko dezake.

Ikasle guzti-guztien familiekiko harreman indibiduala, berriz, ez da mugatu behar arazoren bat duten ikasleen gurasoekiko elkarrizketa indibidualera. Gurasoen parte hartzea sustatzeko baliabidea bada, tutoretza indibiduala zein kolektiboa, tutore bakoitzak ikasturtearen hasieratik programatu beharra dago, tutoretza-jardueraren markoan. Tutoretza indibidualak

**Ikasle guzti-guztien
familiekiko harreman
indibiduala, berriz, ez da
mugatu behar arazoren
bat duten ikasleen
gurasoekiko elkarrizketa
indibidualera**

hurrengoak bete beharko lituzke (García López, 1997; Sánchez, Galán eta Fernández, 1991, Kanarietako Eskola Kontseilua, 1998):

- Informazio eta iritzien trukeak:
 - Ikasle bakoitzaren familia-inguruaz, maila sozio-kulturalaz, familiaren jarreraz, kolaboratzeko aukerez, itxaropenez eta gainerakoez datu adierazgarriak eskuratzeara.
 - Ikasketen aurrean, seme-alabaren jarreraren eragina duten oinarrizko aspektuez familiak eman dezakeen informazioa ere garrantzi handikoa da: interesak, lan-azturak, aisialaren erabilera, auto-kontzeptua, harreman sozialak, eta abar.
- Jardunbide komunak finkatzea.
- Unean uneko zailtasun eta arazoak konpontzea.
- Tutoreari berariaz dagozkion funtzioak betetzea.
- Ikastetxe barnean zein horrik kanpora, ikaslearen bila-

kaera jarraitzea ahalbidertzeko moduko bilerak aldian behin egitea.

- Ikasleari eta lan-mundura begira, hezkuntza-etapa bati bestera igarotzen laguntzea informazioa emanez, Orientazio Departamentuaren sostenguarekin.
- Curriculum-gabeziak gainditzeko berariazko programak eta adimen, gizarte eta garapen pertsonalaren alorretako trebezi programak garatzea.

Eskola-taldeko zein maila, ziklo, etapa edo, areago ikastetxeko gurasoen kolektiboari zuzenduriko tutoretzei dagokienez, tutoretzen bidez hurrengo helburuak bete daitezke (García López, 1997; Sánchez Glez., 1991):

- Eskola-taldearen martxan, gurasoen parte hartzea sustatzea helmuga duen jarduerara kolektiboa ikastetxetik koordinatzea.
- Guraso-taldeak tutorearekin eta hezitzaile-taldearekin dituen harreman kolektiboak aztertzea.
- Ikaslearen garapenean eragina duten ingurune ko baldintzak aztertzea.
- Tutorearekin eta taldean esku hartzen duen hezitzaile-taldearekin garatuko diren hobekuntzen proposamenak egitea.
- Ikasturtearen garapenez, taldearen helburu eta ezagarriez, etapaz eta ikastetxeaz informazioa ematea.

- Gurasoen baitatik sortzen diren iradokizun, eskari eta proposamenak bildu eta behar den moduan bideratzea.
- Seme-alaben garapena erdiesteko, ikastetxetik eta ikaslearen taldetik familiari eskatzen zaizkion iradokizun eta urratsak agertzea.
- Iritziak jorratu eta trukatzeara.
- Hezkuntza-irizpideetan gurasoak eta irakasleak koordinatzea.
- Gurasoek gelako eta gelatik kanpoko hezkuntza-jardueretan parte har dezaten proposatzea.
- Gelako eledunak aukeratzeara, bertako gurasoen ordezkari izan daitezkeen.

Geure ikuspegitik beste funtzio bat erantsiko genuke oraino: prestakuntza, alegia. Tutoreek jorra dezaketen ideia bat, gurasoekin egiten diren bilera kolektiboak (hilean behin edo bitan, ikastetxearen antolamenduaren arabera) prestakuntzarako bilera bihurtzea da. Horrela bilera horiek edukiz bete eta prestakuntza-prozesua tutoreek eta familiek elkarrekin gogoeta egingo dute, bizipenak, ideiak eta jarrerak elkarrekin trukatzuz, haurrak bitoki dituen bi testuinguruetan ematen diren mezuen arteko koherentzia eskuratzen lagunduko du (De la Guardia, 2004).

Ondoren aurkezten dugun bizipena, gurasoen taldeari zuzenduriko hezkuntza-helburu horretan kokatzen da. 2004-2005 eta 2005-2006 ikasturteetan zehar luzatu zen esku-hartze proiektu baten parte da; horren helburua zehatza da: hez-

kuntza-komunitateetan ikastetegiaren eta familien arteko egiazko harreman eta partaidetza bidezko ereduak gara zitezten lortzea, horrek guztiak eragin onuragarria izan zezan heziketa-jardueran. Esku-hartze bidezko proiektu honen helburua, hain zuzen, ikastetxea familia eta eskolaren arteko harremana sustatzeko espazio bihurtzea izan zen eta prestakuntza-prozesua bera elkarrekin gogoeta egiteko eta bizipenak eta ideiak jorratu eta trukatzeo toki egokia bihurtzea, haurrak bizitoki dituen bi testuinguruetan sortzen diren mezuen arteko lotuneak erdietsi ahal izateko.

Arratsaldean, gurasoen tutoretzen baitako prestakuntza-plana Tenerife-

ko (Kanariar Uharteak, Espainia) Ipar-Mendebaldeko Bigarren Hezkuntzako bost ikastetxetan gauzatu da. Gurasoen parte hartzeak eta irakasleen inplikazioak gorabeherak erakutsi dituzte, eskola batetik bestera. Orain arte egin diren prestakuntza-saio guztietako asistentziaren batez bestekoa kalkulatu dugu. Datuak 1. koadroan agertzen dira.

Proiektu hau elkarlan eta ikerkuntzarako hitzarmen bihurtu zen eta bertan parte hartu zuten aipatutako Bigarren hezkuntzako bost ikastetxeek eta La Laguna-ko Unibertsitateak, Kanarietako Gobernuaren Hezkuntza Kontseilaritzaren (Hezkuntza Ordenatu eta Berritzeko Zuzendaritza Nagusiaren eta Hezkun-

Prestakuntzarako bilerak edukiz bete eta prestakuntza-prozesua tutoreek eta familiek elkarrekin gogoeta egingo dute, bizipenak, ideiak eta jarrerak elkarrekin trukatzuz, haurrak bizitoki dituen bi testuinguruetan ematen diren mezuen arteko koherentzia eskuratzen lagunduko du

1. koadroa: Laginaren banaketa, ikastetxe eta sektoreen arabera	IRAKASLEAK	DBH 1. eta 2.eko GURASOAK	DBH 3. eta 4.eko eta BATXILERGOKO GURASOAK
"SABINO BERTHELOT" BHI RAVELO- EL SAUZAL 4 saio	28	60	60
"BARRANCO LAS LAJAS" BHI TACORONTE 4 saio	25	20	20
"PRÍNCIPE FELIPE" CEO LA VICTORIA 3 saio	17	20	20
"LA MATANZA" BHI 4 saio	35	60	60
"SANTA ÚRSULA" BHI Saio bakarra	15		140
GUZTIRA	120		460



tza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez) eta Ipar-Mendebaldeko Mankomunitatearen sostenguarekin. Gurasoek parte hartzeko proiektu hori, La Laguna de Raveloko Unibertsitateko Hezkuntzaren eta Psikologia Ebolutiboaren Departamentuko Rosa M. de la Guardia Romero irakasleak koordinatu eta zuzendu du. La Laguna-ko Unibertsitateak esku hartu du hamabost irakaslek osaturiko taldearekin.

"Hezkuntza partaidetza" gaiari buruzko esku-hartzezeko proiektu global honetan, izan ere, zeinahi aldaketa sozial gerta dadin funtsezkoak diren pausoak aztertzen dira: sensibilizazioa, prestakuntza eta parte hartzea, eta, jakina, aldaketa horiekin batera, berauen mesedetarakoak liratekeen hezkuntza-politikaren aldaketak gertatu behar harko lirateke, dena ondo bidean.

Hasteko, sensibilizazio eta prestakuntza-lana, irakasleek eta familiak parte har dezaten moduko plana antolatuz; honek hainbat jarduerari izan ditu: alde batetik, irakasleekin batera eta arratsaldeko saioan, gurasoen tutoretzetan aita-amen talde-prestakuntza landu da. Prestakuntza-saio horien abiagunea gurasoen premia eta in-

teresak izanik, seme-alaben hezkuntzari arrakasta handiagoz ekin diezaioten, aita-amak bitarteko eta estrategia hobeez hornitzea izan da helmuga nagusietako bat.

Irakasleek eta gurasoek elkarrekin arratsaldeko tutoretza-saioetan landu dituzten gaiak hauek dira:

- 1. Umeak arduratsuago izan daitezten, zer egin ote dezakegu irakasle eta gurasoek?**
- 2. Umeak ikasteen eraginkorrago izan daitezten, zer egin ote dezakegu irakasle eta gurasoek?**
- 3. Umeak motibatuzko eta behar bezala prestatzeko interes handiagoa ager dezaten, zer egin ote dezakegu irakasle eta gurasoek?**
- 4. Beraien buruarekin eta gainerakoekin errespetu handiagoa ager dezaten, zer egin ote dezakegu irakasle eta gurasoek?**

Beste aldetik, irakasleekin batera parte hartzeko prestakuntza-plana landu da bertan. Tailer horretako helburuak ondokoak dira:

- a. Irakasleak behar bezalako prestakuntzaz janztea, beraien gurasoen partaidetzaren dinamizatzaile izan daitezten.
- b. "Taldea eta partaidetza-kulturaren" maila egokia erdiestea.
- c. Pertsonari berari dagokion hainbat balio eskuratzeko, hala nola: komunikazioa, talde-motibazioa, tolerantzia, elkar laguntzea, kritika erakitzailea, etab.

Irakasleekin antolatu den "partaidetzako tailer" horren garapenean hainbat gairi buruzko hausnarketak egin dira, hala nola gurasoek partaidetza ulertzeko eraz, partaidetzako hezkuntzan jardun nahi duten ikastetxeen ezaugarriez, horiek gurasoekiko lanari aurre egitean hartutako jarrera eta berengaturiko rolez, etab. Partaidetzaren tailer horretan, era berean, komunikazioa -horrenbestez, erabateko parte hartzea- eragozten duten hainbat rol gurasoek, ikasleek edo irakasleek betetzen dituztenean ondorioztatu daitezkeen liskar-egokierak kontrolatzen ikasi dugu.

ONDORIOAK

Ikus daitekeenez, proiektu honek denbora eta esfortzua eskatzen ditu baina hezkuntzako parte hartzea ikaspen-prozesuetan jo behar da. Prozesu hori pazientziatzat egin behar da, hastapenean kartutxo guztiak erre nahi izan gabe, parte hartzen parte hartuz ikasten baita. Ordura arte, denentzat mesedegarri izango den prestakuntza eta sensibilizazio prozesua beteaz, partaidetzako jarduerarik ez da baztertu behar, informazioa igortze hutsetik hasita, kogestioa edo, areago, hezkuntza-

ren autogestioa erdietsi arte. Argi eduki behar da, ordea, partaidetza hezkuntza-alorreko helmuga dela eta, halakotzat, ikastetxeko jardue- ra guztiak partaidetzazko edukiez beteaz lor dezakegula; horrela egin dezakegu aurrera partaidetza-kul- tura osatzen duten printzipio guz- tiak geureganatu eta geure bizimo- duko osagai bihurtzeko bidean.

Adiera horretan, proiektu horretan konpromisoa hartu dugunok, orain artean lortu diren erdiespenak aski positibotzat jo ditugu. Gurasoek adierazi dutenez, saioei esker, be- ren heziketa-funtzioa eraginkortasun handiagoz betetzeko eta, bai fam- iliek, bai irakasleek, beraien seme- alaba edo ikasleekin bete ditzaketen funtzioak zehazteko beharrezkoak diren heziketa-alorreko jarraibideez gogoeta egiteko aukera eman diete.

Irakasle eta gurasoen arteko ha- rremana onuragarri gertatzeko, adostasunetara iristeko, batzuek eta besteek egiten dugunaz gogo- eta egiteko, hezkuntza-alorreko mezu eta irizpideen batzearen bila joateko une eta guneak antolatze- ko premia sortu da. Gurasoak (gu- raso asko, laginaren atalean ikus daitekeenez) arratsaldeko talde- tutoretzara joan dira eta, gainera, beste saio batzuk egin daitezten es- katu dute, beren burua prestatzeko eta, laguntza bilatzeko, beren es- karmentua partekatzeko premia gorria dutela adierazita.

Proiektuan irakasleek izan duten in- plikazioa desberdina izan da, ikas- tetxe batetik bestera baina biziki onuragarritzat baloratu da, orokorki. Gurasoek eman zezaketen eran- tzunaz irakasleek hasieran zeuzka- ten itxaropenak dezente gainditu di- rela adierazi dute. Era berean, ikas- leen gurasoekin lan egin eta parte- katzeari arras interesgarria deritzo-

te; horri esker, izan ere, gaztetxo- e- kiko eguneroko lanak (irakasle eta familiek, aurrenekoen iritiz, agertu behar duten hezkuntzako erantzuz- kizuna gauzatu eta horretaz gogoe- ta egiteko denbora ebasten eta) hertsatzen dieten errutinatik irten ahal izan dira.

Interesgarria deritzogu, era bere- an, gurasoekin bezalaxe, irakas- leen artean ere partaidetzaz prestatzeko premia sortu dela az- pimarratzeari. Hori datu batek egiaztatzen du: ikastetxe zenbai- tetan irakasleen kopurua ugalduz joatea. Eskarmentu hori esker, gi- zaki eta profesional diren aldetik, beren buruaz gogoeta egin ahal izan dute eta, gainera, askori adierazten duten kontraesana - gurasoek parte har dezaten nahi izatea eta horren beldurrak ego- tea, alegia- gainditzten lagundu diete. Gure iritiz oso onuraga- rriak dira hausnarketa hauek: Bi- garren Hezkuntzan bat ere ohiko ez den zeregin profesional baten aurrean -gurasoek parte har de- zaten saiatzea- agertzen diren erresistentzia eta beldurrak gain-

ditzeko bidean abiatu garena fro- gatzen omen dutelako horiek.

Erreferentzia bibliografikoak:

- Kanarietako Eskola Kontseilua (1998). *Dictamen sobre el conflicto en Educación Secundaria*. Tenerife: Kanarietako Eskola Kontseilua, in [www.educa.rcanaria.es/ usr/coesca/dictamen.htm](http://www.educa.rcanaria.es/usr/coesca/dictamen.htm).
- De la Guardia, R.M. (2004). Variables que mediatizan la participación educativa de las familias. *Tesis doctorales Humanidades y Ciencias Sociales*, 6. liburukia. La Lagunako Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- García, J. (1997). La Tutoría, un marco para las relaciones de la comunidad educativa. *Herramientas. Guía para padres y madres*, 1. Madril: CEAPA.
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (1990). *La Orientación Educativa y la Intervención Psicopedagógica*. Madril: MEC.
- Pérez, R. (1993). *Participación social en las instituciones educativas. Una perspectiva integradora*. I eta II liburukiak. Universidad Nacional de Educación a Distancia. Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación. Departamento de Teoría de la Educación y Pedagogía Social. Oviedo. Doktoretza Tesia.
- Sánchez González, P (Coord.) (1991). *La participación en la renovación de la escuela. 1,2,3,4 eta 5 kaierak*. Programa de Participación del Servicio de renovación pedagógica, Dirección General de Educación, Consejería de Educación y Cultura. Madrilgo Erkidegoa.



Familia - eskola interakzioa

Alexander Barandiaran, Iñaki Larrea, Elena Lopez de Arana, Rafael Cristóbal, Arantxa Lejarraga eta Gorka Larrea

Hazitegi Taldea: HUHEZIKo ikerketa proiektua



Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak abian jarri zuen Hazitegi deitutako ikerketa-proiektu bat, haur hezkuntzaren alorrekoa. Langintza horretan bidaide izan zuen Ikastolen Elkarteak, eta ezagutza zientifikoa oinarritzat hartuta, helburu zuen umeen garapen osasuntsuari erantzun dion Haur Eskolaren ezaugarriak zehaztea. Azken urteotan ezaugarri horiek lantzen aritu gara, eta gure asmoa da Jakingarrietako artikulu honen bidez ekarpen bat egitea familiaren eta eskolaren gaiaren inguruan.

Hazitegitik planteatzen dugun proposamenaren barruan, familia da gure zutabeetarikoa bat. Umeak eskola-sisteman inplikaturik dauden momentu beretik, familiak ere hala daudela irudikatzen dugu, ez baitago bata bestea gabe. Garrantzitsua da umeek eskolan parte hartzea, eta hori bezain garrantzitsua da familien parte hartzea.

Hainbat dira horretarako arrazoiak. Batetik, eskola ikusten dugulako komunitate baten barruan. Komunitate horretan paper garrantzitsua du familiak, komunitateko kideak baitira, umeak bezalaxe. Bestalde, eta aurrekoarekin lotuta, umearen mundua zatikatzerik ez dugulako nahi. Umeak berak ez du bere mundua zatikatzen, ez du bere familia alde batetik eta eskola beste alde batetik ikusten, biak dira berarentzat beharrezkoak, biak nahi ditu berak bere ondoan, biak nahi

ditu bat, biak dira aldi berean bere sozializazio-prozesuaren zutabe.

Horrela bada, aipatutako sistema biak umearen garapenean hainbeste eragina duten aldetik, eta umeengan pentsatzen badugu, oso komenigarria da helburu komunak izatea. Bi sistemen helburua umearen garapen osasuntsua bultzatzea bada, bata bestearen beharra dauka.

Elkarren beharra

Ikerketa zientifikoek erakusten (NICHD, 1997) dutenez, umearen garapenaren eragile nagusia, haur hezkuntzan, umeak familiarekin, eta, batez ere, bere atxikimendu irudiarekin (Bowlby, 1976) ezartzen duen harremana da. Umearen atxikimendu motak (segurua vs insegurua) baldintzatuko du gero eskolan nola egokituko den, nolako esplora-

zio kalitatea izango duen, nolako garapen kognitiboa izango duen, nolako harremanak izango dituen berdinkideekin, azken finean nolako izango den bere ongizatea.

Hori horrela izanda, eskolak oso kontuan hartu beharko du familia, bere beharra dauka. Umea eskolara doanean ez da bakarrik joango, bere familiarekin joango da, fisikoki presente ez badaude ere, umeak gogoran izango ditu. Era berean, gaur eguneko familiak eskolaren beharra dauka, eta oso handia gainera.

Ditugun lan baldintzetan eta dauzkagun gizarte presioekin, parentalitatea modu egokian bideratzea gero eta zailagoa da. Ikusten ari gara familiek gero eta laguntza handiagoa behar dutela dutela guraso lana modu egokian aurrera eramateko, umearen garapena nolako den jakiteko eta,

erkomunikazioa

Gotzone Duñabeitia

bestalde, ulertuak izateko beharra ere areagotu egin da.

Beraz, Hazitegikook eskola irudikatzen dugu familiei euren guraso-zereginetan laguntzeko eragile gisa. Laguntza horrek umeari onura besterik ez dio ekarriko. Eta laguntza hori familia guztientzat izan behar da, kontuan izan behar baita familia eredu anitz daudela eta bakoitzak behar ezberdinak dituela. Familiaren beharrak zein diren jakiteko, familia ezagutu behar harko dugu, denbora eskaini behar harko diogu ezagutzeari. Herriko eragileekin ditugun hartu-emanek ere lagun dezakete zeregin horretan.

Zenbait inplikazio

Hori horrela izanda, gure proposamenen familia eskolan barneratzen da, eta eskola, berriz, familiar. Horrek berekin dakar hainbat inplikazio. Familia, literalki, eskolan sartzen bada, adibidez, proiektu arkitektonikoak kontutan hartu behar harko ditu familia eskolan sartzea ahalbideratzen duten espazio eta zirkuituak. Era berean, zentroak nahitaez izan behar harko ditu gurasoen heziketa iraunkorrerako espazioak.

Eskolaren eta familiaren arteko **interkomunikazioak** ahalbidertuko du bien arteko espazioen eta jokatibideen arteko jarraitasuna, hortaz, haurrek euren atxikimendua sistema minduko duen hausturarik ez dute pairatuko. Jarraitasuna hiru une esanguratsutan ematen da:

a. Lehenengo une esanguratsua

Eskolara lehendabizikoz joaterakoan, "egokitzapen aldia" deritzonenean, gurasoek transferitzen diete haurrak eurengan izandako konfiantza irakasleei. Gai horretan zehazteko asko egongo litzaiteke, eta ez da gure asmoa hori egitea. Halere, aipatu behar dugu oso garrantzitsua izango dela, egokitzapenean, gurasoen presentzia eskola barruan. Gurasoek ezin dute sentitu bertan arrotzak direnik eta irakasleek, aldiz, ezin dute sentitu ondoan arrotzak dituztenik.

Familiak inplizituki eta esplizituki adierazi behar diete umeei irakasleak guztiz konfiantzazkoak direla, eta hori benetakoa izan behar da. Umeek badute berez hitzekoa ez den komunikazioa deszifratzeko gaitasuna. Egoera



Beçançon-eko Udal H.E. Frantzia (2004).

emozionalak erreferentzia dira eurentzat, ez baitute hitzeko komunikazioa guztiz menperatzen eta erreferentzia dute gurasoek adierazten duten egoera emozionala. Gurasoak lasai badaude, konfiantza transmititzen badiete, eta, azken finean, mezua "irakasleaz fida zaitetz" baldin bada, "leku seguruan uzten zaitut" "ondo egongo zara", "laguntxoak egingo dituzu", "zure bila itzuliko gara", "ni lasai geratzen naiz, konfiantzazkoekin uzten zaitudalako" eta halakoak umeei transmititzen

zaizkienean, prozesua asko errazten da.

Horrek esan du familia bakoitzaren egoera eta jarrerak ezagutu behar direla. Batzuen kasuan oso argi izango dute zer den egokitzapen aldia, zertarako uzten duten umea eskolan, zein garrantzitsua den umearen segurtasuna bultzatzeko egin dezaketen lana eta abar. Beste batzuegan umea "hain txikitatik" eskolatzeak kontradikzioak sortuko dizkie. Familia batzuek ez diote bature garrantzirik ematen egokitzapenari, eta umeak derrigorrez pasatu behar duen trantze txarra dela ikusten dute eta beste batzuek egokitzeko beharrik ere ez dute ikusten.

Kasu horietan, lehenik, familia guztiakin bezala, beraien irudikapena zein den jakin beharko genuke eta horren arabera egokitzapenaren garrantzia eta prozesua landu beharko genituzke. Aurretik ezagutu behar da familia, horrela geure esku-hartzea moldatzeko aukera izan dezakegulako.

Baina familiek prozesuari buruz daukaten irudikapena ez dugu soilik egokitzapena hasi aurretik landu behar, prozesuan ere hainbat dira ager daitezkeen zalantzak. Gure ustetan, prozesuan zehar irakasleen egitekoa ez da soilik umeari ahalik eta segurtasun handiena ematea, egokitzapen prozesuan dagoen gurasoei segurtasuna ematea ere bada. Azken finean, egokitzapenak umeari eta bere familiari egiten dio erreferentzia.

Prozesu honetan familia bakoitzarekin irakasleak eraikitzen duen harremanak zeresan handia izango du. Nola hautematen du irakasleak familia bakoitza? Zer iritzi du beraz kontzienteki? Eta inkontzienteki? Dakigunez, aurreiritziek, estereotipoekin lotuta, eragin handia daukate familia hautematerako orduan. Horrek guztiak eragin handia du, familia gela barruan dagoen momentuetan gertatzen ari den horretan. Familiaren jarrerak eragina izango du irakaslearengan, eta

alderantziz. Egoera hori guztiz aurreikustea ezinezkoa bada ere, komenigarria da, ahal dugun heinean, aurrez familiarekin lantzea.

Egokitzapen une horretan irakasleak eta familiek jokatzeko irizpideei dagokienez, aipatu nahi dugu oinarri teorikoak atxikimenduaren teorian (Bowlby, 1976) aurki ditzaketela. Badakigu atxikimenduaren sistema aktibatuta dagoenean, eta, ondorioz, umeak bere atxikimendu irudi bilatzen duenean, ez dagoela aktibatuta esploraziora daraman sistema. Umeak segurtasuna sentitzen duenean esploratuko du modu egokian. Sistema bi hauek antagonikoak izanik, esplorazioarena aktibo izatea da gure helburua, baina horretarako umeari segurtasunera emango dioten bideak landu beharko ditugu.

Teoria honetan azaltzen diren ideiak barneratzen ditugun heinean, haurraren jokabidea interpretatu, eta, horren ondorioz, egoki-



Beçançon-eko Udal H.E. Frantzia (2004).



Beçançon-eko Udal H.E. Frantzia (2004).

tzapena moldatzeko aukera izango dugu modu errazean. Umearen eta familiaren arabera, eta, betiere, aniztasunaren printzipioa kontuan hartuz, egokitzapena anitza izan behar dela azpimarratu nahi genuke, ikasle bakoitzari egokitua.

b. Bigarren une esanguratsua

Bigarren jarraitasun unea ematen da egunero, haurra etxetik eskolara iristean eta haurra eskolatik etxera joatean. Une horiek benetan garrantzitsuak dira haurrak hausturarik bizi ez dezan zaintzaileengandik banatzen eta zaintzaileekin elkar-tzerakoan. Proiektu arkitektonikoak, sarreran, diseinatu behar du trantsizio horiek emateko leku aproposa. Bertan, oso modu leunean eta denboraren menpe egon barik, haurrak aukera izango du, lehen mailako atxikimendutik, bigarren mailako atxikimendura (eta alderantziz), esploraziora eta berdinkideen topaketara pasatzeko.

Hainbat elementu jar daitezke bereziki antolatutako espazio honetan: umea arropaz aldatzeko elementuak, bitartean irakaslearekin eroso hitz egiteko eskailera-mailak adibidez, takilak familiek arropa uzteko, eta abar.

Espazio atsegina izan behar da, eta bertan familiekin umearen inguruan hitz egiteko aukera izan behar da. Informazio asko elkartruka daiteke: zer du umeak gustukoan, harremanak nola bideratzen dituen, norekin egoten den normalean, non eta nola lo egiten duen, zer eta nola jan, eta norekin, nola pasatu duen gaua eta familiek hori guztia nola interpretatzen duten, zer garrantzi ematen dioten. Hor da familiekiko harremana eraikitzeko unea.

Era berean, umeaz ahalik eta informazio gehien izanda, gure harremana berarekin hobeto egokitzeke aukera izango dugu, bere erritmo biologikoak errespetatzeko. Ondotxo dakigunez, familia

aniztasuna dela-eta, familia batzuk, lanera joateko presaz daudelako, dena atzeratu zaielako, etxean umeekin gosaria dela eta istilua izan dutelako, umea bertan utzi eta ahalik eta azkarren alde egitea pentsatuko dute. Hori aldatzea izango da erronka garrantzitsuetako bat.

Lehen aipatu dugun bezala, familiek eskolarekin kontaktua duten momentu beretik, gure proiektua haiekin partekatzeak ondorio positiboak izango ditu gero familiekin izango dugun eguneroko harremanean. Are gehiago, gure proiektua komunitate osora zabaltzen badugu, herrian ezagutarazten badugu, denek izango dute gure nondik norakoaren berri. Proiektu horretan, egoki arrazoituz, familiei eskatzen dieguna ere azal dezakegu, jakin dezaten zer espero dugun, zeri ematen diogun garrantzia, zein den gure apustua.

**Eskolaren eta
familiarren arteko
interkomunikazioak
ahalbideratuko du bien
arteko espazioen eta
jokabideen arteko
jarraitasuna, hortaz,
haurrek euren
atxikimendu-sistema
minduko duen
hausturarik ez dute
pairatuko**



Beçañon-eko Udal H.E. Frantzia (2004).

Horrela bada, gugana etorri aurretik familiek gure asmoen berri izango lukete, eta adibidez, eskolan hezitzailearekin egoteko denbora gutxi aurreikusten duten familiek jakingo lukete une hori oso garrantzitsua dela, eta lehenago etorriko lirateke une hori zaintzeko.

c. Hirugarren une esanguratsua

Aipatu nahi dugun azken unea ordutegi arruntean eman daiteke-

na da. Egunerokotasunean, ohikoa izan behar da familiakoak agertzea, adibidez, beste gurasoekin egoteko, libre baldin badaude irakasleekin hitz egiteko, gelako jardunean parte hartzeko, edota, beste barik, edozein parke edo plazatan bezala, lasai-lasai zerbait edateko haurra ikusten ari diren bitartean.

Zeregin horiek egin ahal izateko, proiektu arkitektonikoak diseinatu behar ditu egoteko espazio hori eta ohiko jarduna behatzeko hain-

bat zirkuitu, irakasleen hezkuntzazko ekintzetan eragotzi barik. Mahaiak, apalak, material psiko-pedagogikoa, zerbait edateko edo jateko tresneria, eta abar izan daitezke familientzat pentsatutako espazio bereziak izan ditzakeen elementu batzuk.

Bestalde, eskola ordutik kanpo ere eskolako espazioak ahalbidetu dezake familien arteko elkarrekin-tza. Eskola ez da zertan itxi behar, familiak partaide diren heinean, umeez jolasten duten bitartean,

bada aukera haien arteko harreman-sareak erakitzeko. Proiektuan leku garrantzitsua izan dezake espazio eta momentu horiek zaintzea.

Ondorioak

Bestalde, halako planteamendu batek eskolako kultura bide horretatik bideratzea eskatzen du. Dudarik gabe, zaila izan daiteke planteamendua irakasle gutxi batzuen kontua baldin bada. Eskola osoaren planteamendua izatea da garrantzitsua, eta horrek langile guztien kolektiboa zipriztintzen du, eskolaren antolakuntza osoan eragiten du (Solé, 1998). Lankidetzara oso garrantzitsua izango da, eta talde kohezioa, eta eztabaida eta hausnarketa, eta azken finean adostasuna (Solé, 1998). Hori lortzeko eskola bakoitzak bere bidea egin beharko du.

Aipatutako guztiak baditu inplikazioak sistema bakoitzak dituen rolen inguruan. Familia eskolan sartzen bada, fisikoki sartu ere, eskolaren proiektuaren zutabe sentitu behar da, inplikaturik sentitu behar da, eta inplikazio hori lortzeko, eskolak, harremanetan jartzen diren momentu beretik, bere hezkuntza proiektua partekatu beharko du, bera den "familiaren" partaide egin beharko du, umea nola ikusten duen erakutsi beharko dio, hezkuntza nola ulertzen duen, familia formatu beharko du eskolako "familian" eroso maneiatzeko, jakiteko nola harremanak izan, zer eskatzen zaion, nola parte hartu eguneroko eskolako bizitzan. Irakasleek barneratu beharko dute familiek zergatik hartzen duten parte eskolaren barruan, kolaboratzaile moduan hartu beharko dituzte, proiektu

tu bereko partaidetzat. Hori dela eta, Hazitegiren proposamenean beharrezkoa ikusten dugu gurason eta irakasleen formazioa.

Hori guztia lortzea ez da batere erraza izango. Familia askok nahi bai, baina ezin izango dute eskola barruan presente egon noski, eta ezingo diegu hori eskatu. Familiak, umeak bezalaxe, anitzak da. Egun, gainera, eredu eta kultura ezberdinetako familia ugari dugu. Banan-banan hartu beharko ditugu kontuan, eta horrek eskolaren erantzunetan aniztasuna eskatuko du, eta lortzen duen inplikazio maila ezberdina izango da.

Hori familia bakoitzarekiko, baina kontua da familia ugari izango ditugula eskola barruan, eta haien arteko harremana ere oso garrantzitsua izango dela. Familia bati beste familiek eman diezaioketen babesa eskertzekoa izan daiteke, adibidez, kulturartekotasuna bultzatzerako orduan. Etorri berria diren ume eta familiaren ongizatearen zutabe bihurtu daiteke eskola.

Eskolak berak bultzatu beharko dituzte sor litezkeen harreman-sareak, bai eskola barrura begira bai kanpora begira ere.

Argi daukagu familiaren ongizatea bultzatzen dituzten estrategia guztiak onak izango direla eskolan dugun umearentzat. Familiei laguntzea umei laguntzea izango da. Eta familiek beraien behar batzuk asetzen badituzte eskolarekin bat, orduantxe gertatuko dira komunikazioa eta inplikazioa.

Egun irakasleek duten kezka nagusia da familiek eskolaz duten ikuspegi asistentziala. Hori aldatzea ez da erraza,; hala ere artikuluan aipatu ditugun elementu guz-

tiak praktikara eramanez gero, prebentziozko ikuspegia izanez gero, egin egin daitekeela uste dugu. Hainbat eskola ditugu horren isla direnak.

Azken batean, adibide egokiak leku askotan ditugu. Hala ere, aldizkari honetan hizpide izandako esperientzia bat ekarri dugu hona, *Besançoneko Antenne Petit Enfance* elkarteak sustatutako Haur Eskolarena alegia; izan ere, ikastegi horretan praktikara eraman baitituzte gu aldarrikatzen ari garen eskolaren printzipioak.

Errealitatean aurkitu daitekeen adibide bat

Besançoneko Antenne Petit Enfance elkarteak ale honetara ekarri izanaren arrazoa argia da, bere printzipioen baitan baitago familiaren partaidetza eskolan. Eskolaren

Familia eskolan sartzen bada, fisikoki sartu ere, eskolaren proiektuaren zutabe sentitu behar da, inplikaturik sentitu behar da, eta inplikazio hori lortzeko, eskolak, harremanetan jartzen diren momentu beretik, bere hezkuntza proiektua partekatu beharko du

oinarrietan familia egotea ez da aparteko ezer, hemen ere ikastetxe askoren hezkuntza proiektuetan ageri da-eta familiaren presentzia. Kontua da *Antenne Petit Enfance* elkartearen kasuan presentzia hori bermatzeko hainbat estrategia erabiltzen direla.

a. Harrera Gunea

Familiaren (umea barne) eta eskolaren arteko harremana lantzeko estrategietako bat da Harrera Gunearena. Arestian ere aipatu da egunero haurra etxetik eskolara iristerakoan garrantzitsua dela haurrak hausturarik ez sentitzea. Kontzeptu horretan oinarrituta, *Antenne Petit Enfance* elkartearen espazio bat diseinatu zuten etxetik eskolarako eta eskolatik etxerako trantsizioa alaitu egiteko.

Harrera Gunea izendatutako espazio horrek gela eta etxearen bitartekari lanak egiten ditu, eta, bide batez, ahalbidetzen du umeek eta gurasoek poliki-poliki eskolara

egokitzen joatea eta behar duten denbora guztia hartzea haustura hori ez sentitzeko. Baina, are gehiago, gune horrek adierazten du gurasoak ongietorriak direla, bertan egon daitezkeela eta aukera daukatela euren umeak arropaz aldatzeko, lasaitzeko eta, oro har, euren umeen eskolako bizitzan parte hartzeko.

Ildo horretatik, gurasoak atean geldituko balira, askoz ere zailagoa izango litzateke irakasleei umea etxetik nola datorren kontatzea, edota, alderantziz, irakasleak gurasoei euren haurra eskolan nola egon den adieraztea. Horrenbestez, harrera gunea gurasoen eta irakasleen arteko komunikaziorako esparru ere bilakatzen da.

Beraz, espazio horrek funtzio bikoitza izango luke: alde batetik, haurra gelara sartzeko "prestatzea"; eta, bestetik, gurasoak ere eskolako dinamikaren parte izatea. Edozelan ere, Harrera Gunearen ildotik beste zenbait estrategia ere badarabiltzate Besançon-en.

b. Guraso Gunea eta Entzute Zerbitzua

Harrera Gunea familiatik eskolara trantsizioari lotuta zegoen, eta esan liteke Guraso Gunea zehaz-zehazki gurasoengan pentsatuta dagoela. Izenak dioen bezala, Guraso Gunea gurasoentzako tokia da. Bertan, gurasoek aukera daukate euren artean hitz egiteko, guraso elkartearen bilerak egiteko edota formazioa jasotzeko.

Guraso Gunean euren interesekoak izan daitezkeen bideo eta aldizkariak izaten dira, nahi izanez gero, horien gaineko ezagutza aberasteko. Adibidez, gurasoak umeari fardela kentzekotan baldin badaude eta horren inguruko zalantzak badauzkate, gaiari buruzko informazioa topatuko dute bertan.

Helburua da aita eta amei gurasolanetan laguntzea, eta, bide batez, euren arteko harremanak bultzatzea; izan ere, adin bereko umeen gurasoek antzeko interesak daukate eta antzeko gaiak izaten di-



Beçançon-eko Udal H.E. Frantzia (2004).

tuzte hizpide: umeen elikadura, hortzen hazkuntza, fardelak kentzea, anai-arreben jaiotza, txertotak, eskolaz kanpoko ekintzak...

Horregatik, Guraso Guneak baliatu gura ditu interes komun horiek euren arteko harremanak lantzeko, gurasoen sare sozialak garatzeko, eta, bide batez, eskolaren komunitatea errotzeko familiak edonongoak eta edonolakoak direla ere.

Are gehiago, Guraso Gunean sortutako gaien ildotik, *Antenne Petit Enfance* elkartean erabaki zuten gurasoen formazioarekin lotutako beste zerbitzu bat antolatzea: Entzute Zerbitzua.

Entzute Zerbitzuan bi psikopedagogok egiten duten lan. Profesional horien lanaren funtsa guraso eta irakasleak entzutea da. Gurasoek edozein kezka baldin badute eta euren seme-alaben inguruan eta Guraso Gunean erantzunik jaso ez badute, Entzute Zerbitzura jotzen dute psikologoekin hitz egiteko.

Era berean, irakasleek ere parada daukate bertara jotzeko ume baten gorabeheren gainean galdetzeko.

Modu horretan, Entzute Zerbitzua gurasoentzako Guraso Gunearen osagarri da eta irakasleentzako, berriz, aholkularitza kualifikatua.

Soka beretik, Entzute Zerbitzua izan ohi da gurasoen formazioaren sustatzailea. Eskuarki, bertako beharginak arduratzen dira gurasoentzako hitzaldiak edota ikastarok antolatzeaz; hain zuzen ere, horixe baita *Antenne Petit Enfance* elkartearen beste estrategia bat gurasoei begira, formazioa edo trebakuntzarena alegia.

c. Egunerokotasunean partaidetza

Azkenik, nahiz eta orain arteko estrategiak gela arruntaren inguruan kokatu, bat ere ez da gelako ohiko dinamikan lekutu.

Hala ere, *Antenne Petit Enfance* elkartean saiatzen dira gurasoek gelaren egunerokotasunean parte har dezaten. Horretarako, hainbat bide darabiltzate. Adibidez, eskola askotan bezala, ohikoa izaten da gelan gurasoek egindako pastelak edota jana izatea. Edota, eskola zaharberri edo dotoretu behar bada, Euskal Herriko auzolanak gogora ekarriz, gurasoak izaten dira lan horiek egiten dituztenak.

Baina, pauso bat harantzago egin da, ez da harrizkoa gelan bertan aita edo ama bat ipuin bat kontatzen edota gitarra jotzen ikustea. Are gehiago, Guraso Gunean aurrez prestatutako lanak ere maiz izaten dira gelan. Adibidez, naturaz lotutako gaien bat lantzen egonez gero, Guraso Guneak har dezake ardura lore edo hosto bilduma bat prestatzeko. Edo, adibidez, familiaren bat baserri batean biziz gero, baliabide hori erabiltzen da umeen txangoa bertara egiteko eta naturaren gai hori lantzen jarraitzeko.

Ikus daitekeenez, bide asko dira Besançon-en esploratzen direnak gurasoen presentzia ziurtatzeko. Litekeena da beste eskola askotan beste zenbait bide hartzea, baina, funtsean, helburua berdina da: gurasoen eta eskolaren arteko interkomunikazioa lortzea sistema biak sintonia berean egon daitezen.

Besançonekoa ez da inola ere ez esperientzia bakarra, hor ditugu adibidez Italiako Reggio Emiliako



Beçançon-eko Udal H.E. Frantzia (2004).

haur eskolen kasua, eta eskola horiek ezagunak dira, hain zuzen ere, lan egiteko duten moduagatik. Jendeak badaki zer diren, eta badaki han edozer gauzak ez duela balio. Baina ziur asko adibideak topatzeko ez gara hain urrutira joan behar, gure herrietako hainbat eskolatan ere esperientzia oso aberatsak lantzen ari dira. Gauza da interkomunikazioa posiblea dela, maila handiagoan edo txikiagoan, eta bidea ekinez egiten dela.

Erreferentzia bibliografikoak:

- Bowlby, J. (1976): *El vínculo Afectivo*. Buenos Aires: Paidós.
- NICHD Early Child Care Research Network (1997): The Effects of Infant Child Care on Infant-Mother Attachment Security: Results of the NICHD Study of Early Child Care. *Child Development*, Vol. 68, Number 5; pp. 860-879.
- Solé, I. (1998). *Orientación educativa e intervención psicopedagógica*. Barcelona: Horsori.

Gurasoen eta haur es- pareta puskatuz.

Usurbilgo haur eskolako esperie

Maider Ollokiegi, Joxe Ramon Maudit, Edurne Urdanpilleta eta Aitziber Agirre

Usurbilgo Haur Eskolako partaideak



Usurbilgo Haur Eskolako aurkezpena

Jakina da jaio ondorengo lehen urteak oinarritzkoak direla pertsonaren garapen osoa bere eremu ezberdinetan bultzatu eta sendotzeko, gizarte eremuan, kognitibo-linguistikoa, motorean eta oreka pertsonalean.

0-3 adin tartean gizakiaren nortasuna osatzen duten gaitasun emozionalak, jokabideei dagozkien antolamenduak eta funtzio kognitibo guztiak azalerraten dira, 0-3 adin tartearen garapen ebolutiboa deritzona.

Hori guztia kontuan izanik, Usurbilgo Haur Eskolaren xede nagusia baliabideak eskaintzea da, 0 - 3 urte bitarteko haurren garapen ebolutibo egokia eman dadin, haurren heziketa eta garapen integrala bultzatuta.

Hezkuntzaren ikuspegitik, hezitzaileak eta gurasoak funtsezko elementuak dira haurren ziurtasunerako. Haurra gurasoengandik eta familia girotik at egunero eta denbora luze samarrean dagoenez, beharrezkoa da zenbait baldintza betetzea Haur Eskolako hezitzailearekiko atxikimendu ziurra eman dadin. Usurbilgo Haur Eskolako oinarritzko baldintza horiek bermatzea du helburu.

Usurbilgo Haur Eskola 2.001eko irailean sortu zen. 4 hezitzailek eta 12 haurrek hasi zuten ikasturtea. Urteak aurrera joan ahala, 81 haur eta 18 langilez osatutako Haur Es-

kola dugu (2.006/07 ikasturtea). Urtez urteko egoerara moldatzen joan behar izan du eskolak, betiere hasierako izaeraren oinarri jarraiki.

Arestian aipatu den bezalaxe, haurren garapen ebolutiboa eman dadin, honakoak hartuko ditu kontuan:

a. Taldeen eta hezitzaileen antolamendua

Haur Eskolako haurrak hiru adin-tartekara banatu dira, eta adin tarte talde bakoitzeko bi talde osatu dira, zaharrenetik gazteenera. Gaur egun, honela daude banatuta taldeak:

- 0-1 Txikiak: lau hilabetetik urte bete bitarteko haurrek osatzen dute talde hau (uztaila - azaroa bitarteko haurrak). 9 haur eta bi hezitzaile daude bertan (tutorea + laguntzailea).

skolaren arteko

entzia.



Usurbilgo H. E. Gipuzkoa (2006).

- 0-1 Handiak: lau hilabetetik urte bete bitarteko hurrek osatzen dute talde hau (urtarrila - uztailea bitarteko haurrak). 14 haur eta hiru hezitzaile dauden bertan (tutorea + bi laguntzailea).
- 1-2 Txikiak: urtebetetik bi urte bitarteko hurrek osatzen dute talde hau (apirila-abendua bitarteko haurrak). 14 haur eta bi hezitzaile (tutorea + laguntzailea).
- 1-2 Berriak: urtebetetik bi urte bitarteko hurrek osatzen dute talde hau (zuzenean 1-2 adin tarteko gelan matrikulatu diren haurrak). 6 haur eta hezitzaile bat.
- 2-3 Txikiak: bi eta hiru urte bitarteko hurrek osatzen dute talde hau (uztaila-abendua bitarteko haurrak). 12 haur eta bi hezitzaile (tutorea eta laguntzailea bi ordutara).

- 2-3 Handiak: bi eta hiru urte bitarteko haurrek osatzen dute talde hau (urtarrila - ekaina bitarteko haurrak). 12 haur eta bi hezitzaile (tutara eta laguntzailea bi ordutara).

2-3 urteko ikasturtea amaitu ostean Haur Hezkuntzako bigarren ziklora pasako dira (gehienetan herrian den ikastola bakarrera).

Taldeak egiteko kontuan hartzen diren irizpideez gain, Haur Eskola batean, taldeei kalitatea bermatzeko, ezinbestekoa da honako oinarri hauek kontuan hartzea:

- Talde Txikiak (ratioak): Hezitzaile profesional bakoitzak bere ardurapean daukan haur kopurua gehiegizkoa ez izateak ahalbideratuko du hezitzaileak haurraren seinaleak identifikatu ahal izatea, baita haur bakoitzaren ezaggarri bereziak identifikatzen ere.

Profesionalak denbora eta aukerak behar ditu haurrekin aurrez aurre elkar eraginez jarduteko.

Taldea aldakorra baldin bada edo hezitzaile gutxirentzako talde handiegia baldin badaukagu, heziketa desegokia izango da.

- Jarraikotasuna (erreferentziatzeko pertsona): Haurrez arduratzen diren langileek egonkortasuna behar dute. Haurrei heziketa eta zaintza egonkorrak eskaini behar dizkiegu; ez da komeni aldiro-aldi hezitzaileak aldatzea.. Zergatik? Adin honetako haurra ez da heldu askorekin erlazionatzeko gai. Ondorioz, atxikimendu ziurra ahalbideratuko duen hezitzailea tutorea izango da, eta tutore horrek hiru urtean iraungo du talde berean hezitzaile.

b. Haur Eskolaren eta etxearen arteko komunikazioa

Egungo egoera dela eta, guraso asko dago amatasun baja amaitu ostean bere haurra zainduko duen leku, zentro, pertsona bat behar duena. Aukera bat baino gehiago dago, eta horietako bat Haur Eskola da. Horrelako adin txikiko haurrentzat eta batik bat Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan, jakina da erreferentziatzeko pertsonak garrantzi handia duela; duela gutxi arte haurrek familia giroan izaten zuten figura hori. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen da Haur Eskolaren eta gurasoen arteko komunikazioa, koordinazioa eta harremana sortzea.

Familiaren eta eskolaren arteko pareta puskatzea da Eskolaren helburua, izan ere, oinarrian, gurasoek, bertako irakasleek eta haurrek osatzen dute Haur Eskola. 0-3 adin tarteko haur batentzat, Haur Eskola eta familia giroa izango dira bere errealitate nagusiak, eta, noski, horien artean hausturarik ez sumatzeak, onura handiak ematen dizkiolarik haurrari.

Haurrak lehendabiziko hilabeteak etxeko giroan igarotzen ditu, eta oso garrantzitsua da Haur Eskolako trantsizio bidea ahalik eta era xamurrenean egitea. Eskolarako sarrera eta irteera xamurra izan dadin, esperientzia berria jarri zen martxan pasa den ikasturtean.

Haurrak eskolan hasi aurretik, gurasoak (argi esaten zaie oso garrantzitsua dela biak etortzea), hezitzaileak eta Joxe Ramon Maudit, 0-3 adin tarteko aditua (psikologoa, gorputz terapeuta, E.S.T.E.R¹-eko psikoterapeuta eta prebentzioan aditua/espezialista), bildu ziren, 0-



Usurbilgo H. E. Gipuzkoa (2006).

(1) Escuela de Terapia Reichiana.

1 adin tartearen garrantziaz hitz egiteko.

Joxe Ramonek behin eta berriz azpimarratu ohi ditu ondorengo hausnarketak;

“...haurri bere bizitzako lehen urtean beharrezkoa duen ziurtasuna, babesa, atentzioa, indibidualtasuna eskainiz gero, esploratzen hasten denean ziur eta ingurunearekiko irekia egongo da, eta egiten dituen manipulazio eta esplorazioak aberatsak izango zaizkio...”.

“...egokitzapen prozesuaren funtsezko oinarria amaren konfiantzari eustea da. Zertarako? Haurraren heziketaren prozesuan amarekiko kontaktuari eusten bazaio, haurraren prozesua ez da hausten. Horregatik da garrantzitsua amak haurra Haur Eskolan uzten duenean haustura sentsaziorik ez sentitzea eta harremanak irautea. Eta noski, horretarako, inguruneak ere lagundu diezaiola maitasun hori ez hausten...”.

Bilera horretan hainbat galdera, zalantza... sortu ziren gurasoengandik, eta Joxe Ramonek eta bertako hezitzaileak, Edurne Urdanpilletak, erantzun zieten. Komunikazioak duen garrantziaz hitz egin zen, etxean komunikazioa egotez gain Haur Eskolaren eta euren artekoea sakontzearen garrantziaz.

Ziurtasuna izanik esperientzia honen oinarria, amei, haurra jaio aurretik, Haur Eskolara bisitan etorri eta bere haurraren laguntxoak zeintzuk izango diren esan, bertako funtzionamendua, irakaslea, lagun senideak,... ezagutzeko gonbidapena egin zitzaien.

Amak haurra izan aurretik izaten duen baja dela eta, bisitan etorri ziren, bai eta gelan giro goxoa sortu ere. Haurra jaio aurreko beldurrak beste amekin elkartrukatzeko, egoera berri hori besteek nola bizi izan duten entzuteak, eguneroko errutinetan parte hartzeak, laguntasun giroa sortzeak... horrek guztiak mesede egiten die haurri eta amari.

“Haurdun dagoen ama Haur Eskolara etortzen bada, bertan egon eta hezitzailearekin harremanak izan, sabelean daraman haurrak hizkuntzaren modulazioa edo tonua barneratzen ditu, eta gero, jaiotakoan, ingurunea ez zaio erabat arrotza egingo” dio J. R. Mauditek.

Haurra jaio ostean eta derrigorrezkoa den egokitzapen aldia hasi aurretik ere, bisitak egiten zituzten jaio berria zen haurrak eta amak.

Hasierako bilera honetaz gain, beste bi bilera egin zituzten Joxe Ramonekin.

Sarrera honekin argi azpimarratzen da guraso eta Haur Eskolaren arteko harremanak duen garrantziaz. Beraz, Haur Eskolako egonaldiko hiru urtean zehar hainbat jarduera garatzen dira harreman hori bultzatu eta gurasoak ere Haur Eskolako partaide senti daitezen:

- Aurreko ikasturtean egoera berdina bizi izan zuten gurasoek aurten 0-1 adin tartean dauden gurasoei beraien esperientzia kontatzeko bilera bat egin ohi da.
- Gelako hiru bilerak.
- Ebaluaketa iraunkorra (urtean hiru bakarkako bilera egin ohi dira).

Amak haurra izan aurretik, bisitan etorri ziren. Haurra jaio aurreko beldurrak beste amekin elkartrukatzeko, egoera berri hori besteek nola bizi izan duten entzuteak, eguneroko errutinetan parte hartzeak, laguntasun giroa sortzeak... mesede egiten die haurri eta amari

- Egunero betetzen den fitxa pertsonala. Haurra Haur Eskolan nola egon den adierazten duen fitxa betetzen du hezitzaileak, eta atzealdean, berriz, arratsaldea, gaua eta Haur Eskolara etorri aurreko egoera zein den adierazten dute gurasoek.

Egunero ohartxo txiki bat idazten zaie, modu berdinean, eurek ere aurreko egunean egin zutena adieraz dezaten.

Haurrak gurasoen aldetik eta hezitzailearen aldetik gertutasuna sumatzen du, elkarrizketetan beraien bizipenen inguruan hitz egiten baita “atzo amona Maritxuren etxean izan omen ziren, ezta ?.....”.

- Egunero irakaslearekin burutzen den hitzezko harremana: gelara iritsi eta bertan

egoteko aukera izaten dute gurasoek, eta hainbat elkarriketa elkartrukatzen dira.

- Gela bakoitzak guraso ordezkari bat du, "Gela Burua" izango dena. Ordezkari honek gelan suertatu daitezkeen proposamen, kexak, adierazpenak,... luzatuko ditu.
- Urtean hiru Zuzendaritza Batzorde eratzen dira. Horietan, gela buruek gurasoen hitza plazaratzen dute. Bilera horietan, udal ordezkaria, (izan ere, zerbitzu publikoa baina gestio pribatua duen eskola baita), hezitzaile ordezkariak, gela buruak eta eskolako zuzendaria elkar-tzen dira.
- Haur Eskolan haurrek badute txoko bat bere senideez oroitzen direnerako. Txoko horretan guraso bakoitzak bere haurarentzako sortu duen argazki albuma dutela. Album horretan haurarentzako garrantzitsuak diren pertsonak agertzen dira: aiton-amonak, lehengusuak, koadrilako lagunak, txakurra,...
- Jarduera berezietan ere parte hartzea bultzatzen da: Gabonetan Olentzeroaren papera betetzeko, "korrrika"n parte hartzeko, ikasurte bukaerako jaialdian (2-3 urteko gurasoak izaten dira jana prestatzearen arduradunak, gainontzeko guztiak muntatzen eta desmuntatzen hartzen dute parte), ikasurte bukaeran gurasoekin egiten den afaria, 2-3 urteko haur eta gurasoekin igandean egiten den egun pasa,....

- Haurren gelako irteeretan ere gurasoen parte hartzea eskatzen da: igerilekura, gurasoen lantokietara, baserrira, kanpinean gaua pasatzera joaten direnean,...
- Gelako hainbat jardueretan; musika jotzera, ilea orraztera,...etortzeko gonbitea egiten zaie.
- Eskolaz kanpoko jardueretan: guraso eskola, hitzaldiak, tailerrak,...

c. Haur Eskola eta Udarregi Ikastolaren arteko elkarlana

Haur Eskolarako sarrera ahalik eta xamurren egiten saiatzen da Haur Eskola, eta beste horrenbeste irteerarekin ere, ezinbestekotzat jotzen du ahalik eta era errazenean egitea.

Horretarako, eta herrian den ikastola bakarrarekin harremanetan jarrita, ikasturtean zehar Ikastolarekin hartu-emana bideratzea pentsatu zen. Maila batean, 2-3 urteko haurra, Ikastolako eraikuntzarekin ohitzen joateko, bertako irakasleekin,... Beraz, hilabete behin, bertako 2-3 urteko haurrekin batera, Ikastolako musika saiora joaten dira.

Bestetik, ikasurtea amaitzerako bisitatxo bat egiten da, beraien gela izango dena ezagutzeko baita bertako irakaslea izango dena ezagutzera ere. Esperientzi honek haurrak Ikastolako trantsizioa era xamurragoan egiten laguntzen du, izan ere ez baita batere erraza, betiko Haur Eskola utzi, hiru urtean erreferentzia izan den irakaslearen figura aldatzea, lagun berriez

osaturako taldeko partaide izatea,...

Aitziber Agirrerren, Haur Eskolako ama baten esperientzia

Gogoan dut amatasun-baja amaituta lanean hasi nintzeneko eguna. Urtarrilaren 2a. Erabat damu nintzen, oraindik haurdun nengoela, ama izan berritan lanera itzuliko nintzela erabaki nuelako eta enpresari hala jakinarazi niolako. Orduan ez nekien zein behar zituen haur txiki batek.

Baina amatasun-baja aurrera joan ahala, nire egonezina areagotzen joan zen. Gure alaba Haizeaz bereiztea bereziki gogorra egingo zitzaidala konturatu nintzen. Nork eta nola zainduko ote zuen? Haizea jaio aurretik uste nuen ona zela haurrak haur-eskolara joatea; beste haurrekin sozializatzen ikasiko zutela. Ama izan nintzenean konturatu nintzen nire ustearen zentzugabekeriak: horren haur txikiak oraindik ez dute sozializatzeko garaia. Beste behar garrantzitsuagoak dituzte: maitasuna, babesa, etengabeko atenzioa... Alegia, amak bakarrik ase ditzaken beharrak, eta haur-eskola batean, gaur egun dauden baliabideekin, asetzen zailak direnak.

Buruan zalantza horiek guztiak gunituela iritsi ginen alaba, gizona eta hiruok Usurbilgo Haur Eskolara. Egokitzapen-fasea egitea komeni zela adierazi ziguten. Ondo da, ados. Ordu erdi gaur, ordu bete bihar... horrela hasi ginen haur-eskolan gero eta denbora gehiago ematen eta hezitzaileak ezagutzen.

Gogorra izan zen Haizea han utzi eta lanean hastea, uste bezala,

baina haur-eskola erabat irekia aurkitu genuen. Nahi beste denbora eman genezake gurasook han, eta haurra bakarrik utzi genuenerako bagenekien ondo zainduko zutela.

Ez da gutxi. Eta ez bakarrik hori: ikusi genuen Joxe Ramon Maudit psikologoarekin egiten ari ziren elkar-lanaren ondorioz, hezitzaileak haurren errespetuzko zaintza egiten saiatzen zirela. Hau da, haurren berezko garapen psikomotriza errespetatzen zutela eta garapen hori era egokian eman zedin baliabideak jartzen zituztela.

Hezitzaileen jarrera oso irekia izan zen ikasitakoa gelan aplikatzeko garaian, eta arreta pertsonalizatua izan zuten haurrek, bakoitzaren beharretara eta egoerara egokitu-ta. Hori guztia psikologoaren, hezitzaileen eta gurasoen arteko etengabeko komunikazioari esker eman zen. Horrela, gurasook ere formazio baliagarria jaso dugu, eta haurrekiko errespetuzko zaintza praktikatu ahal izan dugu etxean ere.

Beraz, Usurbilgo Haur Eskolari eta hango hezitzaileei hainbat gauza zor dizkiogu: batetik, gure haurrak ahalik eta errespetu handienaz zaintzen saiatu izana, eta, bestetik, bide batez gurasook jaso dugun hezkuntza. Ziur bainaiz gure haurren garapenean eta ongi izatean eragin handia izan duela proiektu honek.

Joxe Ramon Maudit²-en iritzia

Haurren garapeneko lehen hiru urteetan, oinarrizko premietako bat erreferentziatzko irudiak izatea da, batez ere, ama, haurrek beha-

rrezko egokitzapenak egin ditzaten eta segurtasun oinarri bat har dezaten.

Haurren banantzea eta indibidualizazioa pixkanaka arautzen doan heinean, haurrak bizi behar duen mundua ezagutzeko dituen berezko gaitasunak finkatzen ditu kanpora begira. Eta, bere barruan, nerbio-sistema landuz joaten da, eta osotasuna eta barne kohesioa lortzen du, alde batetik, osasuna zaintzeko, eta, bestetik, eskema batzuei eusteko. Eskema horiek umearen ezaugarriak arautzen sortzen dira: premiak, erritmoa, empatia, inguruarekiko konfiantza, jarrera, jokaera, eta abar.

Horrek guztiak lagundu egingo dio kontinuum fisiko, psikiko, emozional eta sexualean, pertsona autonomoa bilakatzen heldua denerako.

Haurrari bere gaitasunak garatzen nola lagundu ikusten ari gara, baina kontuan hartu behar dugu, halaber, zeregin horretan zein baldintza sozialek laguntzen edo oztopatzen gaituzten. Esaterako, argi eta garbi dago 16 asteko amatasun-baja ez dela nahikoa, une horretan umeak mendekotasun handia duelako oraindik. Zenbait bikotek arazo mordoa izaten dituzte, eta arazo horiek estresa eragiten dute familia-sistemako harremantetan; ondorioz, atxikimendu funtzionala egoteko aukerak murriztu egiten dira.

Familia eta eskolaren arteko eraginerako proiektu hau berezia da, haurrak jaio baino lehen ere lan-tzen delako. Eskolatik bultzatzen den prebentzio-programa da, giza sistemen ekologia kontuan hartzen duena eta Reich-en Terapiako Espainiako Eskolaren (ESTER) irizpidea jarraitzen duena.

Gurasoengan hiru helburu lortu nahi ditu:

- I. Familia eta haur-eskola banantzen eta bereizten dituen dikotomiaren ondorioak ahal den neurrian saihestea. Haurra Haur Eskolara ohitzea, leku eta pertsona (andereñoa) ezagunaren sentsazioa emateko, eta gurasoen faltak sortzen duen estutasuna ekiditeko edo samurtzeko.
- II. Aita-amak gehiago jabetzen dira beren garrantziaz; ondorioz, ahalik eta ordu gutxien sartzen dituzte lanean, eta aktiboago hartzen dute parte eskoletako zereginetan.
- III. Haurren egoera psikoafektiboa ulertuz gero, bizi-zako berezko zailtasunek ez dute erruduntasun-sentimendua hain erraz

Haur-eskola erabat irekia aurkitu genuen. Nahi beste denbora eman genezake gurasook han, eta haurra bakarrik utzi genuenerako bagenekien ondo zainduko zutela

(2) J.R. Maudit: gorputz-terapeuta, psikologoa, Reich-terapeuta. Lehen mailako prebentzioan eta prebentzio komunitarioan aditua.

Hezitzaileen jarrera oso irekia izan zen ikasitakoa gelan aplikatzeko garaian, eta arreta pertsonalizatua izan zuten hurrek, bakoitzaren beharretara eta egoerara egokituta. Hori guztia psikologoaren, hezitzaileen eta gurasoen arteko etengabeko komunikazioari esker eman zen

pizten, eta, horri esker, ez zaio hesirik jartzen umearekin komunikatzeari.

Gurasoen eta andereñoen arteko dinamika global horrek ondorio hauek dakar:

Gurasoek elkarrekin hitz egiten dutenean, edoskitzearen inguruko beharrak eta zalantzak agertzen zaizkie, eta hainbat galdera etortzen zaizkie burura: erritmoak nola errespetatu, noiz eta nola, eta abar. Azkenean, kezka zahazten dituzte eta andereñoi galdetzen dizkiote zuzenean.

Andereñoek, era berean, prozesua ebaluatzen dute, eta hurrengo pausoa prestatzeaz arduratzen dira, bai haurra heldutasun-garapenerako prestatzeko, bai haurrek garapen fisiko eta emozionalerako behar dituzten baliabideak bilatzeko.

Berriro diot, txikikeriak diruditen

gauzak ahalmen handia dute; izan ere, urteroko alferrikako negarra saihesteko benetako nahirik egon izan ez balitz, ez litzateke esperientzia berri hau sortu izango.

Eskerrik beroenak Usurbilgo andereñoi.

**Edurne Urdanpilleta,
2.005. urtean jaiotako
haurren tutorearen
iritzia**

2.005/2.006 ikasturtean jarri genuen abian egokitzapenari buruzko proiektu berri hau. Bertatik zer lortu nahi genuen argi izan arren, hasiera ez zen guztiz erraza izan, metodologia, eman beharreko urratsak, ordutegiak,...pixkanaka finkatzen joan behar izan baiken.

Jada urte bete pasa den honetan, atzera begira jartzen naiz eta urte horretan zehar bizi izandako esperientzia eta bizipen ugari datozkit burura.

Hasiera-hasieratik oso argi geneukan haurra Haur Eskolako espazioan pixkanaka egokitzen joateko, gurasoak lasai sentitzeko eta hezitzaileok haurra ahalik eta hobekien ezagutzeko "ame"-k gela barruan egon behar zutela denbora luzez. Hala ere, hori horrela izan behar zuela sinistetik praktikara badago salto bat.

Horrela bada, hasiera pixka bat gogorra egin zitzaidan, ordura arte ez bainengoen ohituta lan egiten gurasoak denbora luzez gelan daudela. Zenbait unetan behatua ikusten nuen neure burua, gelan tarteka sortzen ziren zalaparta egoeretan ere gurasoek zer pentsatuko ote zuten galdetzen nion neure bu-

ruari, eta estres momentu horiek nolabait saihestu nahi nituen, bai haurrari begira, baita gurasoei begira ere.

Baina denbora aurrera zihoan heinean, ohartu nintzen egoera horien aurrean gurasoak bertan egotea positiboa zela, hori baita Haur Eskolako egun bateko egonaldian suertatzen den egoeretakoa bat. Beraz, gurasoek gelako errealitatea gertutik bizitzeko aukera izan zuten, une lasai eta mugituekin tartekatuz.

Bestalde, esan behar dut oso aberasgarria izan zela gurasoekin batera lan egitea. Hasieratik primeran murgildu ziren gelako giroan, ikusle moduan egotetik parte-hartzaile izatera pasa baitziren berehala.

Horrela bada, bazkalorduan prest agertzen ziren euren ez zen haur bati purea emateko, erortzen zen haurra kontsolatzeko, hezitzaileekin batera abestu eta dantzatzeko,...

Honetaz gain, gurasoek primeran barneratu zituzten Joxe Ramonek saioetan eta hezitzaileok egunerokotasunean ematen genituen aholkuak, urratsak,...gelara etorri orduko oinutsik jartzen ziren guraso eta haurrak; gurasoak lurrean esertzen edo eta etzaten ziren haurraren posizio berdinean, hamaak ez ziren apenas erabiltzen,...

Beraz, oso garrantzitsua eta pozgarria izan zen eguneroko kontaktua ondoren ikustea oro har etxean Haur Eskolako erritmo eta ohiturei jarraipena ematen zitzaiela. Horrek guztiak erraztu egin du haurraren garapena osotasunean garatzea.

Pixkanaka-pixkanaka guraso eta hezitzaileen arteko harremana gero eta estuagoa bilakatu zen, elkarri konfiantza transmitituz, harreman naturala, egiazkoa izanaz, esate baterako. Honek bide batez, haurrekiko banakako hezkuntza garatzea erraz ahalbidetzen du, bakoitzaren ohitura,

erritmoak,... ahal diren heinean errespetatuz.

Azkenik, esan behar dut Joxe Ramonekin, gurasoekin eta haurrekin batera lan egiteak zerbait mugitu duela nire barnean, barneratu gabe nituen hainbat gauzaz jabetu bainaiz.. Bizi izandako esperientziak lana egiteko

beste modu bat erakutsi dit, haurra ulertzeko era ezberdin bat.

Eta eskerrak ematen dizkiet guztiei, baita gelako talde-lanean buru belarri aritu diren beste hezitzaileei ere, denon inplikazioari esker eman baitugu haurraren garapenean jada eragina duen pauso txiki hau.

Usurbilgo H. E. Gipuzkoa (2006).



"Legarda" herri eskola Ahaleginak elkartzen

Ana Saez, Begoña Burgoa, Rosa Ausin eta Susana Mentxaka

"Legarda" Herri eskolako AMPAko kideak



"Legarda"
eskolako
historia

Gure artxiboak arakatzuz, "Legarda" eskolako lehen elkartearen liburuan (1975ekoa) irakurri dugunez, hastapenean bertan, egun eskolan lantzen ditugun kontu berberak agertzen ziren garaiko aktetan: ikasketa hobetzea, euskara bultzatzea, liburutegia, familia guztiak bazkide izateko premia, bazkide berriak egitea, eta abar.

lako familia elkarteak



Orduz geroztik eta egundaino gurasoak eskolaren aldeko lanean aritu dira baina, hori bai, gehienetan oso era prekarioan, Elkartean parte hartzen duten pertsonak gutxi direlako. Elkarteko lanean zedarria 97-98 ikasturteak markatu zuen: orduan sartu ziren pertsonak osaturiko taldeak egun lortu nahi dugun partaidetzazko eta kalitate oneko eskolaren garapenean familien parte hartze estrategikoaren ildoan adierazi zuen.

Ideia berriak zekartzan lantalde hark, ordura arte lantzen ari zenari (eskolaz kanpokoak, batik bat: futbola, saskibaloia, igeriketa, gimnasia erritmikoa eta euskal dantza, alegia) jarraipena emateaz gainera, eskolaz kanpoko kulturalak ere lantzen hasi zen: plastika, frantsesa, musika, etab.

Ekintzak koordinatuz

a. Ikastetxean

Egun, area horretan beste hainbat eskaintza ere sartuta, jardue-

ra mordoak egiten dira, hala nola futbola, bosteko futbola, saskibaloia, atletismoa, pilota, gimnasia erritmikorako hastapena, gimnasia erritmikoa, eskubaloia, irristaketa, skatea, aerobica, kirol anitzekoa, txikiritmoa, euskal dantza, animazio tailerra, antzerkia, helduentzako plastika, txikientzako plastika, magia, xakea eta hipika.

Jarduera horiek guztiek harik eta hobeki funtziona dezaten, duela hiru urte **ikastegia hertsikiago inplikatzeko** lortu zen, hots, orduan arte jarduerak Elkarteak bakarrik eskaintzen bazituen ere, hurrezkeroko irakasleek ere esku hartzen dute eskaintzan.

Familia eta irakasleen arteko elkarlanak ikastetxearen ohiko jardueran ondorioak izan zituen eta, adibidez, erakundeak harturiko konpromisoa agerian geratu da, hori bete ahal izan dadin klausuroaren ordutegia aldatu dela eta, horretarako, Elkarteak sostenga-

tzeko eskolaz kanpokoetan lanean diharduten bi irakasle liberatu direla eta oraingoan, eskolaz kanpoko jarduerak ikastetxean duten garrantzia aintzat hartuta, eskola kontseiluaren batzorde bat sortarazi zuela kontuan izaki.

Horregatik, Elkartearen lan-alor hau eskolak oro har txikiei, erabat gara zitezten, ematen zien erantzunean eragina izan zezaten ahaleginak elkartzeko funtsezkoak izan da.

Une horretan, Gurasoen Elkarte-ko beste arreta-gune bat bi urte-



**Elkartearen lan-alor hau
eskolak oro har txikiei,
erabat gara zitezen,
ematen zien
erantzunean eragina
izan zezaten
ahaleginak elkartzeko
funtsezkoa
izan da**

koen gela eta pertsona laguntzailearen euskarri ekonomikoa izan zen. Horretara begira ere, ikastetxearen eta senideen inplikazioa eskatu eta lortu zen, txikienek kalitateko hezkuntza (hezkuntzarreta, ratioa, eta abar) har zezaten.

Ahaleginak elkartzea dela eta, garai hartan sortu zen gai nagusia, ordea, **Legarda Eguna** izan zen, Italian izaniko antzeko bizi-pen batean oin hartuta. Jarduera horrek duen garrantzia ulertu ahal izateko, eskolak bizi zuen egoera ezagutu behar da: Udalak mantenua erabat utzia zuen, adibidez, beste eraikin bat altxatuko zelakoan.

Ekimen horrekin bi helburu lotu nahi ziren: batetik, eskolan komunitate osoa parte hartzea, eta, bestetik, eraikinari "muturra garbitzea". Lanari ekin genion, beraz, eta Gurasoen Elkarteak dei egin zien senideei, inplikazioa

areagotu eta ikastetxearen hobekuntzan parte har zezaten.

Egiten ziren eta egiten diren lanak era askotakoak dira (Udalari dagokiona ahanzi gabe), hala nola lorezaintza, muralak pintatzea, gortinak egin eta ipintzea, ikasgela eta korridoreetan kortxoak ipintzea, armairuak egitea, etab. Udalarekin elkar harturik, erakunde horrek material guztia jartzen du eta guk eskulana.

Legarda Egunaren arrakasta ikusirik, partaidetza ugalduz doa urterik urte; areago, hasieran lan-jardunaldi erdia (goiz partea) izan bazen ere, azkenekoan egun osoa antolatzea erabaki zen: orain, goizean lanean aritu ondoren, jai-giroko herri bazkaria egiten da eguerdian, ilunabarrera arte luzatzen dena.

Bertan komunitateko eragile guztiek hartzen dute parte: gurasoak, ikasleak, irakasleak, irakasle ez diren langileak, etab. Dezenteurretiaz prestatzen da egun berezi hori, antolakuntzaren ardurak ikasturtean zehar hartzen duen batzordearen gidaritzapean: kontua da eguna arrakastatsua izatea

eta den-denok jai-giroaz gozatzeari, guztion artean eskola hobe dezagun.

Egun, Elkartearen lanean gabiltzan gurasoak arbasoek ereindakoaren uzta biltzen ari gara eta, iazko ikasturtean, adibidez, eskolako kolektibo osoak akordio handi bat izenpetu zuen: kuota bakar batean batu ziren aurreko bi kuota (bata, Elkartearena; bestea, eskolarena, jaialdia egitekoa); horrela erabat aldatu zen ordura arte egiten genuen lanaren norabidea, familia guztiak Elkartearen kide bihurtuko baikin batekin horrela.

Kuota horrekin ikasturtearen barrena egiten diren jaialdiak ordaintzen dira eta gure eskola aberastuten duten proiektu jakinei laguntza ematen zaie, hala nola ipuin kontalariak, ikasle guztientzakoak.

Bestetik, iazko eta aurtengo ikasturteetan Gurasoen Elkartearen igerilekuko monitore bat ordaintzen ari da: gure ustez, Udalaren programarekin ez da lortzen 4 - 10 urte arteko ume guztiek igerian ikastea eta, gainera, ikasleetako





askok ezin dute ikastaro horietan esku hartu. Eskolaren baitatik irteniko proiektu horri esker 3. mailatik 6. erainoko talde guztiek helburu hori, gutxienez, bete ahal izango dute.

Beste lan-eremu handi bat jantokia da: horretaz arduratzen den batzordeak lanean dihardu geure otorduak hobetzeko, hainbat alderdi (ukituak, zaporeak, usainak, aurkezpenak, etab.) bariatzeko eta otordu osasungarriagoak moldatzeko. Zeregin horretan ikastetxeko zuzendaritzak, sukaldariak eta arduradunak laguntza osoa ematen dute, gure txikiek ingurune osasuntsuago batean jan dezaten, adiera denetan.

b. Tokiko Komunitate aldetik

Kontuan hartzekoa da Gurasoen Eskolan egiten ari den lana. Hasieratik bertatik eta Mungia aldeko Drogamenpekotasunen Prebentzio Zerbitzuarekin elkar harturik, informazio eta prestakuntzarako hainbat saio antolatu ziren, hezkuntzari, osasunari eta trebezia sozialei dagozkien gaietan baliabidez familiak hornitzeko.

Beste aldetik, ikastetxeko gurasoen premiei egoki zekiekeen programa bat taxutze aldera, hainbat

gai eta ordutegi-proposamenez osaturiko inkestatxo bat egin zen. Bertan bildutako kezka eta eskakizunei erantzuna emanez, ikasturte hartan partaidetzazko sei saio antolatu ziren.

2.004/2.005 ikasturtean, berriz, gure errealitatean presentzia duten gaiak (kontsumismoa, telebistaz baliatzea eta abusatzea, etab.) garatzeko premia atzeman zen. Orduan ere Gurasoen Eskola izan zen hainbat familiaren topa-gunea eta, bertan, bildutako guzti-guztien integrazioa indartzeko asmoz, bizipenak eta irizkiak trukatu eta jorratu ziren.

Horrez gainera, eskolako gurasoen asistentzia errazteko xedez, haurtzaindegi-zerbitzua ezarri zen eta ikastetxeko liburutegiaren ordutegia saioaren martxari egokitu zitzaion.

2.005/2.006 ikasturterako helburu gisa eta irizpideak batzeko asmoz, ikastetxeko irakasleei parte hartu eta proposamenak ager ditzaten gomiti egin genien. Ekimen horrekin, gure seme-alabek hezkuntzaren zein alderditik zuten laguntzeko premia jakin nahi genuen, irakasleen gelako lana errazte aldera.

Proposizio horri irakasleen klastroak erantzun zehatza eman zion: "Pertsonenganako eta arau sozialetarako errespetua" izan zitekeen jorrazteko gai interesgarria. Hortaz, liskarrak konpontze-arekiko errespetuari buruzko hitzaldi-solasaldian zehaztu genuen proposamena kolektiboko kide guztion artean, eta, horretarako, Leioako Berritze-guneko Bizikidetza eta Aniztasunaren aholkulari den Kepa Kamiña-rekin harremanetan ipini ginen.

Aurtengo Guraso Eskolaren proiektua definitzeko eta Gurasoen Elkarteke kideek hala eskaturik, Ikastetxeko Zuzendaritzarekin, Mungia aldeko Prebentzio Zerbitzuko psikologoarekin, Getxoko Berritze-guneko erreferentearekin eta Leioako Berritze-guneko Bizikidetza eta Aniztasunaren aholkulariarekin elkartu gara.

Bilera horretan hainbat proposamen egin dira, bai eskola eremuari, bai famili eremuari dago kienez. Egungo gizartearen ezaugarrietako batzuek, hain zuzen ere, ikasketa egokiago baten premia harik eta nabarmenago bihurtzen dute: nagusitu edo lehenetsi behar diren balioak, seme-alabekin emateko denborarik eza, hedabideen eragina, eta abar.

Planteatutako proposamen horiek gorpuztu daitezten, bidezko helburu eta metodologiaren egoki penak egiteko modua aztertzen

Egungo gizartearen ezaugarrietako batzuek, ikasketa egokiago baten premia harik eta nabarmenago bihurtzen dute: nagusitu edo lehenetsi behar diren balioak, seme-alabekin emateko denborarik eza, hedabideen eragina, eta abar



ari dira, gurasoek halakotzat jardun dezaten beren eginkizunetan.

Hurtzaindegi zerbitzua ikastetxeko Gurasoen Elkarteak bere gain hartzen du saio guzti-guztietan.

Gurasoen Eskola antolatzea dela-eta, Autonomia Erkidego osoko hezkuntza eragile zenbaitekin duten harremanaz gainera, Udalak laguntza eskatu digu berak antolatu dituen kultur jarduerak martxan jartzeko, egintzetan herriaren partaidetza gero eta ugariagoa izan dadin.

Eskolak era askotako jarduerak bereganatuak ditu, hala nola senideentzako behinolako jantziak egiteko tailerrak, herriko toki batzuetan gertatzen diren eszenak antzezteko interpretak, kalejirak, senideek Olentzero ekitaldian parte hartzea, etab.

Emaitzak onak izan dira beti. Beste horrenbeste gertatzen da eus-

kara zerbitzuarekin eta, informazioa bildu edo zeinahi ekintza antolatzeko uanean, laguntza eskatzen diguten edo gurekin elkar harturik diharduten gizarte zerbitzuekin ere.

Amaitzeko, **buletin-egutegiaren eta web orriaren** berariazko lana nabarmendu nahi genuke. Buletina, gurasoei informazioa hela-

razteko ez ezik, geure lanean partaide bihurtzeko asmoz sortu zen.

Ikasturte honetan berriro ere astero-astero argitaratzen da: bestela, konturatu ginenez, albiste asko zaharkiturik geratzen ziren, senideen partaidetza handi eta hertsia sustatzeko lanabes egoki honen helmenetik at.

Beste alde batetik, Mungiako hainbat komertzio publikitatearekin eginez hartzen dute parte, euskal eskola publikoaren aldeko gure proiektua sostengatuz.

Gure balorazioa

Hamar urteotan egin dugun lana eta ibili dugun bidea ikusirik, bizipena arras mesedegarria izan delakoan gaude; dena den, bada beti zerbait hobetzekoa, bada beti proiektu eta erronka berririk aurrean.

Gertueneko erronka (behiena, gure iritziz) Elkartearen lana -kasuan kasuko ekitaldietan ez ezik,





www.legarda.biz

eguneroko dinamikan ere bai-egin nahiko lukeen jendea bildu eta eskola-kontseiluaren aurrean aurkeztea da; bestela ezinezkoa izango da testigua eskuz aldatzea eta, areago, orain artean eginiko lan osoa alferrik gal liteke, Legardako eskolaren aldeko

lanean inork esku hartu nahi ez balu.

Horrez gainera, Mungiako IES-ekin harreman iraunkorrari ekin nahi diogu, elkarrekin jarduerak gauzatu eta, horrela, eskolan eginiko lanari jarraipena eman ahal izateko.

Gure harremanei dagokienez, egun Udalarekin ez dugu erlazio txarra baina, edonork dakien legez, behin eta berriz saiatu behar izaten da harremana sistematizatzeko eta kalitadedun hezkuntza publikoan eragina izango duten kontuak subentzionatu ahal izateko.

0-6 Urteko heziketa, pa

Granadako "Luna" Udal Haur Eskolako profesionalen lantaldea



Granadako "Luna" Udaleko Haur Eskolak Granadako Haur Heziketaren Udal Patronatuan dihardu 0-6 urte bitarteko umeen hezkuntzan.

Bizitzaren hastapenean haurren hazkuntza- hezkuntzan parte hartzen duen erakunde den aldetik, Haur Eskolak parte hartzea eta inplikazioa sustatu behar ditu, ezinbestean, seme-alaben heziketan dugun arduraz kontziente izango bagara.

Familiak bere kezka, iritzi, interes eta zalantzak beste hainbat familia eta profesionalekin partekatze gune egokia izan behar du eskolak. Hori posible izango da baldin eta elkarrenganako konfiantzan, errespetuan eta komunikazioan oinarrituriko harreman-marko garbia eratzen badugu, topaketa eta truke indibidual zein kolektiboa erraz egiteko modua izan dezagun.

Senideen eta profesionalen arteko harremanak bide onetik joan daitezten, garrantzi handia dute prest agertzeak, aditzeko gai egoteak eta malgu izateak.

Haurtxoek eskolan egiten dutena ezagutzea, ikasgelan senideak aski sartu eta parte aktiboa hartzea, hezkuntza pertsonalekin egunero zuzeneko harremana izatea, sukaldariekin mintzatzea, materialak ekartzea, haur eta helduak joan-etortzea, ospakizunak egitea... egunero egiten dugun lana pixkanaka ezagutarazteko bideak dira eta partaidetza eta konfiantza giroa sortzen laguntzen gaituzte, bertan denok baititugu esan beharreko gauzak, egin beharreko lanak, hartu beharreko erabakiak.

Parte hartzeko bideak

Informazioa bermatu eta senideen parte hartzea errazteko xedez gure eskolan eta ikastaroan barrera hainbat une eta bide antolatatu ditugu, bakarka zein talde lanean aritzeko.

a. Talde-lanean

- Ikasturteari hasiera emateko eskolara etorri berri diren senideekin bilera egiten da; bertan, elkar ezagutu eta haien seme-alaben egokipenaz aritzen gara, prozesu horrek sekulako garrantzia baitu denontzat.
- Ikasturtea hasitakoan, eskolako senide guztiei dei egiten diegu; topaketa horretan joan den ikasturteko Zentroko Urteko Planean haurrek, senideek eta lantaldeak landutako gaiaren garapena jorratzeko eta hastear dagoenerako lan-proiektu nagusiaren orientazioa partekatzeo aukera izaten dugu, eskolako hiru protagonista horien ikuspuntuak eta interesak txertatzea helmuga izaki.
- Adin-talde bakoitzeko senideak hiru hilean behin elkar-

Partekatu beharreko lana

tzen dira. Bilera hauetan taldeak izango dituen heziketa-asmoak, proiektuak eta antzekoak (baita hauen zergatiak ere) haurren zeregina eta senideek dakartzaten gai interesgarriak jorratzen ditugu.

- Senideei eman beharreko informazioa, ospakizunak, txangoak, haurrentzako ekitaldiak eta antzekoak diren bakoitzean ere bildu egiten gara.
- Eskolako talde guztietan egunero-egunero ematen dugu idatzizko informazioa: "Gaur" izeneko horiek talde bakoitzaren sarrerako atean jartzen diren iragarki-taulak dira eta bertan taldearen bizitza, jarduerak, aldarteak, gertakizun zehatzak eta antzekoez gainera proiekturen baten gainera informazioa, irteerak eta gainerakoak jasotzen dira, modu orokorrean jaso ere, egunez egun buruturiko egintzez familiaren eta haurren arteko elkarriketa sustatzeko eta taldeak egiten duen lana partekatu ahal izateko.
- Eskolako eta Gurasoen Elkarteko informazio orokorra,

berriz, eskolako ate nagusian dagoen iragarki-taulan ezartzen da.

- Senideen Txokoa adin-talde bakoitzaren berariazko espazioa da: bertan senitartekoei irakurri, mailegu bat eraman, edo seme-alaben hazkuntza eta heziketaz interesa piztutuen gaiei buruzko informazioa eman, eta antzekoak egin ditzakete.
- Taldeko kideek parte hartu eta elkar ezagutzeko ahalbi-

deratzen duen beste lana-bes bat "Liburuxka bidaiaria" da. Liburutxo hori talde osoarena da, etxetik eskolara eta eskolatik etxera doa etengabe; familia bakoitzak egun batzuetarako ekartzen du etxera eta gainerako kideen aurrean aurkezten dute beren burua, seme-alabekin, egiten dutenen berri ematen dute, kontu eta historia zaharrak kontatzen dituzte, etab.

Beraien artean ez ezik, taldearekin ere komunikatzen



Luna Udal H. E. Granada (2006).

dira. Liburuxka hori ia talde guztiek dute: 1-2 urtekoetatik hasi eta 5-6 urtekoetaraino.

- 5-6 urtekoen taldean, eskolatik irteten den promozio bakoitzaren "Bizitzako liburua" egiten da eta bertan haur bakoitzaren historia kontatzen da: nolakoa zen iritsi zenean eta igarotako urte horietan nolako gertakizun eta eskarmentu bizi izan dituen. Idazketan denek hartzen dute parte: umetxoek, maistrek eta senideek.
- Senideak beraien artean eta eskolarekin harremanetan izateko beste aukera bat, bestelako ekitaldiak antolatzeari da: eskolan jaialdi herri-

tarrak egiten ditugu, adibidez, gurasoek ideiak agertzeaz gainera, horiek prestazean eta mamitzean ere parte har dezaten.

Horiez gainera, beste hainbat ekitaldi ere antolatzen ditugu:

- Berariazko gai baten gaineko hitzaldiak; gai hori, askotan, Zentroko Urteko Planak jaso duenarekin lotua dago: guraso eta seme-alaben arteko masaje-tailerra, posturen kontrola pertsonal helduentzat, sukaldaritzako tailerak sukaldariekin, etab.
- Erakusketa, kontzertu, antzerki eta abarretarako irteerak: horietara, gurekin etor

daitezen gomit egiten zaie gurasoei batzuetan.

- Hainbat proiektu egiteko tailerak, senideen laguntzarekin: topagune berezi-bereziak dira, zeregin jakin batean (eskoletan baliatzeko artefaktuak egitea, ipuinak, antzezlanak, agerraldiak, sukaldaritzaren errezetak ikasi eta elkarrekin trukatzeari, interesatzen zaizkigun gaiez eztabaidan aritzea...) denok biltzen baitezake.

Horrelakoetan denok ikasten dugu zerbait, adin-taldeekin diharduten profesionalen eta gurasoen atean konplizitate handiagoko harremanak sendotuz doaz, eta gure proiektu komun honetaz kontzientziatzen.



Luna Udal H. E. Granada (2006).

tzia handiagoa hartzeaz gainera, eskarmentu handiagoa ere irabaziz goaz.

b. Alor indibidualean

- Haur Eskolako koordinatzailearekiko hastapeneko elkarrizketa da senideekiko lehen kontaktua; bertan arduradun horrek datu orokorrak jasotzen ditu, funtzionamenduari gainera informazioa eman eta eskola erakusten die gurasoei.
- Ikasturtearen hasieran haurraren maisu edo maistrak elkarrizketa indibiduala egiten du senide berriekin eta beharrezkotzat jotzen dituen pertsonekin; bertan informazioa elkar trukatzeko dute, haurtxoa hobeki ezagutu ahal izateko, eta, era horretan, eskolarako egokipen prozesua sustatu eta taldearen egituraketa errazteko.
- Ikasturtean zehar senideek eskatzen duten eta irakasleek beharrezkotzat jotzen duten guztietan, elkarrizketa pertsonalak egiten dira.
- Txikien taldeetan (0-1 eta 1-2 urtekoetan) egunero, senideekin komunikatzeko, eskola eta etxearen arteko "joan-etorriko liburuxka" baliatzen dugu. Horrelakoetan senideak eta irakasleak, gertutasunez, bi errealitateetan (etxean eta eskolan) haurrak bizi izan dituen gertakizunak nagusietan apuntatzen dituzte. Berariazko premiak dituzten haurren kasuan liburuxka horren erabilera luzatu egiten da, baliagarritzat jotzen denean.



Luna Udal H. E. Granada (2006).

- 2-3 urtekoen taldeetan, eskolan agerian dagoen "Egunez egun" izeneko orri baten bitartez ematen da informazioa: bertan, laburbildurik, egunean haur bakoitzak bizi izaniko gertakizun zenbait jasotzen dira: bazkaria, siesta, animoak edo nabarmen daitekeen beste zerbait. Horri esker, senideentzat biziki premiazkoa den informazioa bermatzen da eta, gainera, despeditzeko une labur horretan egunean jazo dena iruzkindu, eginiko lanez gozatu... ahal izaten dugu.
- 3-6 urteko taldeetan egunero informazioa hitzez ematen zaie senideei, eskolan sartzean edo bertatik irteteen.
- Eskola irekiaren kontzeptua atzemateko une atseginak

diren aldetik, iristeko eta alde egiteko uneak garrantzi handikoak dira, horietan haurren eta senideen gainera informazio eta iritzien trukaketa eta kontaktu hertsia gertatzen baita.

c. Parte hartzeko bestelako bideak

Aipaturiko parte hartzeko bide horiez gainera, badira beste batzuk ere, legeak xedatutakoak: Gurasoen Elkartearen jarduera eta Eskola Kontseiluan -eskolako bizitzari dagozkion erabakiak hartzeko organo eskudun den aldetik- senideen ordezkaritza aritzea.

Parte hartzeko bide eta une horiek Granadako Haur Heziketarako Udal Patronatuko eskola guztiek tartean, "Luna" eskolak baliatzen



badituzte ere, garatzeko orduan ikastetxe bakoitza bere estiloan dabil.

Bizipen bat: haur literaturari buruzko lana

Joan den ikasturtean haur literatura landu genuen. Ondoren, orduan bizi izan genituen hainbat egoeratan barrenako ibilbidea egingo dugu, haurren familia eta eskolaren arteko topaketan bideak eta mintzairak nola ehuntzen diren ikusiz.

"Ipuinak, herri-kantak, esamoldeak, poemak, kontakizunak, bizi izaniko gertakizun edo irudikaturiko istorioen narrazioak, besteak beste, gure kulturako elementuak dira, bai etxean, bai eskolan gure eguneroko une askotan presente daudenak."

Abiagune horretatik, eskolako lantaldean, haur literaturaren mundua hobeto ezagutzeko eta eskolan zein etxeetan dauzkagun

baliabideak optimizatzeko aukera emango zigan lan proiektu bat ikasturtean zehar gorpuztea deliberatu genuen, bertan kolektiboko kide guztiok parte har genezan: haurrek adin-taldeetan, senideek eta profesionalak.

Lantaldearen lehenasunezko helburuetako bat, proiektu horretan senideekin eskuz esku jardutea izan zen, beraiek ere inplika zitezten gaiari dagozkion tailer eta hitzaldien bidez aukera emanez: horrekin erdietsi nahi genuen liburu bilduma zaindu eta oparoa umeen eskura ipintzearen garrantziaz senideak sentsibilizatzeko.

Proposamena adin-taldeen eguneroko bizimoduan gorpuzten hasi zen eta ikasturte hasierako Eskolako Batzar Nagusian senideei aurkeztu zitzaion; bertan, denek eginiko ekarpenak eta proposamenak eztabaidan jarri eta jorratu ziren.

Jarduera asko ikasturtean zehar zehaztuz joan ziren, hiru hilez behin egiten ziren adin-talde bileretan. Esate baterako, 0-2 urteko taldeetan hainbat senidek, maistrekin elkar hartuta, irudi eta diapositibez osaturiko dossiera egin zuten, taldean landu eta gero, Eguberrietako jaialdian, aurkeztu zen musika-sekuentzia bat ilustratzeko.

Zaharragoen taldeetan, berriz, ipuin kontaketen astean behin ipuin narrazioak egiten ziren: gurasoren bat edo anai-arreba ikastetxera joaten zen, haurrei ipuinak kontatu, irakurri edo bestelako formatuetako istorioak aurkeztera. Senide batzuk, era berean, haurrekin elkarlanean aritu ziren ikasturtearen amaierako ekitaldian ipuin baten antzezpenean.

Gurasoen Elkartearen ekimenez Liburuaren 1. Jaialdia antolatu zen (aurten ere egingo dugu): bertan stand bat moldatu zuten, eskolako haur guztiak ekarritako liburuarekin ospakizunean erakusteko xedez. Liburuak ikusirik, aurretiaz eginiko isilpeko lan guztien emaitzak loratu zirela frogatu zen ekitaldian.

Eskolako lantaldeak beste proposamen bitxi bat ere egin zuen: denok parte hartuko genuen liburu handi bat egitea, alegia.

Ilargia sarrera buruan dagoen panpina hori baino zerbait gehiago dela adierazteari interesgarri iritzi genion, ikerkuntzaren ikuspegitik; are eta gehiago, ordea, gure eskolari horrela deritzola go-goan izaki.

Galdera eta ikertzeko proposamena, beraz, hortxe ziren, eskolako lantaldeak jaulkirik. Ihardespenak, noski, denon artean bilatu beharko genituen.

Goazemazu lanera, hortaz.

Gela bakoitzeko "Gaur" horien bitartez, ekarri nahi zituzten erreferentzia, albiste, irudi, poema, kanta, asmakizun, sehaska-kanta eta burura zekizkiekeen gauza guztiak eskatu genizkien senideei.

Haurtxoek etxean edo gertuenean inguruneetan topatzen duten informazioa pixkanaka-pixkanaka metatu zuten eskolan. Irudi-munduarekin lotura zuten familietako seme-alabek, adibidez, artista zenbaitek interpretaturiko ilargiaren irudiak ekarri zituzten. Internetetik ateratako argizaria- ren gaineko informazio zientifikoa ere (bere dimentsioak, zikloak, itsasaldietan daukan eragina eta

bestelako datu fisiko eta matematika asko) iritsi zitzaigun. Gure zaharrek ere esku hartu zuten, beren asmakizun, atsoitz eta gainerakoak eskainita.

Informazio horiek guztiak, geletara iritsi ahala, adin-taldeek azterzen zituzten.

Senideek eta haurrek bildutako material guztia jasotakoan, atontze-lana zetorren: dokumentu, irudi, informazio eta gainerako horiek nola erakutsiko ziren erabaki beharra zegoen. Horretarako, eskolako iragarki-taularen eta gela guztietako ateetan ezarritako oharren bidez Tailerra osatzeko deialdia egin zen: kontua zen, denon artean, "Ilargiaren Liburu Handia" egitea.

Tailerraren lehen saioan guraso eta maisu.-maistren talde batek

material hori guztia ez ezik, haurrek eskolan eginiko lanen laginak ere bildu zituen. Hurrengo pausoa, material hori sailkatu eta aukeratzea zela-eta, adostasunera iritsi eta erabakiak hartzea izango zen, liburuaren azken formatua taxutuko bazen.

Hurrengo saioetan liburu pittinaka-pittinka moldatu zuten autoreek. Itxura ona har zezan, orrialdeak banan-banan prestatu, maketatu, apaindu zituzten, nor bere sormen, gaitasun eta trebeziak eskaini zituen; areago, bertaratzea ezinezkoa zutenek lanak etxera eraman eta, han, bakar-lanean egingakoak askotan harritu egiten ginen. Horrela gertatu zen, adibidez, azal zoragarriarekin.


Dena buruturik, tokia erabaki eta erakusketan liburuaren euskarri izango zena diseinatu zuten.

**Hezkuntza-komunitateko
kide guztien arteko
topaketa eta trukea
sustatuko duten
denbora, espazio
eta baliabideak eskaini
behar dizkigu
Haur Eskolak**

Azkenean, eskolako sarreran liburu agertu zen. Bertatik egunero denok igarotzen gara, txikietatik hasi eta zaharrenak arte eta denok gelditzen gara haren aurrean, ikusteko, kontsultatzeko, gozatzeko.

Gure ustez, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko topaketa eta trukea sustatuko duten denbora, espazio eta baliabideak eskaini behar dizkigu Haur Eskolak. Norberaren berariazkotasunak eta partaideen arteko aldeak aintzat hartuta eta, horrenbestez, era askotan kolaboratzeko eta parte hartzeko aukerak eskainiz: bai deialdien ordutegietan, bai proposamenen nolakotasunetan... Beharrezkoak izango diren egokipenak egiteko, haien eskura ipintzen ditugun baliabide guztiak begiratu eta balioztatuz.

Senideak, haurrak eta profesionalak elkarrekin bizitzeari, elkarbizitzan aritzeari esker eskolaren hezkuntza-proiektua denon artean gorpuztuko dugu.



Luna Udal H. E. Granada (2006).

Hiru belaunaldi egita

Josune Zabala

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZlko irakaslea



Transmisio bide bat urratzeko ahaleginak

Errezilen, 600 biztanle inguru besterik ez dituen eremu gipuzkoar base-rritarrean, Atala Kultur Taldeak transmisio bide zaharkituak berri-tzeko ahaleginak egin ditu aurretan. Herritar adinduen gaztaroko bizimoduak hitzez eta ekintzaz berritzeko asmoz, garai bateko gari prozesu osoa gauzatzeari ekin diogu.

Lantegi horretan, Kultur Taldea bera izan da su-piztailea; guztion maisu-maistrak, adinduak; herritarren parte hartze zabala eta lagunarte giro bikaina, berriz, emaitza.

Zereginak izan ditugu taldekideok, zereginak jarri dizkiegu parte hartzaileei. Zeresana izan dugu familia, kalean eta lagunartean... eta zer pentsatua ere eman digu aurretan erdietsitakoak.

Garai bateko langintzak ezagutzen ez zituztenei begirako proiektua sa-

konduta ahala harreman sare berriak sortu dira, adin ezberdinetako herritarrok elkarturik egin dugu lan, batera izan ditugu gaiaren gaineko hizketaldiak eta elkarrekin gozatu dugu ospakizunetan. Azken batean, giza harremanetan, ezagutza transmisioan, auzolanean aberasten lagundu digu egitasmoaren ziriak.

Uztaroa, ikasgai

Esan bezala, herriko ondare baztertuari hautsak harrotu eta lantegi horretan ahal den herritar gehienak murgiltzea izan da Atala Kultur Taldearen helburu nagusia. Jorragaia, berriz, gari prozesu osoa gure aitona-amonek egiten zuten moduan gauzatzea. Hasi lurra prestatzen, eta ogia egitearekin bukatu.

Gari uzta jaso ahal izateko, lana egin behar gogotik! Gogo onez abiatutako egitasmoari atzera begiratuta, urtarotan banatuta azal liteke argien auzolana.

a. Udazkena eta negua

lazio udazkenean ekin genion lanari. Lehenik, lurra eskuratu behar genuen. Lur saila herritik gertu egoteak bazuen garrantzia ekitaldian parte hartu eta gari proze-

sua behatzeko. Geure neurrira egina zegoen Eskola aurreko saila. Jabearekin hitz egin, eta bera konforme!

Bigarrenik, garai bateko lanen berri izateko ezinbesteko genituen laian jarduten ziren herritarrek, beraz, haiekin jarri ginen harremanetan. Afari mokadu bat eginez, izan genuen zer entzuna, zer jasoa eta zer ikasia. Laiari izandako garaiak jario gozoan berritu zituzten elkarri txanda ezin kenduta. Lana bera jolas balitz bezala kontu-kontari, jolasean, alajaina!

Ondoren, laian aritzeko herritarrek bildu eta lantegi horretan ikasi beharra zegoen. Gari-ereite egunean, hiru belaunaldik egingo zuten laian eta aitzurrean. Larunbata arratsaldetan biltzen ginen laian ikasteko: gazte eta gurasoak ikasle, aitona irakasle. Azalpenak, jarrabideak, elkarriketak, kontu zahar eta berriak korapilatzen ziren algarra askoren artean.

Egun desiratu hartarako garia ere eskuratu beharra geneukan. Ezkioetik ekarri genituen Arkauteko ikertegietan aztertzen ari diren Euskal Herriko eta kanpoko gari zaharrak. Bost gari mota gerturatu genituen, 3000 urte ingurukoak zaharrenak.

asmo batean

Gari-ereite eguna iritsi zen. Ikusentzuleentzat triptikoak banatzen haurrak, jaialdiko esatari pareazalpenak emateko gogotsu, laiari eta aitzurleak urduri, itzaina idiak uztartzen, area ondoan, gari aleak pertzetan eta hamaiketakoak presatatuta. "Laian estu eta mahaian laisai", bai lehen, bai orain. Eginkizunak beteta, bazkari eder batekin eman genion amaiera egunari.

b. Negua eta udaberria

Atzeak erakusten omen du aurrea nola dantzatu, beraz, prozesua behatu, aztertu eta lur saila zaindu beharra geneukan. Zer hoberik lur sail pareko Eskolara egunero doazen haurrak baino...

Eskolako irakasleekin bilera egin, eta testuinguruaz baliatuz, eskolan

bertan gaia mami zezaten eskatu eta laguntza eskaini genien. Gogotsu hartu zuten irakasleek gure proposamena.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan lanak banatu, eta ikas-kuntzari ekin zioten. Behatzaile, zaintzaile, esperimentatzaile eta sortzaile bihurtu ziren herriko haurrak: Matematiketan neurriak lan-



Errezil. Gipuzkoa (2006).



Errezil. Gipuzkoa (2006).

duz; Ingurunean landareak behatuz; Plastikari txori-izugarri edo txorimaloak eginez; Hizkuntza eta Teknologia berrietan, argazkiez baliatuta, ahozko eta idatzizko azalpenak erakiz. Haurrek Eskolan ateratako emaitzak etxetara eramanez zizuten guraso eta aitona-amonak ikusi, eta haien gainean jardun zezaten.

Haurrek egindako txori-izugarriak lur sailean ezarri beharra ere bazegoen, eta aitzakia horrekin beste larunbat arratsalde bateko jaialdia antolatzea egoki iruditu zitzaigun. Haurrak gustura eurek egindako artelanek gari saila apaindu eta udaberriaren euren funtzioa beteko zutelako, baita herrian kalejira egin eta haur jolasetan parte hartu zutelako ere; gurasoak ere pozarren seme-alaben artelanean ikusmiran.

Haurrak Eskolan behatzaile eta kontatzaile lanetan jarrita ere, ba-

geneuzkan ikertzaile adituak, egunero, sail inguruan mian. Adinduek egunero zaindu ziguten altorra, eta herriko guraso argazkizaleak garapen une txikiak gordetzen zuten argazki kaxan.

c. Udaberria eta uda

Udaberriarekin batera, lehen gari puntak lur saila berdez koloreztatu zuten. Hazi eta hazi, bazihoan aurrera ereindako garia, eta gari gaineko txoriak goserik ez! Ogirik jan nahi bagenuen, geure lurra babestu beharra geneukan; berriz ere auzolanera deitu beharra zegoen herritarra. Bi asteburutan bukatu genituen gari eremua sare estaltzeko lanak.

“Handia banaiz, txikia banaiz, maiatzean burutuko naiz”. Horixe esan eta buruan gordearazi ziguten adinduek, eta horixe gertatu zen. Bost gari motak burutu ziren

eta handik gutxira kakotu. Garia ebaki, metatu, jaso eta jotzeko garaia iritsi zen uztailarekin batera.

Hartarako ere ezinbesteko zen adinduen ezagutzaz janztea. Zein unetan eta nola jotzen zen garia? Zein lanabes erabiltzen ziren horretan? Nola egiten ziren metatxoak? Nola bereizi lastoa eta alea? Berriz ere aitona-amonekin bildu, gari-igitarako tresnak bilatu, konpondu eta bigarren ospakizun handirako lantegiari heldu genion.

d. Uda eta udazkena

Haurrak oporretan ziren sanferminetarako eta aste horretako arratsalde batean bildu ginen haur, gazte, guraso eta aitona-amonak lur sail puska bat ebaki, metatxoak egin eta igandeko ospakizuna prestatzeko. Guraso eta aitona-amonak igitaiekin garia moztu eta

azaoak egin; haurrek azaoak jaso, metatxoak egin, haien ondoan txori-izugarriak jarri... Zein baino zein gusturago.

Berriz ere hiru belaunaldi batera auzolanean, derrigorrean jarri gabeko eginkizunetan jolasean, solasean.

Gari-igitarako izendatutako igande bezperan, egunerako tresnak baserrietan jaso, lur sail ingurunera eraman eta erakusketarako moldatu genituen.

Igandean, guztiok ala guztiok hartu genuen parte, bakoitzak bere neurriko lanetan: alde batetik, haurrak informazio triptikoak banatzen, gari azaoak jaso eta metatxoak egiten laguntzen, garia harrian jotzen, hamaiketako helduei banatzen, garia garbitzen laguntzen, garia kutxan gordetzen; bestetik, guraso eta aitona-amonak lantegi arduratsuagotan. Eta lanak festa izaten jarrai zezan, sabela berdinduz jan-edana tabernan kantu-kontuak lagunduta.

Udazkenari begira, garia ehotu, irindu eta ogia egitea zen gelditzen zitzaigun lana; bete genuen hori ere. Berriz ere hiru belaunaldiak bildu, errota zaharrera joan-etorria egin, eta herriko okinak egin zituen San Martinetarako ogiak. Zer den norberak ereindakotik jatea...

Jasotako uzta

Proiektuaren hondarretan, herritarrok uztaroaz dihardugunean konturatzen gara hasiera haietan kultur ondarea berreskuratzeke asmoz abiatutako egitasmotik hamai-ka puntta berri ernatu direla:

- Ezagutza zaharrak berritu eta transmisio bide berriak

urratu ditugu: herriko ondarea berreskuratuz ezagutza eta balore ahaztuak inguratu eta berreskuratu ditugu.

- Herriko hainbat sozializazio guneetan zeresana, zer gogoratu eta kontatua eman du gari bateko ohiturak berritzeak.
- Herri eta kultur nortasuna indartu dugu belaunaldi berrietan.
- Gutxienez, hiru belaunalditako herritarrok parte hartu dugu helburu berari begira. Herri ekimenetako parte hartze eta auzolana sekula baino oparagoa izan da.
- Herriko adinduak izan badira ere protagonista handiak, norbera bere egitekotan ere izan da nor gainerakoentzat.
- Eskolako irakasleek herriko kultur egitasmoan parte hartu dute, eta bide batez, hainbat eduki landu dituzte testuinguru esanguratsua lagun. Zeregin horretan, ikaskuntza arautuak eta herri ikaskuntzak bat egin dute, eta familiak eta eskola izan dira partaide.
- Hainbat familiatako harremanak indartu dira tresnak eta ezagutzak partekatzeke unetan.
- Galtze bidean den ahozko transmisioaren zipriztin batzuk gorde ditugu bideo grabazioetan, argazkietan... eta oroimenean.
- Adinduek altxortzat daukaten kultur ondarea balioesten ikasi dugu.



Errezil. Gipuzkoa (2006).

Reggioko identitatea eta oinarritzko printzipioak

Matilde Sainz, Josune Zabala eta Nerea Alzola

Mondragon Unibetsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

REGGIO EMILIA-ra bisitan 2006ko urrian

Reggio Emiliako hezkuntza proiektua ezagutu dugu
iazko urrian, eta geureari ekarpen txiki batzuk egiteko
aztarnatxo batzuk utzi nahi ditugu:

Irakaskuntza hartu-emana da, eta harreman hau zen-
bat eta aberatsagoa izan, orduan eta aberatsagoa da
irakaskuntza bera. Truke horretan **haurren ahalm-
nari, eta potentzialtasunari** ematen diote helduek ga-
rantzia. Haurrei entzutea, haienganako arreta izatea
eta haiekin hitz egitea dira baliabide, eta hartarakoxe
eraikitzen dira gatazka gobernatzeko darabiltzaten el-



karrizketa edo eztabaidak. Oreka jokoa da, egunez egun eraikitzen dena, talde lanean hazten dena. Hara hor Reggio Emiliaren lehen elikagaia.

Baina eztabaida horietan zein neurritan parte hartu behar du irakasleak? Zenbaterainoko **protagonismoa** dauka **hezitzaileak**? Bada arrisku bat tarteko: irakasleak beregan pentsa lezake eta bere ikuspuntua bakarrik azaleratu; bera bihurtu protagonista nagusi. Talde lanaren bitartez heldua ikasleen mailan jarriko da, helduak ez du oztopatuko hurrekiko hartu-eman. Haurren ikuspegiari begiratuko dio; zirrara eragingo die, eta hitz eginez zerbaiten inguruko jakin minak iraun egingo du helduarekin batera.

Lantegi horiek guztiak gauzatzea utopia izan litekeela ere pentsa genezake, baina emiliatarrentzat **utopia lantzea** da aurrera egiteko pizgarria. Errutinan eroriko ez den egunerokotasunari ematen zaio garrantzia. Egunero utopia landuz, zerbait ezberdina eginez. Utopia asko dira. Bat izan liteke besteri entzuten jakitea: haurrari, beste irakasle bati, gurasoari... aditzea. Beste bat da teoria eta praktika uztartzea. Praktika ez da teoriaren aplikazioa; bien arteko etengabeko joan-etorria iraunaraztea ere utopia da.

Eta hartu-eman guztietan **metodo sokratikoa** hobesten da. Haurrak dakienetik abiatuz eta hari tira eginez eraikitzen da haurraren ezagutza. Aurrez landua eta diseinatua izan den ingurunean jartzen da haurra: materialez hornituta daude espazio egokiak, eta haurra horrekin hasten da zerbait egiten. Irakasleak eta gainerrako ikasleak lagundu egiten diete haurrari aurrera egiten. Haurrak horrela lortzen du jarduera, objektua eta pentsamendua errepresentatzea. Norbanakoaren irudikapenetatik abiatuta eraikitzen da talde errepresentazio (gelako haur guztiena) zein pentsamendu partekatua.

Pentsamendua irauliz eta hartu-eman xehatuz eraikitzen da sormen artistikoa, eta hurrek landutako gorpuzt artistikook gizarartean, hirian... agertzen dira. **Haurrak hirian ikusgarri** egiten ditu Reggio Emiliak, artista eta diseinatzaile bihurtu.

Beste elikagai bat ere bada pedagogia arloan gazi-gozoa. Pedagogiari hausnarketa kritikoa eginez, bere baitan gorde dela aitortzen dute, eta gatazka horren irtenbide bakartzat dute **diziplinartekotasunari** heltzea. Errealitatea oso konplexua da, eta hura ulertu zein haren gainean eraikuntzak gorpuzteko ezinbesteko dugu



diziplina bateratuen laguntza. Soilketak saihestu eta errealitatea bere osotasunean jaso eta eraikitzearen aldeko apustua egin dute.

Bateratze lanak, baina, agindu egiten dio hezitzaileari gogoeta egin dezan. Irakasleak, pedagogoa eta taillerista dira, batik bat, zentroetako hezitzaile nagusiak, eta euren esku-hartzearen, **hartu-emanaren gaineko hausnarketak** egiten dituzte.

Eta, azkenik, zer da eurentzat **irakasle ona**? Irakasle ona da hurrekin batera etorkizunari begiratzen diona, tresnak erabiltzen dituena, laguntza bideak ematen dituena. Hezkuntza dinamikoa da, eta denboran nahiz espazioan aurrera egiten du. Haurrari buruzko jakin minari eusten dio irakasle onak.

EZKURTXO:

Marrazkitik - Gorputzera



Eskoriatzan, Arizmendiko Jose Arana Ikastolan, udazkenean ipuin kontaketak egin eta bertako Elizateak hurrei ezagutzera emateko Ezkurtxo erabili izan du aspaldidanik. Ezkurtxo, irudizko pertsonaia magikoa da. Aurten gorputza hartu du, eta Eskoriatzako kaleetara irten da.



Nolakoa izan da izan da Ezkurtxo sortzeko prozesua?:

1. Ikastolan aurreko urteetan erabili den pertsonaiaren irudia aztertu genuen lehenik.

2. Ondoren, pertsonaia diseinatu genituen.

3. Diseinatuta zegoela, maketa txiki bat egin genuen kartoi mehez.

4. Hurrengo urratsa izan zen maketa ekartzea benetako neurrira, egunkari papera erabilita.





5. Gorputza egiteko, patriak atera ondoren, esponjaren gainean jarri, marraztu eta kuterrarekin moztu genuen.

6. Jarraian, pieza guztiak lotu genituen kontaktuko kolaz, eta atzean belkroa erantsi genion, kendu eta ipini ahal izateko.

7. Besoak ateratzeko, zuloak egin genizkion. Ahoaren zuloa ere egin genuen -hortik ikusiko baitu barruan doanak- eta tula jarri genion gainean, barruko pertsonaren aurpegia ez ikusteko.

8. Ezkurtxori txapela egiteko, prozesu berari ekin genion: patriak, moztu esponjan, itsatsi eta abar...



9. Margotzeko, margo plastikoa erabili dugu, baina uraz mehetuta (bestela esponja azkar apurtzen da). Margoa emateko esponja pusketa batez lan egin dugu eta txapelaren testura lortu dugu, patataz egindako zigilu batez margotuta.

10. Hostoak bi kartoi mehez egin genituen, nerbioak egiteko alanbrea erantsi geenion tartean, kontaktuko kolaz. Gainean kola zuriaz eman genion gogortzeko eta lehortutakoan margotu genuen. Azkenean, txapelari erantsi genizkion.



11. Behar diren materialak: esponja, kontaktuko kola, kuterra, alanbrea, kartoi mehea, kola zuria, margo plastikoa eta patata.



Ezkurtxok hurrekin kalean gozatu du.



Bea Arregi eta Irati Gorostiza
beatriz_arregi@huhezi.edu



m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA